

Xabier Unanue

Santa Ageda koplak Zestoan

Auspoa Liburutegia
321

Santa Ageda koplak Zestoan / koplak biltzaile, Xabier Unanue ; idazketa, Xabier Unanue, Joxemari Iriondo. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Gazteria eta Kirola Departamentua ; Zestoa : Udala, 2011. 296 or. : argk., mus. ; 20 cm. + 1 DVD. - (Auspoa Liburutegia ; 321)

Aurkibidea

LG SS 1612-2011. - ISBN 978-84-7907-677-1

1. Canciones populares - Zestoa. I. Unanue, Xabier (1950-). II. Iriondo, Joxemari (1938-). III. Gipuzkoa. Departamento de Cultura, Juventud y Deportes. IV. Zestoa. Ayuntamiento. V. Saila.

398.8(460.154 Zestoa)

784.4(460.154 Zestoa)

821.361-1"19"

821.361-1"20"

Kopla biltzaile: Xabier Unanue

Idazketa: Xabier Unanue - Joxemari Iriondo

Argazkiak: Javier Carballo: 35, 68, 77, 91, 119, 128, 143, 171, 185, 188, 196, 198, 204, 216, 224, 241, 273, 286, 289 or. ; Xabier Unanue: 11, 52, 84, 104, 249, 265 or.; *Danbolin* aldizkaria: 24-25, 182, 213 or.

© Edizio honena: AUSPOA Argitaletxea
Gipuzkoako Foru Aldundia

600 aleko tirada

ISBN: 978-84-7907-677-1

Legezko Gordailua: SS-1612/2011

Fotokonposizioa: Imanol Tapia

Inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

Xabier Unanue

Santa Ageda koplak Zestoan



ZESTOAKO UDALA



**Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa**

Kultura, Gazteria eta Kirola Departamentua
Departamento de Cultura, Juventud y Deportes

Donostia-San Sebastián, 2011

Eskaintza

Urteak joan eta urteak etorri
Santa Ageda bezperan
Santa eskaleoi ateak idekitzen
dizkiguzuten guztioi,
bihotzez.

Atarian

Herri-ohitura guztiek dute izateko arrazoia; edo beste era batera esanda, ohiturei bere nortasuna eman izan diegu betidanik, eta herrian sustraitu eta finkatu izan dira ohitura horiek. Santa Ageda bezperako Santa eskea dugu horietako bat.

Santa Agedak (edo Agatak) izango zituen santa izateko arrazoiak, gai horren inguruan jaso ahal izan dugun informazioak dioenez. Eta ausardia osoz eta batere lotsarik gabe ohitura honi lotutako gure herriko bitxikeria horietako batekin lotu nahi nuke liburuxka honen sarrera-agurreko atal hau.

Santa Ageda bezperako Santa eskeko egun gisa ezagutu izan dugu guk beti, herri-ohitura gisan, bertsoarekin, kopla-rekin edo kopletan egindako saioekin lotuta. Eta zentzu honetan, 1999an *Bertsolaria* aldizkariko 33. zenbakian Santa Agedari buruz plazaratu zena ekarri nahi dut gogora lehenik.

Historia laburbilduz, lehendabizi esan behar da Santa Agedaren jatorriaz badela eztabaidarik, beste askoren artean, seguru asko, Palermo Siziliako huriburuak eta Kataniak biek aldarrikatzen baitute santuaren jaioterritasuna. Baina, itxura guztien arabera, Katania izango da Agataren sorterria.

Santu honen bizitzari dagokionez, berriz, hainbat adituk eman digute bere berri, batik bat bere azken egunen berri:

K.O. 251. urteko otsailaren 5ean Deciu enperadoreak agindu eta torturatuta hil zuten Ageda deuna. Lehenbizi bularrak moztu zizkieten eta gero buztin goritan jarri. Bistakoa denez, oinaze jasan ezinez hil zen martiria. Maltako kriptak, katakonbak eta haien gainean eraikitako eliza dira Santa hau gurtzeko lekurik ezagunenak, eta hango kriptan gordetzen da, ustez, Antonello Gagirik (1478–1536) egindako Agata Deunaren marmolezko estatua.

Gure herrira begiratzuz, Pedro Mari Otaño handia aukeratu balu ere Uztapidek, gure bertsoaritzak zeruan norbait zaindari behar izatekotan, ez dugu uste santuen izendegian arakatu behar handirik zegoenik, kristautasunaren hasierako martiri Santa Agedak baitu gurean koplekin eta koplarien kantuekin loturarik estuena hemen.

Nolabait esateko, herri asko dira munduan zehar Santa Agedari debozio berezia erakutsi diotenak, eta hasieran esan bezela, Zestoan ezagutu izan eta gogoan ditudan gure Santa eskeko ohiturak gogora ekarri nahi ditut.

Gure herriko San Jose ikastetxean ikasle ginen garaian, 1954-57 inguruan, baserriz-baserri eta kalez kale eskean ateratzen ginen Santa Ageda bezperan (liburu honetan zehar argazki batean azaltzen dena lekuko); eta Santa eskean biltzen genuen dirua ikastetxeko beharrei laguntzeko-edo izaten zela esango nuke, nahiz eta guri ez ziguten ematen horren berri zehatzik. Baina, ikastetxean entregatzen genuen behintzat bildutakoa.

Anaia Inazio Lasalletarraren (Inazio Iturrioz, Igorreko semea) ardurapean zenbait bertso ikasi ohi genuen, eta bateren bat gogoan dut oraindik ere:

Santa Ageda bezpera degu
Euskal Herriko eguna,
etxe guztiak kantuz pozteko
aukeratua deguna.
Santa maitea gaur hartu degu
gure bideko laguna,
haren laguntzaz bete gentzake
egun hontako jarduna.

Horrela bada, taldean bertso hau agur bezala Zestoako auzo Aizarna, Arroa goikoa, Endoia, Iraeta, Akua, Etorra, Lili bailara eta herriko kaleak pasatzen genituen koroan bi ahotsetara kantatuz.



Santa eskea mutikotan

Oso oker ez banago, bazen orduan beste ohitura bat ere orain galduta dagoena, tamalez: ikasleok koadrilan joaten ginen, Bittor Zuzuarregi soinu-jole, Joan Mari Mendia pandero-jole eta Ramon Mari Eiguren *Apategi* koplari genuela. Eta lehen aipatutako bertso hori eta koplariak ikasita zituen beste koplaz osatzen zen gure eskea, zerbait bildu nahi izan ezkerro.

Bazen beste ohitura bat ere, eta hauxe ere aipatu nahi nuke.

Elizako monagilo edo akolito zirenak kanpanilatxoak gogotik astindu eta eskuz esku zeramaten otarratxoak ederki betetzen

saiatzen ziren. Haiek ez zuten izaten bertso-kopla kantatu beharrik.

Niri inbidia ematen zidan gauza hark, gu ere akolito izan baikinena, baina Aste Santuko ospakizunetan eta holakoetan bakarrik. Santa eskerako ez ginen akolito ofizialak.

Ohitura halaxe zen eta ohitura neurrian kontatzen dut gaur.

Urte batzuk geroago konturatu nintzen gure eskola-garaiko Santa eskeko doinua eta egun eta arrats-ilunabarrean talde zaharragoek kantatzen zutena ez zirela berdinak, ez neurritz eta ez moldez, koplari-bertsolariak bat-bateko kopla kantatzen zuela, eta taldeak beti azken berdina kantatzen, denek batera.

Santa eskearen inguruko umetako ohitura hauek ez ezik beste ohitura batzuk ere ezagutu genituen gure herrian, eta apunte modura gogoratu nahi dituk soilik.

Santa eskaleak baserriz-baserri eta kalez kale kantari hasi aurretik herriko alkateari baimena eskatzeko ohitura ezagutu genuen guk. Hobeto esan, Manuel Uztapide ezagutu genuen orduko gure herriko alkate zen Jesus Salegi jaunari baimena eskatuz batera bere emazte Agedari koplak kantatzen. Beharbada ordurako ohitura galduxez izango zen, baina Uztapidek ondo baliatu zuen okasioa tiro batekin bi txori botatzeko.

Baimena eskatzeko ohitura hori beste herrietan ere izango zen. Adibidez, honela kantatu baitzuen lehenbiziko koplari Lazkano bertsolari azpeitiarrak gure herrian, koplari saioa egitea eskatu ziotenean, 1988ko otsailaren 13ko jaialdian:

Behar bezela bete ezkerro
Santa eskeko ordena,
lendabiziko Alkateari
eskatzen diot baimena.
Horratx adibide zuzena.

SANTA AGEDA ABESTIAK

*Andante Lenbizi bakarrak, etagero talde osoak, & arte-
raño.*

Zo-ri-on, e-txe on-ta-ko de-noi, o-les
e-gi-te ra ga-toz: a-te-rik a-te
oi-tu-ra za-fa aur ten be-fi-tze-ko as
*& Lenbizi bakarrak, eta gero talde osoak azkene-
raño.*

moz. Ez gau-de o-so a-be-rats di-ruz, ez-ta
e-re o-ñe-ta-koz: ba-ña es-ta fiz sa no ga-
bil-tza, ta kan-ta nai de-gu go-goz.

Abesti au, aldaketa txiki batzuek sartuta dago, Azkoiti'n kanta genduan bezela. Nai duanak, kanta beza Guridi'k ematen duan bezela. Nik jafi dizkiodan itzak sartzeko, erosoago etofiko zaizu goian dagon bezela abestea.

Uztapide izena aipatu dudan ezkerok, ezingo dut ixilik utzi *Lengo egunak gogoan* Auspoa berdea saila eta Auspoa 314 liburuetan berak Santa eskea dela-ta kontatzen digun egun hura (ikus 171-172-173 or.):

SANTA AGEDAREN ESKEAN

Santa Ageda eskean ere ibilli giñan batean Kortatxo ta biok. Urrustilgo duntziñeroa, orduan Lasarten bizi zana; Itxaiz Arruakua, danborrarekin; Madariagakoak beste bi pilarmonika-jotzaille: bat Madariaga-zarrekoa eta bestea Izagirrekoa. Beste amabi-amairu gazte baziran atzetik jarraitzen zigutenak. Eta zenbat lotsa eman ote genduan guk egun artan? Mutillak danak galtza zuriak jantzita eta brusa beltzak.

Gure etxetik Arrua aldera asi giñan. Madariagako bi pilarmonika-jotzaille ta Kortatxo etorri ziran gure etxera, ta beste gazte batzuk ere bai. Endoia gaiña artu ta Arruara jatxi giñan.

Kortatxok eta biok txandan koplatzen genduan: ate baten batek eta bestean besteak. Ala, Itxaizen etxera ailegatu giñan, eta an neri tokatu zitzaidan koplatzea. Limosnarekin etorri ziranean, atera ziran tanborreroa ta duntziñeroa. Len ez det esan, baiña orain gogoratzen naiz, bi panderista ere baginuzen kuadrillan.

Eta, batez ere duntziña asi zanean, nik ez nekian nun nengoan ere. Alakoa zan ura duntziñeroa ere. Ate-ondoko arek jotzen zuan bezela beste bati ere kostako zitzaion jotzea. Bi atetan koplatu genduan. Alkarren ondoan ziran bi etxeak.

Eta an goitik bera abiatu giñanean jo zuten bideko martxa duntziña ta danborrak. Zoragarria zan ura! Ni orduantxe ezeren bildurrik gabe jarri nintzan. Ez pilarmonika-jotzailleak txarrak ziralako; Madariagako aiek oso onak ziran; baiña ate-ondoan eta bideko martxa jotzen utzi egin bear duntziña ta danborrari.

Joan gera Ibiñabarrietan barrena San Llorentetik Beduara ta an urean pasa, irrioa zegoan da zubirik ez. Irrio artan Eska-

zabalen pasa giñan emeretzi lagun, danak kabarra edo olako batean, ta ez dakit nola ez giñan uretara erori. Orduantxe berriz piztu giñan gu.

San Migel Artadi artu ta Zumaiara. An bazkaldu egin bear zan da bat bialdu genduan aurrera bazkaria enkargatzera, ta besteak zubi bien bitarteko etxeak koplatu bear giñuzen.

Guardia zibillak ere antxe zeunden bitarte artantxe, eta guk danak koplatu giñuzen. Etzan guri limosna eman bear etzigunik egun artan; danak diruarekin etortzen ziran orduan: entenitzen zutenak eta etzutenak.

Zubi bitarte ori pasa genduanean, bazkaltzera joan giñan. Bidekoa joaz erria dana esnatu genduan, da geok bazkaldu.

Urrengo, andik atera giñanean, nora abitu pentsatzen etzan errez. Ango ume koskorra eta angos atsoa! Ta gizonak ere bai. Nik uste det Zumaiko erria dana antxe zala. Bagen-duan zeñiek lagundurik eta zeñiek etxeak erakutsirik, gu an, emeretzi gizon galtza zuriak jantzita ikusi giñuzenean.

Bi pilarmonika ta bi panderixta, duntziña ta tanborra, eskandalo ikaragarria ateratzen genduan guk. Portal batean sartzen giñan da bi mutil, gu koplatzen ari giñan bitartean, goiko pisuak pasatzen ibiltzen ziran, goiko tellatuaren ondo-raiño. Guk beian portalean edo bebarruan koplatu, onelaxe:

Gazte batzuek lagun artuta
atera gera eskera,
lengo oituran ospatutzeko
Santa Agedaren bezpera.

Oitura onek jarraitutzen du
oso denbora luzian,
gure aita ta aitonak ere
onela ibiltzen zian.

Urrengo etxe artatik ateratzen giñanean, zeñiek alkar billatu? Jende tartean galdu egiten giñan. Baiña ala ibilli obe da, bai, Santa Agedaren eskean, ateak itxi ta norbera gorde-tzen dan tokian baiño. Urte artan ondo atera giñan, gustora.

Gero illundu zigun, Zumaia pasa genduaneko, ta orduan ziran komeriak. Lengo Zumaiko jende ura palta, ta, gaiñera, baserririk-basarri asi bear da kuadrilla bi puska eginda.

Nik suertea izan nuan: kamioz kamio baztarreko etxeak koplatura etorri giñan Arrua errekaraiño. Kortatxo, berriz, Endañeta baillara ori artuta, Marduetxe-berritik Olaberrian barrena, Presaldetik Txarrantxolara, eta andik Ziolarrena.

Gu, aiek etorri ziranerako an geunden Ziolarren. An baratzeni zopa jan bat egin genduan, da, gu urrengo akordatu giñanerako eguna zabaldu zuan. Bakoitza al zuan bezela etxera, ta urrengo jaian Santa Ageda eskeko jana.

Orduan beste berritu bat emango genion eskeko ibillaldi orri, eta bazkaldu ederki. Lengo soñu-jotzailleak eta danak juntatuko giñan, eta Kortatxo eta biok beste bertso saio bat egingo genduan.

Gaba aurreratzen zanean, Urrengo urtera arte! esan alkarri eta ortan bukatuko zan gure puntzioa.

Sarrera baterako luze bada ere Santa eske egun hau gogoratzeko modukoa dela derizkiot.

Beste ohitura aipagarrietako bat basarri-etxeetako entzuleena da. Itxura denez, Santa eskaleek baserriko atea itxita aurkitu ohi zuten askotan, eta koplariak saio luzea egin behar atea ireki aurretik. Batzuetan luzeegiak ere bai, eta etxeokak famatu beharrean bestelakorik ere kantatu ohi zen limosna eskatzeko orduan. Gaur egun, gehienetan, limosna berehala ematen da, hurrengo adibidean ikus daitekenez. Akoabarrena baserrian, 1995ean, N. Zendoia koplari:

Etxe hontako jokabideaz
guztiz txundituta nago,
hemen limosna eman digute
kantatu baino lenago

Orain Santa eskeko saioak arratsaldean egiten dira gehienetan, eta baserriko ateak irekita aurkitzen dituzte eskaleek,

honako koplak honetan adierazten den bezela, Aurrekoetxea baserrian, 2002an. Koplari, Olalde:

Beti bezela hemen atea
bilatu degu zabalik,
bertso entzuten egongo dira
seguru asko ixilik.

Koplak kantatzen ere aldaketa handiak ezagutu ditugu. Garai batean, etxeko nagusia eta etxekoandrea koplutzen hasita osatu ohi ziren Santa eske-saioak. Edo, beste batzuetan, Santa Agedaren historiari buruzko bertsoak kantatuz. Gaur egun ere lehenengo ohitura hori ez da zeharo galdu oraindik: Etxeko nagusia, etxekoandrea, aitona-amonak, etxeko maiorazkoa, alabak eta abar koplutzen jarraitzen dute; baina Santa Agedaren historiaren koplak zeharo galdu/ahaztu dira.

Beste ohitura batek bizirik jarraitzen du ordea, gure herrian behintzat: Urtearen barruan familian norbait hil bada, (koplak kantatzen hasi aurretik jakin behar da hori) Aitagurea edo Abemariaren bat erretzatzen du taldeak etxekoei dolumina adieraziz, baina soinu-laguntasunik gabe. Limosna emateari berdin jarraitzen diote eta errezoa egiterakoan familiak errespetu handiz eskertzen du ohitura hau.

Gure herrian azkenengo hirurogei eta hamar bat urte inguruan Santa eskeko eguna zuzen gorde izan da. Baina azkenengo urte hauetan auzo batzuetara eta kale inguruko tabernetara mugatu da Santa Ageda bezperakoa.

Gure herrian ezagutu dugun hainbat koplariaren izenak aipatzea komenigarri dela uste dut, bilduma hau zuzen osatzeko. Eta holaxe egingo dut, nahi gabeko hutsegiterik gertatzen bada barkatzeko eskatuz aurrez:

Uztapide, Txapel, Zepai, J. Lizaso, J. Agirre, I. Lazkano, Mitxelena, T. Garmendia, Zeberio, Uztapide II, Olalde, Murua, Ziolar, N. Zendoia, J. Eizagirre *Aittola*, O. Alberdi, M. Aierza, G. Lopetegi eta M. Telleria izanak dira, gutxienez.

Koplari hauek ofizialki ezagutu ditugunak dira; baina Joxin Iturrioz ikertzaile azpeitiarrak bere **Urolaldea bertso-lari** liburuan pasarte atseginik errekuferatu ahal izan duela ikusten dugu. Zestoari dagozkion lerroei begiratuz, labur bada ere, izen batzuk aipatzekoak dira:

Joxe Lizaso Peñagarikano *Olaberri* Santa eskean aritua da Aizarna, Aizarnazabal, Altzola eta Urdaneta inguruan. Aurkezpen moduan kantatutakoa omen da honakoa:

Alkatearen baimenarekin
apaiz jaunaren aginduz,
herrian degun pobre batentzat
gauzak bilduko bagenduz.

Potzueta baserria erre egin zen, eta hormigoiz altxatu zuten berriro. Oso itxura berezia omen dauka. Horrela kantatu zuen Olaberrik:

Etxe hau hola ein zun gizona
etzan izango motela,
kanpotik beira jarrita ere
ematen baitu hotela.

Antonio Iriondo *Bekola*, Bekola baserrian jaioa. Lami-tegi ere ibili omen zen Aizarnazabalen santa eskean pare bat urtez. Gero Bekolak bete zuen koplari lana santa eskean, beste urte pare batez, eta Aizarnan ere bai urte batzuetan. Gero Manuel Lasarte, Juan Joxe Mandiolatza eta Zepai ere aritutakoak dira.

Goikolako baserrian A. Iriondo *Bekolak* kantatutakoa:

Arratsaldian eskaintza ona
didazu, Joxe, eгина,
nun ote dira len aindutako
ogia eta txakolina?

Ez dakigu Goikolako Joxek txakolinik atera zuen ogiari laguntzeko. Entzun beharko bereak zituen horrela izan ez bazen!

Donato Errasti *Trukuman* ere aritu izan da Lasao eta Aizarna inguruetan. Eta oso koplari polita omen zen.

Kepa Eizagirre, Saletxe baserrikoa, ere aritu omen zen urte batez. Ez dugu esango hauek guztiak bertsolariak direnik, baina guztiak aritu izan dira bertsotan.

Azkenik, nahiz gazteago izan, Pello Aizpurua *Lilibe* aipatu behar; Goikoetxea baserrian txerria hil berria zuten nonbait eta Lilibek:

Nundikan nora ez det esango
baiña jakin det berriya
gaur Goikoetxen ila dutela
berebiziko txerriya.

Baiña limosna luzatutzea
ez baletorke ederki,
oso gustora artuko'itugu
dozenatxo bat odolki.

Azkoitian zen Lilibe santa eskean, eta Tapia azkoitiarra txapelketako pilota partidua jokatzekotan omen zen. Hara-tegi baten aurrean kantatu zuen:

Esan didate eskubi aldera
bueltatutzeko begiya,
ta hemen bertatik ikusitzen det
Tapia pelotariya.

Gauza batekin konturatu naiz
eta gordetzeko ez nago,
au ausitzeko Azkaraterik
Bizkai aldian ez dago.

Santa eskeko lanak bukatu eta gero, Koategiren semea-rekin itzuli omen zen Zestoara, Lambretta batean.

Eskerrik beroenak, Joxin Iturrioz, paregabeko hire lana-gatik.

Ez dut sarrera-aurkezpen hau bukatu nahi azken urte-etako koplagintza eta gure herri Zestoan egindako batzuk adibide gisan plazaratu, eta gaur egunean gure Santa eskaleek erabiltzen duten doinua labur-labur aipatu gabe. Adibidez, Olazar baserrian, 1994an:



OLALDE

Aterik ate hemen gabiltza
batetik dinbili-danba,
hemen saioa hasiko degu
arratsaldeon esanda.

UZTAPIDE II

Asmo honekin harro antzean
aldapa degu igoa,
ia eiten degun etxe honetan
itxura antzeko saioa

OLALDE

Ohitura zaharrak leku honetan
nahi genituzke ezarri,
hainbat errespetu eta gehiago
badiogu Olazarri

UZTAPIDE II

Bertso zaleak izan dirade
beti zahar eta gazte,
iruditzen zait mereziko du
familia honek hainbeste.

2000an Legoiaga baserrian:

N. ZENDOIA Norbait barruan egongo al da
gu hemen gaude kanpuan,
zuen baimenik baldin badegu
hastera guaz kantuan.

OLALDE Etxeko zaharrak koplaturikan
sartu nahi nuke barrena,
Mariano ta Joxepa ditut
nere ahotan aurrena

ZENDOIA Bizitzak badu bere alderdia
aurea eta atzea,
baiña entzuten duten tokian
merezi du kantatzea.

OLALDE Mundu honetan gizona ez da
ogiz bakarrik bizi ta
horregatikan hemen dezue
Santa eskalien bixita.

Kopla irakurketa atsegina izango duzun itxaropenez, mila
esker, irakurle.

Zestoan, 2012ko urtarrila
Xabier Unanue

Santa Ageda koplak Zestoan



Santa eskaleak baserriz baserri



ZUBIGOENA **baserria** 1993

- OLALDE Arratsalde on, entzule maite,
ta berdin Zubigoena;
etxe honetan kantatutzeko
eskatzen degu baimena.
- UZTAPIDE II Igual usteko zenuten aurten
santa eskerik etzela.
Gu alai asko agertu gera
lehengo urtean bezela.
- OLALDE Urtero hemen izaten degu
gure saioen hasera,
beraz indarrik haundienakin
hementxe izaten gera.
- UZTAPIDE II Pentsatzen nuen nik aurten ere
ez zegoela hutsikan;
ama hain ondo ikusi eta
gelditzen gera pozikan.
- OLALDE Horretxen berri jakin nahi luke
kantura etortzen danak.
Ama ezikan jakin nahi degu
ondo al zeraten danak.
- UZTAPIDE II Horregatikan dabilta, noski,
bai, dabiltzaden bezela.
Hor ikusten da nolakua dan
ama on baten itzala.

OLALDE Bere itxura ikusirikan
ezin tristetu inola.
Nahiz urte asko eduki, diru-
di sasoiko dagola.

ZUBIGOENA *baserria* 1994

OLALDE Ondo aritu beharko omen da
hasera ta bukaera.
Hemen hasera tokatzen zaigu,
bai, portatutzen bagera

UZTAPIDE II Umore ona ekarri degu
gaurkoan ustez geurekin;
ta hemen nola bizi diraden
guk nahi genuen jakin.

OLALDE Pausuak aurrera eramaten
bizitzak baditu lanak;
notizi txarrik ez degu hartu,
ondo izango dira danak.

UZTAPIDE II Era honetan ez baita ezer
bertso kantari hastea,
geure aurrean hola ikusita
nagusia ta andrea.

OLALDE Zure berttua entzun ondoren
aipatutzera narama,
aurrean gazteak daude baina
atzean hor dago ama.

UZTAPIDE II Neu ere orain ohartu bait naiz
zu atzean zabiltzala.
Ahaztutzekoa ez da izaten
amaren etxeko itzala.

OLALDE Lehengo aitonak esan zutena
esatera noa, hara:
Baserrria ere gauz tristea da
ume txikirik ez bada.

UZTAPIDE II Munduak hola joan behar du,
noski, betire aurrera,
Hargatik joan beharra dute
gora, ta gu berriz behera.

ZUBIGOENA *baserria* 1995

N. ZENDOIA Urtea joan da urtea etorri
Santa eskean gu bapo,
gure aitonen ohitura zaharrak
maitatzen ditugulako.

OLALDE Santa eskean txukun antzean
egin nahi ditugu lanak.
Bien bitarte jakin nahi degu:
ondo al zerate danak?

N. ZENDOIA Aurrean dauden mutiko hauek
hori da edertasuna!
Etxe honetan ikusten det nik
geroko etorkizuna.

- OLALDE Ondo egin dezu etxeko haurrak
hemen aipatzen hasita.
Ni goitikan hasiko naiz orain
aipatuaz Margarita.
- N. ZENDOIA Neroni ere akordatu naiz
ate horren maratilan;
irudi hori ez da ikusten
telebistako pantailan.
- OLALDE Zahartu ere ez da egiten
urteak pasatuz aixe.
Oraintxe ere andre jatorra
dago beti bezelaxe.
- N. ZENDOIA Barkatu baina, amona maite,
egin nahi dizut galdera:
Limosnarekin ekarri al dezu
mantaltxo hortan kartera?
- OLALDE Etxe honetan portatzen dira
euskaldun jatorren eran
Kartera eta postrea ere
lasai, beti ohi dan eran.
- N. ZENDOIA Hirugarrengo aldia det nik
toki honetan biltzia;
eta gainera atsegina da
era hontan ibiltzia.
- OLALDE Ari gerala, ari gerala
noizbait beharko da buka,
ikusten danez etxekoandreak
karga eskutan badauka.

N. ZENDOIA Limosnagatik esker beroak
eman behar zaizkiela.
Jan zazute orain pasteltxo bana
ta on egin deizutela

ZUBIGOENA *baserria* 1997

N.ZENDOIA Lehendabiziko pausoarekin
iritsi ate ondora.
Eguzki epel-epela da ta
irten zaitezte kanpora.

OLALDE Eguzkiak'e berotutzeko
oraintxe dauka ordua.
Margarita ere nun ote dago,
barrura ote da sartua?

N. ZENDOIA Nere bertsoa ezjakin antza
ote leike iruditu?
Ta nere lagun Olalde berriz
danak ezagutzen ditu.

OLALDE Dudarik gabe zu etzerade
leku honetan jakina.
Margarita da etxeko ama
ta Emerita erregina.

N. ZENDOIA Disimuluan erantzun gabe
nik hemen ez det lagako
Loreari're Margarita hori
deitu izan zaiolako.

OLALDE Margarita izeneko lorak
ezagutuak guk lehendik.
Emakume bikaina zan lehen da
halaxe dago oraindik.

N. ZENDOIA Bandejak eta botilak ere
ikusten ditut beteta.
Trago txiki bat hartu dezagun
aukera jarria dute-ta.

OLALDE Ez da zalantzik, trago txiki bat
behar bada degu egingo,
betea bada ere luzaro
hemen ez baidu iraungo.

ZUBIGOENA baserria 2000

OLALDE Santa Ageda bezpera da gaur
eta etorri geranez,
kopla batzuek kanta ditzagun
arratsaldeon esanez.

N. ZENDOIA Santa eskea hilaren lauan
da urteero bezela.
Giro honekin esan diteke
udaberrian gaudela.

OLALDE Eguzki epela, haize epela,
ezin aspertu esaten;
ai, Zubigoena, jakin nahi degu
zer moduz bizi zeraten...

- N. ZENDOIA Neronek hasi behar det koplatzen
amonatxo Margarita.
Lehengo urtean ote zinan zu
aurtengo bezain polita?
- OLALDE Lehenago ere holakoxea,
ta orain ere señora.
Ikusten danez horri etzaio
batere joaten denbora.
- N. ZENDOIA Hara amona, lore batzuek
bota nahiean nagola;
iruditzen zait permanentea
egin berria dezula.
- OLALDE Berez ederra ta preparauta
berriz gehiago balio.
Gu gentozela ta horregatik
egingo zuen propio.
- N. ZENDOIA Batzuk bizitzan edertzen dira
berez ziranak jaiotzez.
Luzaro hola azaldu zaitez,
hau opa dizut bihotzez.

ZUBIGOENA baserria 2011

- M. TELLERIA Santa eskean hastera goaz
oso borondate finez,
ikuillun dagon txakur txikiak
denak duoa eginez.

- G. LOPETEGI Bazkaltzen bazan nahikua ardo
eta nahikua sagardo,
muturrak bapo berotu eta
kantatzeko bada gogo.
- M. TELLERIA Nere lagunak bazkaldu dula
eta jo digu erronka;
neretzat oindik egun ona da
bazkaldu gabe nago-ta.
- G. LOPETEGI Onena degu etxeko hauei
orain koplari hastea;
hemen nagusi Joxe daukagu,
Emerita emaztea.
- M. TELLERIA Nagusi jauna ez dago urrun,
etxekoandreai kantatu,
bazkaririkan ez det eskatu
eta etzaitez lotsatu.
- G. LOPETEGI Zure atzean bi mutilzahar da,
arraio ta demonio!,
kalboak Xipri dauka izena
ta besteak Antonio.
- M. TELLERIA Disimuluan nere atzera
Antonio eta Xipri,
ondo bazkaldu, siesta egin da
etzaudete oso gaizki.
- G. LOPETEGI Honek taberna ipini ohi du
basarriko lanan truke,
neskazaharren bat engainatzea
askozaz'e hobe luke.

- M. TELLERIA Emakumeak engainatzeko
jarri ohi dira begira,
mutil ederra, nahiko dirua
hobe etortzen badira.
- G. LOPETEGI Oso gustora ai gera baina
hala, bukatu dezagun,
mahaia guretzat preparau dute
eta estima ditzagun.
- M. TELLERIA Esan didate: Goazen hara;
gainera: Hortxe jarri ai.
Kopla kantatzen ez gera txarrak
kafea hartzen ere bai.



Uztapide II

TXAPERI (Txapei) baserria 1994

- OLALDE Zubigoena agurtu degu,
orain Txapeineko txanda.
Hemen saiua hasi nahi degu
arratsaldeon emanda.
- UZTAPIDE II Esango degu hor nolatan gaur
guk degun borondatea.
Beste gauzarik ez genuke nahi
danak ondo izatea.
- OLALDE Goitikan behera hasi ezker
galdetu nahi nuke hauxe:
Hala espero, ondo al dago
etxeko aitona Joxe?
- UZTAPIDE II Hartu nahi genun gaurkoan ere
hitz egiteko lain asti.
Iruditzen zait ondo dagola
bere umore ta guzti.
- OLALDE Esan dutenez larogei eta
zortzi urte bihar gizonak.
Aurretik esan nahi genioke
bihotzetik zorionak.
- UZTAPIDE Ez da ajolik nahiz ta munduan
urteak asko ugaldtu.
Bizi zeraten artean behintzat
alaitasunik ez galdu.

OLALDE Joan beharra aldapan behera
nahiz ondo zuen gerizan.
Milaka esker limosnagatik,
agur eta ondo izan.

TXAPERI baserria 1995

N. ZENDOIA Heldu orduko ezagutu det
hemengo borondatea.
Hainbeste jende gentozela ta
zabal-zabalik atea.

OLALDE Etxe honetan ez da kuidorik,
ez da sartuko lapurrik.
Ikusten danez santa eskaleak
ez die ematen bildurrik.

N. ZENDOIA Nere eskutan utzia dute
hemen galdera sakona:
Esan didate galdetutzeko
zer moduz dagon aitona.

OLALDE Joxe du berak izena eta
sufrituko zun hamaika.
Urteak ere biharko egunez
larogei eta hamaika.

N. ZENDOIA Ene aitona, pasako zenun
makinatxo bat hozbero.
Ehunera ere irits zaitez
behin horretara ezker.

OLALDE Beti presentzi txukunarekin
agertzen da Agustina.
Dohain guztiak dauzka honetxek,
degu emakume fina.

TXAPERI baserria 2001

N. ZENDOIA Saio polit bat egin asmotan
badegu borondatea,
izanez ere zabal-zabalik
jarri digute atea.

O.ALBERDI Zuri're zerbait esateko hau
nahiko une aproposa;
ixil-ixillik ta umil-umil
etxe hontako larrosa.

OLALDE Lore politak bota ezkerro
igual jarriko da gorri.
Agustina lehen urtean moduz
gaur ere zaigu etorri.

N. ZENDOIA Gu ikustera etorri dela
zuk eman dezu enkargu.
Azaldu bakarrik ez, limosna
ederra ere ematen du.

O. ALBERDI Holakuak ikusteak neri
ekartzen dit inbidia.
Ez dakit hau zer arraio degun,
etxea ala jauregia.

- OLALDE Obra batzuek egin ondoren
daukate etxe polita.
Ikuillu eta sabai zirenak
norberarentzat jarrita.
- N. ZENDOIA Teilatu garbi gorria eta
hormak margotuak txuriz,
makinatxo bat biziko dira
kaiola honen inbiriz.
- O. ALBERDI Leiho atzetik hor ikusten det
neska ta mutil begira.
Nunbait gu ikusita berauek
lotsatu egiten dira.
- OLALDE Maria Luisa agurtzeko ere
artu nahi nuke tarte.
Etzaitut ondo ikusten eta,
mesedez, hurbil zaitea.

TXAPERI baserria 2007

- UZTAPIDE II Badakizute etxe haundi hau
bizileku bat dutela.
Egunon batez agurtu nahi det
gaurkoan Txapei hotela.
- G. LOPETEGI Hotelan gisan hemen badago
dotorezi ta lujua.
Eta gainera hemen bizi da
famili majo askua.

- UZTAPIDE II Seme-alabak beste hainbeste
suhi edota errain.
Baina ama on hau ez balute
famili danak zer egin?
- G. LOPETEGI Erreza al da famili baten
ama ona izatea?
Horrez gainera oraindik dago
polita eta gaztea.
- UZTAPIDE II Badakizute ez dagoela
hori norbere eskuan;
eta holaxe segi dezala
beste urte on askuan.
- G. LOPETEGI Ta ikusten da umeak zaintzen
ta pake eran beti're;
nahiz ta urteak piskat pasatu
segitutzen du langile.
- UZTAPIDE II Batek egiten du lana sarri,
ikusitzen du bestiak.
Holako amona daukaten arte
salbo dirade gaztiak.
- G. LOPETEGI Garai batean hemen norbaitek
lana egingo zun debalde,
ta orain Txapeiko etorkizuna
ikusitzen degu bale.
- UZTAPIDE II Ikusitzen da nola dagoen
iritsi geran atean.
Armoni ona daukate nunbait
danak famili batean.

G. LOPETEGI Hemen gazteak ikusten dira
goizian goizo jaikita.
Iruditzen zait hauek daudela
koplak gustatzen hasita.

UZTAPIDE II Neuk ere kaso egin nahi diot
aizu, esandako horri.
Lekua bada, ta nahi badezu
gure taldera etorri.

TXAPERI baserria 2008

G. LOPETEGI Santa eskaleak atera gera
ate-onduek alaituz
Txapeian ere hasi gaitzen
arratsaldeon opatuz.

O. ALBERDI Arratsaldeon, koplarik kopla
gabiltz aterikan ate.
Euria egin ezkerre ere
aterpe ona daukate.

G. LOPETEGI Euriarekin ere koplatan
hartutzen degu nahiago
Urterik urte atai aldea
ederragoa baitago.

O. ALBERDI Baserritarren bizitza ere
nola ez dan berriketa,
gose puska bat baldin bada ere
arkumerik ez da falta

- G. LOPETEGI Etxe honetan etxekoandreaki
orain nahi diot kantatu;
Agustina ere ate ondora
egin zaigu aurreratu.
- O. ALBERDI Gu hemen izan ginala ere
nahiz ta urtebete juan,
aurten guapago ikusten det nik,
hara bera ate onduan.
- G. LOPETEGI Atai honetan ezingo gera
hasi gezurra esaka.
Ama ta alaba ikusi eta
ez da edertasunik falta.
- O. ALBERDI Bi mutilkoskor azaldu dira
atearen ondotikan.
Ikusten danez Txapein ez dago
etorkizunan faltikan.
- G. LOPETEGI Itxura danez omen gabiltza
denborai eutsi ezinda
Eskerrik asko limosnagatik,
baguaz agur eginda.

LOPERENA baserria 1992

- UZTAPIDE II Aspalditako usadioa
ez da oraingo berria;
lehendabiziko hartu zazute
gure ongi etorria
- OLALDE Gizon bat ere agertu zaigu,
hauxe da nere juzgua:
Tokatutzen dan graduarekin
etxeko maiorazkua.
- UZTAPIDE II Nahiz ta batzutan ibili behar
bateko eta besteko,
norbaitek lana ein beharko du
baserriari eusteko
- OLALDE Ai, baserriko bizimodua
ezagutzen degu, noski:
Inoiz'e ondo ez da egon da,
oraintxe're oso gaizki.
- UZTAPIDE II Zail izaten da lan gogorrari
egin gabea eutsitzen;
gaizkitxo egon izanagatik
jakin behar da bizitzen.
- OLALDE Hemengo guraso zaharrei ere
egin deiegun arreta.
Ondo ote da hemengo degun
etxeko ama Joxepa?

UZTAPIDE II Norbaitek egin behar izaten du
familiaren itzala;
gaur'e lanian seguru asko
sarri ohi duan bezala.

OLALDE Egon liteke, baina joan behar
orain abia batian.
Milaka esker, Eusebio maite;
agur ikusi artian.

LOPERENA baserria 1993

UZTAPIDE II Etsita igual egongo ziran
berandu xamar zala-ta;
baina aurten'e hementxe gatoz
gu alper pila galanta.

OLALDE Esan dezunez alper pila bat
aurkitutzen gera hemen.
Ez dira hortaz harrituko, ba,
nere ustez, Manuel, Lopenen.

UZTAPIDE II Nola beregain egondu ohi dan
sarri familiko zama,
lehendabiziko jakin nahi nuke
zer moduz dabilen ama.

OLALDE Urte batzuek izango ditu,
izena dauka Joxepa.
Era berean urte batzuek
danok dizkiogu opa.

UZTAPIDE II Oraindik gogor ikusitzen da
hainbat famili hazita;
horregatikan egin du pozik
gaur honuntzako bisita.

OLALDE Poz ematen du ate-ondoan
mutil on bat ikustea;
ez dakit baina hau izango da
bertako seme gaztea.

LOPERENA baserria 1995

N. ZENDOIA Beste lekutan bezelaxe gaur
iritsi gera hemen'e,
baserri-usai ederrarekin
aurkitu degu Lopene.

OLALDE Baserri-usaia dago hemen
ta gainera oso lodi;
etorkizunez dijoan etxe
onan seinale da hori.

N. ZENDOIA Lehen esana det bistan daudela
uztarri on askorikan.
Baina ez dakit izango duten
idi itxurazkorikan.

OLALDE Proba kontuan etxe honetan
betidanik dira saia.
Idiak oso onak dauzkate
eta hobe itzaia.

- N. ZENDOIA Limosnarekin nagusi jauna
agertu bedi mesedez;
ikusiko da berehalaxe
dirurik dagon ala ez.
- OLALDE Hara, Nikolas, etzazu esan
hemen horrelako hitzik,
hori ez baita diru kontua,
borondateana baizik.
- N. ZENDOIA Hara, Olalde, aldamenetik
etzaitea hasi parrez.
Diru pilorik ez dan tokitik
zabaltzen ez baita errez.
- OLALDE Dudarik gabe hemen bakoitzak
artu behar du tamaina;
nahiz asko ez izan, izan ohi dute
gu eskertutzeko haina.

LOPERENA baserria 2000

- N. ZENDOIA Bost edo sei bat urte badira
ate honetan nagona,
oso pozikan ezagutuko
nuke hemengo amona
- OLALDE Seguru asko agertutzeko
degu tatxarik gabea.
Baina jaiotzez ere igual da
lotsa haundiko andrea.

- N. ZENDOIA Lehen esan det ezagutzeko
zaletasunez nago ta,
lotsarik gabe zatoz, amona,
guk etzaitugu joko-ta.
- OLALDE Dudarik gabe ama ez baina
azalduko da semea;
zalantzik gabe horixe dute
etxeko habe firmea.
- N. ZENDOIA Begira, Jexux, gogorra egin
dezu hori asmatzea;
zutaberikan gabe ezin da
egin holako etxea.
- OLALDE Etxe on batek euki ditzake
zimendu edo aldaba,
baina berak'e ez du balio
barruan ezer ez bada.

LOPERENA baserria 2001

- OLALDE Etxeko berri jakitea ere
izan ohi degu onena.
Nobedaderik izan ote da
lehengo urtetik aurtena?
- N. ZENDOIA Aldatu dira langintza asko,
aldatu dira ideiak;
Internet-etik gobernatze'itu
dauzkan probako idiak.

- O. ALBERDI Gizon prestu askoa degu hau
ta guk ez jo adarrikan;
idiak gobernatzeko ez du
Internet-en beharrikan.
- OLALDE Moda berriak proba kontuan
ikusi gabe behin ere,
aurtengo hontan azaldu dira
lauko uztarrian ere.
- N. ZENDOIA Lopene hontan izandu dira
hemengo idi onenak;
honek birekin hautsitzen ditu
lauko uztarrian daudenak.
- O. ALBERDI Onek Internet-a aipatu du
ta zerbait esan behar nik:
aizu, Zendoia, ez nun pentsatzen
hain modernoa zinanik.

LOPERENA baserria 2005

- O. ALBERDI Kuadrilatxoa juntatu gera,
hamabost bat lagun edo;
askoz hobeto kantatu ohi da
atera irten ezker.
- OLALDE Arrazoi hori entzutea ere
behar bada ez genun espero;
lehenago atera ohi ziran batzuk
bertsoz eraso ta gero.

- O. ALBERDI Hemengo gizon hori egongo
zaigu, agian, siestan,
atzo nolatan ibiliko zan
Abadiñon San Blasetan.
- OLALDE Denborarikan gure Eusebiok
ezin pasa alperrikan,
noizean behin jai egin behar da
ta ez lana bakarrikan.
- O. ALBERDI Lana ugari egite hori
ez ote da ari galtzen,
sarritan nahiko errexa baita
lanari tamaina hartzen.
- OLALDE Bukatu arte hemen inortxo
ez gera jardun lanian,
eta norberak nabarmentzen du
gehiago ezin danian.

LOPERENA baserria 2007

- UZTAPIDE II Talde haundi bat atera gera
bateko edo besteko;
egun on bana Lopenetarrei
lehendabizitik hasteko.
- G. LOPETEGI Atari hontan kantatutziak
ematen digu gustua,
eta atera irten dedila
etxeko maiorazkua.

- UZTAPIDE II Mundualdiak zerbaitegatik
dio hainbat urte opa;
lehendabiziko agurtutzea
nahi nukena da Joxepa.
- G. LOPETEGI Famili haundia hazi du eta
umorez dago beti're.
Ta horregatik urte askoan
segi dezala langile.
- UZTAPIDE II Danak dakigu zein ederra dan
ama on baten itzala.
Urte askuan aurrera ere
holaxe segi dezala.
- G. LOPETEGI Ez du izango inoren faltik,
izango da lagunduta,
egia esan beti're bueltan
famili ona badu-ta.

LOPERENA baserria 2011

- G. LOPETEGI Gu gentozela ikusi eta,
hara, jarri da serio,
eta alegre hartzeagatik
arratsaldeon, Eusebio.
- M. TELLERIA Usadioa ez galtzea da
guk ekarri degun plana,
hori helburu hartuta hau da
kuadrila bildu gerana.

- G. LOPETEGI Arrazoi dezu, kuadrilatxo bat
orain baserri aurrean,
jubilatuak eta alperrak
danak taldetxo batean.
- M. TELLERIA Beste gauza bat akordatu zait
gazte honi entzutean,
lanean hasi etzeratenak
ere badaude tartean.
- G. LOPETEGI Gure aurrean daukagun honi
egin nahi diot juzgua:
tokatzen zaion graduarekin
etxeko maiorazgua.
- M. TELLERIA Lopenetarrek pasea dute
ia Bizkaia osua,
idi kontua aipatu ezker
oso etxe famosua.
- G. LOPETEGI Idi kontuan hauek dabilta
bateko eta besteko,
norbaitek lana egin behar du
fama horri're eusteko.
- M. TELLERIA Lopenetarrek idi kontuan
fama dadukate salbu,
onikan bada bordan gorde ta
txarra bada azkar saldu.
- G. LOPETEGI Ta honen anai degun Luisek
ganau tratuan dihardu:
aldan merkeen erosten ditu
ta gero garesti saldu.

- M. TELLERIA Eusebiori eman diozu
Luisen esplikazioa,
zu lasai egon, honek emana
izango du lezioa.
- G. LOPETEGI Hauek lezio ona daukate
bai hemengo ta bai hango;
parre txiki bat atera zaio,
ez da gezurra izango.
- M. TELLERIA Eskerrik asko Eusebiori,
segi holaxe patxadan,
orain bagoaz, gainontzekoai
gure gorantziak eman.



Uztapide II

ZELAIKOA baserria 1992

UZTAPIDE II Batzuk kantuan, beste batzuek
berriro soinua juaz,
arratsaldeon denoi esanez
kantari hastera guaz.

OLALDE Zubigoena, Txapei, Lopene
ta beherago Zelaia.
Kopla batzuek kantatutzeko
hau ataialde alaia!

UZTAPIDE II Urutikoak ez gera eta
lehenore sarri izana;
ataialdea ikusitzean
badaukagu zer esana.

OLALDE Etorri dira ate ondora
eta hauxe entzun beza:
Ikusten danez ondo dauzkagu
Joxe Mari ta Teresa.

UZTAPIDE II Mundu honetan bizi beharrak
bere lanak'e baditu.
Aurrera ere ta luzaruan
zuek holaxe segitu.

OLALDE Etxe hontako senideantzat
baditugu hiru-lau hitz:
Aspaldian ez ditut ikusi,
semeak ondo al dabiltz?

UZTAPIDE II Joan beharra egoten baita
hala behartzen danean.
Seguru asko beti bezela
izango dira lanean.

OLALDE Semeengatik galdetu eta
oraintxe degu aukera;
atzean etzaitezela egon,
etorri zaitetz aurrera.

UZTAPIDE II Lehenago ere eginak gera
makina bat saio jator;
ta orain ere itsasotikan
bueltan Luxiano dator.

OLALDE Entzun dedanez itsasotikan
buelta ren bat du egina.
Horregatikan botako zuan
itxurantzeko propina.

UZTAPIDE II Beti bezela oraintxe ere
guk diruarekin amets.
Bota ezkero ez da ajola
hik harrapatu ala ez.

ZELAIKOA baserria 1994

OLALDE Ikusten danez jendea ugaltzen
ariko zaigu Akuan;
ezagututzen ez ditudanak
ikusten ditut gaurkuan.

- Uztapide II Hala komeni danean nunbait
badaki nola konpondu.
Gazte taldea juntatu gera
soltero eta ezkondu.
- OLALDE Baserrin neskak falta dirala
ez da izango egia.
Batzutan inor ez dago eta
hemen gaur dozena erdia.
- Uztapide II Baserrian'e erreza baita
bai etorri ta bai juten;
zertan dabilta hauek, lanean
ala gaur guri entzuten?
- OLALDE Baserri-martxai aipa bezela
jarrai nahi diot haria,
baten bat hemen ez da izango
Luxianon andregaia?
- Uztapide II Nahiz ta ez dan edozer gauza
libre eitea izatez,
aukera gaurkoz daukagu eta
zu ere saiatsu zaitez,
- OLALDE Garai batean hala izaten zan,
gaur ere egun haundia.
Ikusten danez gaurkoz Zelaian
hil omen dute txerria.
- Uztapide II Odola txerriari atera
beharko nunbait tan-tan-tan
eta hauek hor heldutzen zeudek
bakoitzak hanka banatan.

OLALDE Txerria hiltzen degun garaian
ohi degu hainbat ahalegin;
zeinek jana izango da ta
odolki ederrak egin.

ZELAIKOA baserria 1997

N. ZENDOIA Ohitura zaharrak gordetzarren
gaur Zestoako taldea,
hementxe gatoz limosna eske
pasatuz arratsaldea.

OLALDE Oso ohitura zaharra omen da
batzuk hala diotenez,
kopla kantari etorri gera
Santa Agedaren omenez.

N. ZENDOIA Ama-semeak edo ez dakit
agertu dira atean,
eta dirua ekarri dute
eskua bete-betea.

OLALDE Borondatea badala hemen
ez da esan beharrikan;
eta Teresak ez du ekarri
bate itxura txarrikan.

N. ZENDOIA Luxianok du irriparre bat
jatorra eta apala;
txapela ere jantzitzen daki
euskaldun zaharrak bezala.

OLALDE Oso aurpegi sana dauka
ta begirune preskua.
Aizu, Teresa, hau al dezute
etxeko maiorazkua?

N. ZENDOIA Luxianori oraindik diot
beste bertso baten zorra.
Igaztik ere gizendu zaio
pixka-pixa bat gilborra.

OLALDE Hain ondo gaude, pena hartu leike
bat hemendik joatean.
Eskerrik asko, ikus gaitean
berriz hurrengo urtean.

ZELAIKOA baserria 2000

N. ZENDOIA Urteeroko eskale batzuk
atera gerade aurten.
Danon artean galdetzen degu
zer moduz bizi zeraten?

OLALDE Ia urtero aspaldi hontan
santa eskalien bixita,
ohitura zaharrai errespetuan
nahi genioke erutsi-ta.

N. ZENDOIA Santa Agedan bizitzarikan
ia ez dakigu bate;
seguru nago, hutsegitea
barkatuko diguzute.

- OLALDE Gauz batzuk ditut entzunak eta
ez dira izango gezurrak.
Garbitasunai eusteagatik
kendu zizkaten bularrak.
- N. ZENDOIA Kopla batzukin amonari're
egin beharko bixita.
Zalantzan nago nolatan deitu,
Teresa ala Teresita.
- OLALDE Aspaldin ez det bera ikusi
eta badaukat gogorik.
Hori're zahartu egin da nunbait,
ez dauka beste failorik.
- N. ZENDOIA Nere laguna deskuiduan
hemen zaigu eroria.
Zahartzea ez da failoa, lagun,
baizikan kategoria.
- OLALDE Kategoria omen dela ta
hitz egin dezu zuk alai;
hala izango da, baina titulu
hori ez du inork hartu nahi.

ZELAIKOA baserria 2003

- O. ALBERDI Jende ugari etorri gera
orain gu arrapaladan.
Lana ugari dago Zelaian,
eta langileak faltan.

- OLALDE Teilaturikan ez dan lekuan
gaur bat egin leike busti;
etxe ederra ai dira egiten
bere aterpe ta guzti.
- O. ALBERDI Eskailera eder eta luzeak,
nik hor bota det begia;
ta galdetzen det, ea hau zer dan:
baserri ala jauregia?
- OLALDE Dirua bada hobe egiteko
zertako egon bildurrak?
Mezkla ederra egiten dute
harriak eta egurrak.
- O. ALBERDI Baserriaren usadioa
ere nola leiken galdu...
Galderatxo bat: Baserri honek
ikuillurikan ez al du?
- OLALDE Etxe dotore askua da hau,
ez da gero berriketa,
lehen ikuilluak zeuden tokian
orain gelak daude-eta.

ZELAIKOA baserria 2011

- M. TELLERIA Gora joanda beruntza berriz
ni egondu naiz begira,
etxe honetan bizi diranak
aberatsak ote dira?

- G. LOPETEGI Ta erantzuna emango dizut
lehengo arrazoian neurrira:
etxe honetan bizi diranak
enpresarioak dira.
- M. TELLERIA Behin behar eta gaurkoan ere
ni geratu naiz dotore;
behin ikusita antzeman ere
bai deskuidorikan gabe.
- G. LOPETEGI Etxe gutxitan aurki litezke
ai, horrenbeste gizon on,
eskuak sartu poltsikuan da
zuri begira da Simon.
- M. TELLERIA Bi eskuek sartu patrikan eta
patxaran dago gizona.
Simon hau al da Jesukristori
laguntza eman ziona?
- G. LOPETEGI Arrazoi dezu, ez da ibiltzen
erlijiotik ertenda,
Jesukristori eskua eman
ta pakean ibiltzen da.
- M. TELLERIA Ez dakit beti ibiltze ote dan
oso bide zuzenean,
Jesukristonak eite omen ditu
ehizera joaten denean.
- G. LOPETEGI Basaurdetan soziedadea
hartu ohi dute serio.
Presidente osaba dago,
iloba sekretario.

- M. TELLERIA Ehiztari ta tranpa kontuak
ez dabilta urrutian,
kortzo ederrak jaten dituzte
basaurdean aitzakian.
- G. LOPETEGI Ta ilobaren neska asuntua,
Telleria, entenditu;
amistadea nik egin eta
horrek zulatutzen¹ ditu.
- M. TELLERIA Beraz, makila bustita hasi
nahi al zenuke kolpeta?
Aizu gaztea, errespetoa,
gehiago're bagaude ta.
- G. LOPETEGI Erreparuan hor egoten da
susa zein ote dagon zai,
batzuk bueltatu eiten zaizkio
eta beste batzuk ernai.
- M. TELLERIA Joakin nausia falta omen da
eta hau da ixkanbila!
Edurne, ordena pixkat jartzeko
har zazu nere makila.

¹ Oheratutzen ditu

GOIKOETXEA baserria 1994

- OLALDE Jakin nahiean gera etorri,
baina hara gure planak;
jakin nahi degu ondo al diran
etxe honetako danak.
- UZTAPIDE II Auzuan ere galdetu degu
etorri baino lehenago,
ikusten danez gaurkoan ere
itxura txarrik ez dago.
- OLALDE Zaharrenetikan hasi beharko
gaurko honetan, jakina.
Ikusten danez ondo dabiltza
Tiburtzio ta Joakina.
- UZTAPIDE II Eta jakinik etxe hontako
hoiek ondo dabiltzala,
gurasoen gain egoten baita
familiarren itzala.
- OLALDE Eta orain guraso gazteengan
kopla honetan nahi det jun.
Joxe Ramon hemen ikusten det,
nun ote dago Izaskun?
- UZTAPIDE II Betire ezin da nunbait egon
urrutirago begira.
Seguru asko gaur'e alkarren
hurtean izango dira.

OLALDE Andrea ere badu Estanisek,
ta nola gauden aukeran,
hemen ez da inoiz azaltzen eta
ia aurten azaltzen dan.

UZTAPIDE II Horretan izan zindezke zu gaur
nik baino buru hobeia.
Nere ustetan ez da izango
behin'e azaldu gabea.

GOIKOETXEA baserria 1996

N. ZENDOIA Etxe hontako aitona jaunak
ireki digu atea,
eta gainera gustatzen zaio
honi eskale jendea.

OLALDE Ia bertsoan aritzen geran
hemen jator eta luze.
Agur bikain bat eman nahi diot
Tiburtzio jaun honixe.

N. ZENDOIA. Iduritzen zait izango dala
hauxe aiton tajuzkua;
txapela ere buruan eta
euskaldun itxurazkua.

OLALDE Lanean hemen pasa ondoren
hainbat aldapa ta pendiz,
gaur jai degunez etxean lasai
hementxe dago Estanis.

- N. ZENDOIA Aitona honi behar bezela
beharko zaio kunplitu,
edo bestela akuiluakin
danok bialduko gaitu.
- OLALDE Nere ustetan erreparuan
horrek behar luke jarriko
aurten makillaz bialtzen bagaitu
gehio ez gera etorriko.
- N. ZENDOIA Gu bezelako taldearekin
nola argitu begirik?
Baldin etortzen ez bagera ere
ez du, ez, oker haundirik.
- OLALDE Etxe honetan bertsoarentzat
dute arrakasta latza.
Atzo Estanis ikusi nuen
ta badaukat konfiantza.
- N. ZENDOIA Bertsozaleak ez diranikan
hemen ez nuke esango.
Baina gurekin konformatzean
zailak ez dira izango.
- OLALDE Geure jardunai guk zertarako
jarri hainbeste konbite?
Bertso-munduan zenbat geraden
hauek ondo badakite.
- N. ZENDOIA Aitona honen borondateak
neri jarri dit azkura.
Gutxieneko mila bat duro
bota dizkigu zakura.

OLALDE Asko eman badu, eskerrik asko,
horren kontra ez det hitzik.
Kantidatea ez degu hainbat,
nola ematen dan baizik.

GOIKOETXEA baserria 2006

OLALDE Gaur oso garaiz hasi gera gu
nahi badezute jakin;
ateri baina hementxe gabiltz
eguraldi beltz-beltzakin.

O. ALBERDI Gure taldeak urte askuan
horrelaxe du desio.
Osasunetik ondo ikusten det
aurten ere Tiburtzio.

OLALDE Orain artean beti tentezka,
aurtengo hontan jarrita;
nekaturikan, urte asko ditu,
gauza normala hori da.

O. ALBERDI Neska txiki bat bere onduan
bere alaban opari.
Berak magalen hartu ta kontu
asko konta bilobari.

OLALDE Polita da, bai, baina zeinena
zan oraindikan ez nekin.
Gauza guztiakin fijatzen da
bere begi bixiakin.

O. ALBERDI Beste atea hementxe dago,
aizu, bertatik bertara;
ta gaur gurekin hemen dabiltza
Izaskunen bi alaba.

OLALDE Nolako errez dantzatzetutuzten
pandero eta soinuak!
Hoietxek dira alajak, hoiek,
gainera polit askuak.

O. ALBERDI Soinu, pandero ta koplá, doinu
aritu dira jo ta ke.
Eskerrik asko limosnagatik,
agur ta ikusi arte.

GOIKOETXEA baserria 2007

G. LOPETEGI Itxura osoz kanta beharko da
geure etxe atarian,
ta horregatik goazen koplari
egun on bat esatian.

UZTAPIDE II Halaxe ere ez da egingo
merezi duen omena;
zeure aitonai kanta zaiozu
dezun koplari onena.

G. LOPETEGI Silan jarrita hor ikusten da
dagona ongi ta hizlari,
ta kontatzen du gazte-garaian
irten zuela koplari.

- UZTAPIDE II Horrek egin du koplari eta
horrek egin duen lana!
Nola ordaindu behar da orain
berak merezi duana?
- G. LOPETEGI Itxura denez honek badauka
lan asko eindako antza.
Berak ipini egin bait zuan
hor atzean dagon martxa.
- UZTAPIDE II Gogor jarraitu beharra dago
hemen bestean hitzari;
eta semeak heldu diote
berak jarri zun martxari.
- G. LOPETEGI Eta egia kanta beharko
dizugu, aittatta, hemen.
Esaten denez soldaduzka honek
pasatu zuen Ferrolen.
- UZTAPIDE II Neuk'e horixe aitortu arte
egin behar eginahala;
aspalditikan ohartu nintzan
erderaz'e bazekila.
- G. LOPETEGI Baina erderaz soldaduzkan ez,
ikasi zuan perian,
kasteilanuekin tratatutzen
al zan merkien neurrian.
- UZTAPIDE II Zuk diozunez, tratante txarra
behin ere etzan azaldu;
merke antxean erosten zuen,
ta gero garesti saldu.

G. LOPETEGI

Aurrean dagoen gizon horrek
parterik ez du tontotik.
Tratanteak edo saltzaileak
ez die joko adarrik.

UZTAPIDE II

Hemen egia aitortutzea
ez da izango pekatua,
ta zuri ere antzeman dizut
badezula ikutua.



Olalde

AKOARRETXEa** baserria** 1995

- N. ZENDOIA Nola ukatu genezake guk
aritutzean bertsotan?
Palaziuak ikusten dira
Akua bailara hontan.
- OLALDE Esan bezela alderdi onak
ikusten dira etxetik.
Bat hasi zan berritutzen eta
gero besteak atzetik.
- N ZENDOIA Etxe hontako Nikolasari
egin nahi diot bisita.
Ezagutuko zinduzket pozik
ni're Nikolas naiz-eta.
- OLALDE Nikolasa da hemen andrea
eta aita Antonio;
bertso entzutera etorri ohi da
hori gugana propio.
- N. ZENDOIA Oso gutxitan entzuten dira
Nikolasa ta Nikolas;
izen horiek jarritzerako
ibiltzen dira axolaz.
- OLALDE Gu alkarrekin gera hemen da
eginak gera hainbat saio.
Gaur Antonio ez da azaltzen,
zerbait pasatzen al zaio?

- N. ZENDOIA Etxekoandrea limosnarekin,
ia ematen dit lotsa!
Gure poltsero arraio hori,
azkar zabaldu zak poltsa.
- OLALDE Majo portatzen zerate eta
eskerrak milaka aldiz.
Datorren urtez, Jaunak nahi badu,
etorriko gera berriz.

AKOARRETXE**a** baserria 1996

- OLALDE Akoetxen bilatu degu
ataiko atea itxita.
Hementxe gatoz, hemen dezute
Santa eskalien bixita.
- N. ZENDOIA Ez dakit argituko ote degun
gaurko honetan begirik.
Ireki ez baligute ere
etzan pekatu haundirik.
- OLALDE Ataiko atea ireki eta
zer emakume airosa!
Holako baten kantatutzeak
beti ematen du poza.
- N. ZENDOIA Sekula ez da baztertu behar
politik eta gazterik,
nere lagunak nola ez dakin
enbustarian besterik.

- OLALDE Dudarik gabe gizonezkoak
andreen zale ezagun.
Gauza politak dauden lekuan
estimatzen jakin dezagun.
- N. ZENDOIA Ta gazte honek merezi luke
multatxo bat jarritzea.
Gizona utzi ohean eta
gugana etorritzea...
- OLALDE Zuk badakizu pasa ohi dala
ezkonberriaren moda.
Seguru asko senarrarekin
aspertuta egongo da.
- N. ZENDOIA Horixe bera gertatutzen da
ezkontzean ondorenez,
egia esan eliz-kontuak
tontakeriak diranez.
- OLALDE Etxeko zaharrak aipatutzea
hobeko degula uste;
jakin nahi nuke, Antonio ere
zer moduetan dezute?
- N. ZENDOIA Zaharrak azkena aitatutzea
hortantxe degu faltatu;
gauza bakarra geratzen zaigu,
barkaziua eskatu.
- OLALDE Zahartu ezkerro makaldutzea
degu guziok jakina.
Antoniori're gertatzen zaio
bizi nahi ta ezina.

N.ZENDOIA Zahar baten aurren kantatzea
guretzako zoriona.
Atentzioa jartzeagatik
eskerrik asko, aitona.

AKOARRETXEA baserria 2001

OLALDE Akoarretxera etorri eta
atea zabal-zabalik;
harrera hauxe ikusi eta
nolatan egon ixilik?

N. ZENDOIA Zestuatikan talde bat irten
gerade santa eskera;
lehengo urtean hemen ginan da
aurten ere hemen gera.

O. ALBERDI Lehen ez nintzan etorri eta
zu etzabiltza horren fin.
Zuek aurten hemen baitzerate
bertsolai bat gehiagokin.

OLALDE Hara zu, Oskar, lehen urtea
aurtengo hau da izango;
datorren urtez etorri gabe
zaudela ez dezu esango.

N. ZENDOIA Zuk diozu bai gehiagorekin
etorri gerala aurten,
baina sinistu bertsolaria
edozein ez da izaten.

- O. ALBERDI Zuk erantzuna bota didazu
nere ondotikan garaiz.
Bertsolai oindik ni ez naiz baina
erdi kontsideratzen naiz.
- OLALDE Orain andrea, lehen neskatxa,
hori ere gauz jakina;
esango dizut, Nikolas, zein dan
Antonioen erraina.
- N. ZENDOIA Nikolasa ta Nikolasi gaur
egina diote hitza.
Muxu txiki bat emango nion
gaztetxoago banintza.
- O. ALBERDI Gaztea naiz ta hemen badaukat
nik'e hainbat kategori;
muxu emango zenion baina
neuk egingo diot hori.

AKOARRETXE**a** baserria 2007

- UZTAPIDE II Usadioai eutsi nahi honek
badu nahikoa histori.
Lehenbiziko egun on bana
hemen zaudeten danori.
- G. LOPETEGI Joxe Luis ondo bizi ote dan
jakin nahi degu benetan;
baina galdera egiten det nik
ez ote dagon mezetan?

- UZTAPIDE II Hainbat urtean ezagutzen det
nola dan bere bizitza;
seguru nago beteko dula
gaur'e emandako hitza.
- G. LOPETEGI Etxekoandrea orain irten da
atarian dan atera;
eta hau ere langilea da,
ez nijua ukatzera.
- UZTAPIDE II Etxe batian sarri askotan
gutxi izaten da bakarra.
Seguru asko bere urrean
hor izango du senarra.
- G. LOPETEGI Luis Marik gazte-garaian ere
begia zuen azkarra;
etxe aldera ekarri zuen
emakumea ederra.
- UZTAPIDE II Bide gutxian juaten dira
gezurra eta kontua;
hor ikusten da gaztetan ere
etzala izan tontua.
- G. LOPETEGI Tontua etzan, eta gainera
hark egin zun saiakera,
ta horregatik behar bezelako
emakumea etxera.
- UZTAPIDE II Nola ibili sarri askotan
agindutzen du egunak;
eta, Garikoitz, seguru asko
izango'ituzu lagunak.

- G. LOPETEGI Aizu, Manuel, gauza horretan
esan behar dizut, bale!
Etxe honetan jolasten pasa
nitun hainbat arratsalde.
- UZTAPIDE II Berriro ere ibili zaite
nola jolas eta korri;
lehen ondo hartu baldin bazaitu
berriro ere etorri.
- G. LOPETEGI Esaten dute gaur'e eguna
ez zaigula juango labur.
Limosnagatik eskerrik asko,
ondo bizi eta agur.

AKOARRETXEA baserria 2011

- G. LOPETEGI Ai, Telleria, somatu zazu
hemengo borondatea,
hainbeste lagun etorri arren
zabal-zabalik atea.
- M. TELLERIA Eskuzabalak dirala hemen
ezin liteke ukatu,
danak eskera etorri eta
hala ere ondo hartu.
- G. LOPETEGI Atari gutxi aurkitzen dira
gaur egun gisa hontako,
errukirikan haundina dute
eskale xumeantzako.

- M. TELLERIA Hau da egizko ta ohiturazko
benetako santa eskea;
etorri orduko ate zabalik,
poz ematen du hastea.
- G. LOPETEGI Borondaterik onenarekin
zabalik zegon atea;
ea norbaite koplatzen degun,
honera irten zaitea.
- M. TELLERIA Nahiz eta batzuk gu ikusita
joko zituen izuak,
disfrazaturik etorri arren
ez gera peligrosuak.
- G. LOPETEGI Urteak ere atzo edo gaur
egingo zenitun pasa;
ahaztu aurretik gure partetik
zorionak, Nikolasa.
- M. TELLERIA Nik'e zorion Nikolasari
ta lotsagabe antxean,
galdetuko'iot ia bakarrik
ote dagoen etxean.
- G. LOPETEGI Aipatutako galdera horri
esplikauko dizut egiz,
gizona lanean ta osaba
siestan dago Joxe Luis.
- M. TELLERIA Beraz, berari koplatzen segi
osaba zaharrai utzita,
nahiz ta etxeko guztientzako
ohi degun gure bisita.

G. LOPETEGI

Zuk ba al dakizu Nikolasa
dela Errezilgo prenda?
Oindik begitu ta oso guapa
ta ondo kontserbatzen da.

M. TELLERIA

Errezildikan hona ezkondata
Zestu aldera bizitza,
hainbeste zelai etzun izango
Albizturra joan balitza.

G. LOPETEGI

Ta Nikolasak erakutsi du
baduala borondate...
Eskerrik asko guziagatik,
agur ta beste bat arte.



Pello, Oskar, Uztapide II eta Olalde

AKOABARRENA (Motza) baserria 1992

- OLALDE Eskean zale amorratuak,
hortarako zeinek bultza?
Umore pixkat ekartzearren
etorri gera honuntza.
- UZTAPIDE II Beste gauzarik ez degu eta
aitzakia hauxe eskuan:
Bisitatxo bat egin nahi genun
bizi zeraten lekuan.
- OLALDE Etxekoandrea azaldu zaigu,
berak ditu hemengo planak.
Jakin nahi nuke ondo al diran
etxe honetako danak.
- UZTAPIDE II Bizi geraden artean behar da
ahal degun bezela goza,
ondo dirala ikuste horrek
ematen baitigu poza.
- OLALDE Dudarik gabe mundu honetan
badegu aurrerapena,
nobedaderik izan ote da
lehengo urtetik aurtena?
- UZTAPIDE II Hemen izan dan nobedadea,
aizu, ikusi da laste:
Urte bat gehio eduki arren
lehen zan bezain gazte.

OLALDE Jaio ezkerro hemen gabiltza,
laguna, munduan zehar;
eta iraun nahi duenak
horrelaxe segi behar.

UZTAPIDE II Bat jaiotzen da mundura eta
beti ezin izan gaztea;
baina zuk gutxi uste al dezu,
aizu, lehengoai eustea?

AKOABARRENA (Motza) baserria 2000

N. ZENDOIA Arratsaldeon, aurkitu degu
berriz Akoabarrena,
bailara hontan ikusten degun
aterikan zaharrena.

OLALDE Atea ikusi ta kantatzea
neuk'e pentsatu det, horra.
Urte batzuek izango ditu,
baina oraindik gogorra.

N. ZENDOIA Haritza edo gaztaina dauka
jarrita guztiz egoki.
Halare badu berrogeiren bat
gurutzentzat hainbat toki.

OLALDE Esan bezela bistan badauka
Jesus eta gurutzea;
seinalea etxe haxe ere
fedea haundiko etxea.

- N. ZENDOIA Fedea duen etxea dala
ateai nabarmen zaio;
ta gaurko mundu bihurri hontan
ez dute gutxi balio.
- OLALDE Atea eta fede kontuak
hemen aipatzen arita,
lehengo urtean etzan azaldu
baina aurten bai Joanita.
- N. ZENDOIA Txakur hotsa're entzuten det nik,
ta hauxe nahi nuke galda:
jipi ta jaupa hasi da eta
fede haundiduna al da?
- OLALDE Hori ere hor dagon seinale,
eta nahi gaitu agurtu;
eta guk, berriz, behar genuke
era berean eskertu.
- N. ZENDOIA Hemen egina diogu lanai,
fededunaren senari;
behintzat agurra egiten die
eskean datozenari.
- OLALDE Gu ez gerade normalak eta
hori txakurra izaki;
bere hizkuntzan eiten du horrek,
besterikan ez bai daki.
- N. ZENDOIA Eskerrik asko, ene Joanita,
limosnaren izenian.
Berriro ere atea ireki
eskera gatozenian.

AKOABARRENA (Motza) baserria 2001

- OLALDE Urtero gisan egin beharra
 etxe hontara bixita.
 Ardiak uxau ditugu eta
 hasarre zaude, Joanita.
- O. ALBERDI Atera etorri eta hemen
 hasi gera berriketan.
 Lasai ibili badatoz eta
 berriro etxera bueltan.
- N. ZENDOIA Gu ikusita ardi gaixuak
 ihesi dirade junak.
 Artzai itxura badegu baina
 artzantzan ez dakigunak.
- OLALDE Eginahalean jana ematen
 Joanita dabil lanean;
 ta festarako gogorik ezta
 lanean ari danean.
- O. ALBERDI Ardi taldea ederra dauka,
 batzuk badaude ilunak.
 Txakur kuadrila etorri gera
 nahiz eta bi hankadunak.
- N. ZENDOIA Andre Joanitak borondatea
 eta bera bezain ona.
 Kantuan hasi baino lehenago
 ekarri digu limosna.
- OLALDE Lanak eginda limosna bota,
 nun bila andre hobe?
 Mila durokoa luzatu du;
 bejondeizula, andrea!

- O. ALBERDI Diru asko zuela ta zerbait
esan beharko diot nik.
Ez nuen uste ardik hainbeste
diru ematen zutenik.
- N. ZENDOIA Borondatea zabala dula
esana diot lehenago,
izanez ere ekarri du guk
merezi baino gehiago.
- OLALDE Nahiz aberatsak ez izan hemen
Joanidak badu hainbat gradu.
Diru gauza ez da, hortarako
borondatea behar du.
- O. ALBERDI Diru dexente bota digu ta
honek egin du nahikua.
Honek borondatea bai dauka
bihotza bezelakua.
- N. ZENDOIA Ardi gaixoak ederki daude
larre goxuan jarrita.
Barkatu eta eskerrik asko,
ta ondo bizi, Joanita.

AKOABARRENA (Motza) baserria 2002

- O. ALBERDI Hor atzean nik bi ardi txakur
zaunkaz ikusi jo ta su;
norbaitek hartu makila eta
hortik bidali itzazu.

- OLALDE Ez gera ezagunak hoientzat
ahoa zabalduz apal;
denbora gehio pasa ezker
ixilduko dira igual.
- O. ALBERDI Gogoratzen naiz lehengo urtean
hor artalde bat bazela;
eta aurten ez dira joaten
lehengo urtean bezela.
- OLALDE Aurrean inor ez degularik
hementxe gabiltza larri.
Ondo hartua izango zera,
eta mesedez etorri.
- O. ALBERDI Seguru asko gure Joanita
ez dagola sukaldean.
Gure koplak entzuten ari da
ate zahar horren atzean.
- OLALDE Ardiak eta txakurrak ere
batera dira ibiltzen.
Ez degu ezer eginik hemen,
ez bai zaizkigu ixiltzen.
- O. ALBERDI Aspalditikan entzuna daukat
nik Joanita horren sona.
Etxekoandre gutxik daukate
horlako itxura ona.
- OLALDE Motzaneraino etorria zan
nunbaitetikan Joanita.
Bajatzen ari dela diote,
oaindik aurpegi polita.

O. ALBERDI

Begiratuta itxura ona
badakit Joanitak dula;
baina etxeakoandre hoberik
ez det ikusi sekula.

OLALDE

Lana ugari egin du eta
Joanita ari da zahartzen,
laguntzeko ere seme Juan Josek
andrerik ez dio ekartzen.



Aitonari koplatzen

AKOABARRENA (Albisu) baserria 1992

UZTAPIDE II Ez dakit zuek aurten egongo
 ote zinaten etsita;
 jakina, guk gaur'e egin nahi degu
 urtero ohi degun bisita.

OLALDE Nahi badezute berritxo hauxe
 orain behar dezute jakin:
 Urterik urte etortzen gera
 beti gogo gehiagokin.

UZTAPIDE II Beste lanikan ez daukagu ta
 hortan bada adorea.
 Danen aurrean jarri dezagun
 gaurko hontan umorea.

OLALDE Batek launaka bota dezake
 eta beste batek bosna.
 Edukazio onenarekin
 eskatzen degu limosna.

UZTAPIDE II Lehenago ere inola etzan
 izango etxean etsai.
 Nagusi zaharra hor ikusten det
 atarian nik ardizai.

OLALDE Alde batera pozgarria da
 aitona ere ikustea.
 Hura kanpoan ardizai eta
 etxean andre gaztea.

UZTAPIDE II Entzun degun hau sarri gertako
danok kanpoan bagina,
baina etxean ere egongo da,
beti bada zer egina.

OLALDE Lana egin nahi duenarentzat
beti badago nekea.
Ate ondoan ondo hartzen da
holako emakumea.

AKOABARRENA (Albisu) baserria 1996

N. ZENDOIA Leiho txulotik begira zerbait
pasadan naiz ni egona,
ta exerita ikusi ditut
aitona eta amona

OLALDE Urte mordo bat badaukatela,
hola iruditzen neri.
Zer modutan dagoen galdetu
nahi nioke Joxe Mari?

N. ZENDOIA Erabat gaizki ez dala bizi
begiratuta ezagun du.
Nabarmen ikusten degu hori,
amonak ondo zaintzen du.

OLALDE Joxe Mari du aitak izena,
amonak berriz Jexuxa.
Ondo legoke ate aurrera
balitz azaltzeko gauza.

- N. ZENDOIA Aitona eta amona biak
ditugu gure aurrian.
Ondo kantatu edo bestela
joko gaitu kaskarrian
- OLALDE Makila eskuetan duela,
ai, emakume formala!
Garai batean etzan izango
au emakume makala.
- N. ZENDOIA Makila dauka amonak eta
hortan egingo du bingo.
Aitonak ere era horretan
errietik ez du egingo.
- OLALDE Etxeko zaharrak aipa ditugu,
orain nahirikan bestea.
Ez ote daude, edo kanpoan
ote dabiltza gazteak?
- N. ZENDOIA Zer arraiotan aitatu dezu
etxe hontako gazterik?
Aiton-amonak hemen daude ta
ez degu behar besterik.
- OLALDE Hara, Nikolas, gauza horrela
danikan etzazu uste.
Hauek'e tristeago lirake
gazterikan ez balute.
- N. ZENDOIA Egia da, bai, gaztea beti
etxean da gauza ona;
baina oraindik sasoiko daude
aitona eta amona.

AKOABARRENA (Albisu) baserria 1997

- N. ZENDOIA Egia da, bai, hementxe gatoz
gaur gu urtero bezela;
ez da zalantzik ohitura zaharren
gordetzaileak gerala.
- OLALDE Etxe hontako nagusi jauna
omen daukate klinikan;
Hala ere gaur ondo omen da,
ez omen dauka minikan.
- N. ZENDOIA Dudik ez dago dagon tokian
aurkituko du epela,
gaurko klinikak ez bai dirade
garai batekok bezela.
- OLALDE Aita aipa ta Jexusai azkar
irtena dio malkua,
honen bihotzak nunbait badauka
horrenbestentzat lekua.
- N. ZENDOIA Edozer gauza esaten degu
hasitakoan bertsotan;
maitasuna dan hainbestekorik
ezer ez da mundu hontan.
- OLALDE Batzutan irri egiten degu,
ta beste batzutan negar;
beste biderik ez dago hemen,
aurrera jarraitu behar.
- N. ZENDOIA Hara, Olalde, guri entzuten
jende askotxo daude ta
tristurarekin zertan jarraitu
inauteritan gaude-ta.

OLALDE Etxe honetan borondatea
eskertu beharra dago,
limosna ere eman bai dute
bukatu baino lehenago.

AKOABARRENA (Albisu) baserria 2004

OLALDE Kantatutzeko nola inortxok
ez duan eman ordenik,
badaezpadare jakin nahi nuke
bai ote degun baimenik.

O. ALBERDI Baimena eska behar danikan,
Josu, neronek ez nekin;
baina baietza eman du honek
bere irripartxoarekin.

OLALDE Irripar hori nabarmendu det
nahiz etzan ezer entzungo.
Hala izanik, Joxepa, gu're
gustora gera jardungo.

O. ALBERDI Andre formala degula bera
dudarikan ez daukat nik;
limosna ere botea digu
kantuan hasi aurretik.

OLALDE Etorri aurrez eta aurrean
jarri ohi zaigu presente!
Eta gainera limosna, aiba!,
hau ez da soilik dexente.

- O. ALBERDI Parrea errex egiten du ta
ez daduka kopeta ilun.
Era hortako bihotz zabalik
edonork ez du gaur egun.
- OLALDE Txorakeriak nahiz esan guk
aguantatzen du bromikan.
Parre eiten dunak ez du izango
zihur barruan penikan.
- O. ALBERDI Herrira joan eta saltzeko
badauka afizioa.
Joxepa, zer mouz ote dijoa
esnean negozioa?

AKOABARRENA (Albisu) baserria 2007

- G. LOPETEGI Ohitura zaharrei eutsi nahirikan,
edo ohiturak ospatuz,
lehendabiziko goazen hastera
danoi egun on opatuz.
- UZTAPIDE II Goizean lanai eraso eta
iluntzeraino iritsi;
baina oraindik gogor dagola
hortxe ikusi det Patxi.
- G. LOPETEGI Erropa hoiekin esan beharko
daukala langile pinta,
ta ez iduritzen egongo danik
ohetik orain jaikita.

UZTAPIDE II

Gazteok ere joan zaitezte
gauza horretan hezitzen,
baserri baten lanik ein gabe
sekula ez da bizitzen.

G. LOPETEGI

Baserri baten lana ein behar da,
baina ez izan bildurrik.
Baserritarra baldin bazera
ez da galduko peririk.

UZTAPIDE II

Perira ere joan behar da,
ta ondo pasa urtia.
Seguru nago Joxepak ere
egingo dula partia.



Hiru taldekide

AURREKOETXEA baserria 1993

- UZTAPIDE II Betiko martxa hauxe degu ta
hemen ere nahi det berdin;
beste lekutan bezelaxe guk
bisitatxo bat gaur egin.
- OLALDE Guk galdera bat egingo degu,
zuek saiatu osatzen:
Jakin nahi nuke etxe honetan
zer moduz bizi zeraten?
- UZTAPIDE II Ondo izaten ikusitzeak
poza ematen du nunahi.
Eta hemen'e berri txarrikan
ez genuke guk jaso nahi.
- OLALDE Kontuak jakin nahi genituzke
bateko edo besteko.
Ahaleginak eingo ditugu
zuek pozikan uzteko.
- UZTAPIDE II Esan behar det hau ikustean
neu ere poztu naizela.
Eusebio hori ikusi bai det
mutil gazte bat bezela.
- OLALDE Behar bezela hor simaurretan
ikusi degu lanean.
Seinale ona izango da hori
horrela ari danean.

UZTAPIDE II Beraz, indartsu ikusitzen da
etxe haundiko arbola.
Ikusi degu andrea ere
jator ta ondo dagola.

OLALDE Esan liteke hau're urtetan
aurreraka dijoala;
baina beitu baten ematen du
dagola igual-iguala.

AURREKOETXEA baserria 2000

OLALDE Santa Ageda bihar degu ta
gaur degu berriz bezpera.
Gu kanturako etorri gera
eta horrela hobe da.

N. ZENDOIA Kantuan pozik hasiko gera
ate hontara helduta.
Giroa ere joan zan urtean
baino hobe degu-ta.

OLALDE Beti bezela hemen atea
bilatu degu zabalik;
bertso entzuten egongo dira
seguru asko ixilik.

N. ZENDOIA Zuen atean dezutena gaur
Zestuako kuadrila;
odol-emaileen alde nunbait
limosnatxo baten bila.

- OLALDE Ohitura hauxe behin hasiko zan
ta hemen gabiltza geroztik.
Zestoarrak gu gehienak gera,
Nikolas dator Zarauztik.
- N. ZENDOIA Zarautzen eta toki guzitan
gertatzen gera trantzean;
baina bihotza lasaitutzen zait
Zestuara etortzean.
- OLALDE Urtean behingoz azaldu eta
ikusi bat ta bestea;
gure helburua hau izaten da,
zuek pozikan uztea.
- N. ZENDOIA Zuen atean kantu ta guzi
gu bageunden nahiko plako.
Eskerrik asko, ene bikote,
etorri zeratelako.
- OLALDE Emakumea koplatutzea
egin dezagun mesedez.
Etzaigu zahartzen batetxore,
polita dago Anjeles.
- N. ZENDOIA Egia da, bai, ez dago baldar
ez eta ere gizona.
Hori gutxitxo balitz bezela
aingeru eder baten izena.
- OLALDE Beti pena bat bada, andrea,
elkargandik agurtzean.
Ia hain polit agertzen zeran
gu berriro agertzean.

- OLALDE Beste lekutan bezela hemen'e
geure papela nahi bete;
arratsaldeon bihotz-bihotzez;
zer moduz bizi zerate?
- O. ALBERDI Sarri poztasuna etortzen da
gu guztion bihotzetan.
Nolako ume polita dagon
Marijeren besoetan!
- OLALDE Bat jua eta bestea etorri,
azkenean erdibana.
Luxia joan arren bada ume bat
lehengo urtean etzana.
- O. ALBERDI Bere eskutan zaindu ohi digu
gurasoak nork berea.
Bat joan eta bestea etorri
da bizitzaren legea.
- OLALDE Hainbat atzera-aurrera emana
ta azkenik joan Luxia.
Beste biderik ez degu hemen:
Joan etortzen dan guzia.
- O. ALBERDI Horko umea hortxe daukagu
parrea ezpainetan dula.
Iruditzen zait gure bertsuak
ulertu egiten ditula.

- G. LOPETEGI Baserri hontan kantatutzea
egin beharko da errez;
ta itxura txarrik ez dauka bate,
ondo bizi al da Anjeles?
- UZTAPIDE II Dudarik gabe esan beharra
daukagu hemen egiak.
Seguru asko ondo dabiltza
gaur Eusebio eta biak.
- G. LOPETEGI Teilatu honek tapatzen ditu
hiru bat jenerazio;
ta aita hemen aurrean dago,
semea antzeko irten zaio.
- UZTAPIDE II Eginak gera lehenago ere
hamaika holako hitzaldi.
Bat bestea baino preskoagoa,
horra hor hiru gizaldi.
- G. LOPETEGI Aurrekoetxea Akuan beti
nola izan dan ezaguna,
ta ikusten da lortu duela
geroko etorkizuna.
- UZTAPIDE II Gazte-denboran ibili arren
gu're bazterrikan bazter;
hauek zeozer egina dute,
Lorentzo ta ni mutilzahar.
- G. LOPETEGI Lorentzo mutilzahar geratu zan,
eta gero arrantzale;
jubilatuta ondo bizi da,
ez al da hori seinale?

- UZTAPIDE II Ezin da esan nola eraman
batek bizitza guztia.
Ezkundu nahi baldin badu're
oraintxe dauka hastia.
- G. LOPETEGI Manuel eta Lorentzo nola
gaztetan izandu lagun,
ta galdera bat egin behar dizut:
Ederki pasatu al zendun?
- UZTAPIDE II Jan da edana bapo eginez,
beste batzutan festetan...
Egia esan, al genun dana
aprobetxatu gaztetan.
- G LOPETEGI Erromerian ere bi hauek
egingo ziran atera;
nunbait neskekin bildurdu eta
gero mutilzahar karrera.
- UZTAPIDE II Gure garaian ere baziran
makina bat lore ta izar.
Aukerarikan ez genulako
ez gera izan mutilzahar.
- G. LOPETEGI Hauek dantzatzuz hasiko ziran,
neska pila urreratu;
eta gerora hainbesten arten
ezin bakarra hautatu
- UZTAPIDE II Esaten dute ibili behar
dala ezin iritsita.
Limosnagatik eskerrik asko,
baguaz agur eginda.

N. ZENDOIA Barrendik entzun dakiguzute
gu kanpotikan egonez;
saio txiki bat hastera guaz
arratsaldeon esanez.

OLALDE Etxe hontara etorri gabe
nik pasa dedan denbora!
Santa eskean lehenengo aldiz
aurtengo hontan Baiora.

N. ZENDOIA Eta ni berriz lehenengo aldiz
nator bizitzan Baiora;
eta ez dakit nora begira,
atera edo leihora.

OLALDE Etorri gabe, eta gaurkoan
kanta dezagun altutik;
kanpoan ere zein etortzen dan
somatzen dute barrutik.

N. ZENDOIA Hau oso leku polita dala
eta ni ez naiz harritzen.
Etxe berria daukate eta
ari dirade berritzen.

OLALDE Bizialdi bat pasatutzeko
leku polita hau ere.
Duda-mudak gaur osasunari
eingo lioke mesede.

- N. ZENDOIA Leku honetan derrigorra det gauza hau esan beharra: Oporraldia pasatzeko ere hau ez da alderdi txarra.
- OLALDE Hain ondo ez det ezagututzen ta ondo al det esango? Baina gizona borondatetsu agertu zaigu Fernando.
- N. ZENDOIA Hara, Fernando, ez det esango egin dezunikan gaizki, baina merezi ez duenari ez eiozu eman Whiski
- OLALDE Nik ez dakit zer izango dan hau, pattarra ala Whiskia, baina seguru emango dula etxean daukan guztia.

BAIO baserria 2001

- OLALDE Lotsikan gabe etxe honetan gaur'e jo degu aldaba. Aurrean diren hauek izango dira Fernandon alabak...
- N. ZENDOIA Ezagutuko dezute, noski, santa eskaleen bizitza; haize puxka bat badabil baina oso gustora gabiltza.

- O. ALBERDI Harriturikan geratu naiz ni
hemengo ume hauekin;
Neska-mutiko polit askuak
begi urdin-urdinakin.
- OLALDE Bi alaba ta bilobarekin
gustora dago Fernando;
ia zenbat urte egin dituzun
jakiterikan balego...
- N. ZENDOIA Aita Fernando, hartu ezazu
koplarien zoriona.
Nere andreak ere gaur ditu
eta deitzen dit aitona.
- O. ALBERDI Gure Olalde Fernandorekin
hasi zaigu atrebitzen.
Urteak galdetu ohi dira baina
ez dirade erantzuten.
- OLALDE Gizona atera azaldutzeko
Fernandok badu adurra;
ta borondatea ere sobre,
honek du bihotz xamurra.
- N. ZENDOIA. Eskerrik asko harreragatik
gabiltza denbora premiz;
hurrengo urtean jaunak nahi badu
etorriko gera berriz.

- OLALDE Aurtengo hontan Baio gainean
badegu nahi haina babes.
Eguzkiakin gozaturikan
badegu hainbeste amets.
- O. ALBERDI Santa eskaleak hementxe gatoz
koplatan ekin ta ekin.
Lehengo urtean haize galanta,
ta aurten giro onakin.
- OLALDE Batzuk hegoa deitzen diote,
ta beste batzuk eroa;
ta guri're gaur emango digu
kantatutzeko gogoa.
- O. ALBERDI Biok kantuan hemen gabiltza
trilili eta tralala,
udaberrian txori txikiak
jardutzen duten bezala.
- OLALDE Beste urtetan jardun ohi gera
gure Fernandoi abesten,
eta ez dakit nun egongo den,
etxean ez da ikusten.
- O. ALBERDI Ate ondora ez da azaldu,
hori zaigu bere kaltez.
Bere urteak herainun ziran,
zoriondu gure partez.
- OLALDE Bere alabak esan duenez
hirurogeita hamabi.
Bana-banaka kontatzen hasi
ta luzegia da hori.

- O. ALBERDI Nun arraiotik irten ote da
modu horretako prenda?
Dauzkan urteak edukitzeko
ederki kontserbatzen da.
- OLALDE Fernando euskaldun petoa degu,
juzgatutzen det konpleto.
Etxean ondo ibilitzen da,
baina kalean hobeto.
- O. ALBERDI Kanpoan majo moldatu ohi da,
berdin ipar edo hego.
Koplaren bat'e botako luke
atea ondoan balego.
- OLALDE Eskerrik asko limosnagatik;
nahiz hemen gauden primeran
joan beharra daukagu eta
ia berriz ikusten geran.

BAIO baserria 2007

- UZTAPIDE II Betikan hasi ta harrapatu deu
Baiorainoko tontorra.
Lehendabiziko egun on bana,
ene famili jatorra.
- G. LOPETEGI Etorra aldea ikusi leike,
Bainuetxea ere bai.
Dударik ez da etxe honetan
bizi diradela alai.

- UZTAPIDE II Ni nola naizen etxe hontara
sarri etorri naizena,
lagun haundi bat badet: Fernando,
halaxe bai du izena.
- G. LOPETEGI Manuel eta Fernando, noski,
ezautzen dira gaztetik;
eta lagunak segitzen dute
hauxek biak oraindik.
- UZTAPIDE II Lagun on batek beti behar du
albokoaren itzala.
Gu biok beti izandu gera
beraz bi anai bezela.
- G. LOPETEGI Elkar ikusi ta lehenbiziko
nola egin duten parre;
hori ez al da bi lagun haundi
eta on diran seinale?
- UZTAPIDE II Esango dizut nola dan gure
mundu hontako albistea.
Lau bat alaba hazi zitun da
aita oraindik gaztea.
- G. LOPETEGI Gaztea dago, baina izan zun
abildade ta indarra;
eta hemengo ijito zaharrei
jotzen zioten adarra,
- UZTAPIDE II Beraz hiru bat suhi badabiltz
etxe honetan barrena?
Hogeita hamar urte banitu
neu nintzake laugarrena.

G. LOPETEGI Aizu, Manuel, ahaztu egin zait
baina nua esatera:
nik'e hamar urte gehio banitu
neu nintzakela hurrena.

UZTAPIDE II Gauza bat esan behar dizuet,
gogoan hartu berezi,
ta salgai baldin badago behintzat
badezu zeinek erosi.

G. LOPETEGI Josune, Blanka, Lolita, Mila,
hiru suhi eta Fernando...
Besarkada bat ta mila esker,
agur eta bizi ondo.



Olalde, Unanue eta Zendoia

SAN JUAN egoitza 1995

- OLALDE Akua bailara egin degu ta
 orain San Juan egoitza.
 Etxerik etxe santa eskean
 lege zaharrean gabilta.
- N. ZENDOIA Nere bihotzak salto egin du
 ate honetan sartzean,
 ahalik ondoen kantatutzeko
 aiton-amonen etxean.
- OLALDE Hementxe dagon koadro honetxek
 duda batekin nau uzten:
 Jakin nahi nuke gure bertsoak
 bat'e pozten al zaituzten?
- N. ZENDOIA Ai, bihotzeko aiton-amonak,
 ikusten zaituztet alai;
 zuen bihotzak poztu izateak
 besterik ez genuke nahi.
- OLALDE Beste zalantza txiki bat ere
 nola dena bete ez dan:
 Jakin nahi nuke falta diranak
 ote dauzkagun siestan?
- N. ZENDOIA Sasoi dan arte badabilzkigu
 aldetik zenbat ixtilu;
 zuek zerate gure geroko
 amets guztien ixpilu.

- OLALDE Pixkana baina jendea ere
hola ari da etortzen.
Estimatusen gaituzte piskat
eta ontzat degu hartzen.
- N. ZENDOIA Presalde ere hor ikusten det
mutilzahar lirain liraina,
Gipuzkoako idi-pareei
hainbat uztarri egina.
- OLALDE Uztarri asko egin zitula
Nikolasek du kantatu;
orain ezin du batere egin,
baizik lehengoak kontatu.
- N. ZENDOIA Aizkora amutsa izaten zuen,
bi trintxa eta trabesa;
beti honekin zuzen asmatzen
etzan izaten erreza.
- OLALDE
.....
.....
.....
- N. ZENDOIA Etxera joan da zalapartaka
hasitzen zan segituan,
ta gutxienez hiru bat egun
bertan pasatzen zituan.
- OLALDE Hiru bat egun pasatzen zitun,
ta ondo iruditzen zat;
horrenbeste denbora behar du
uztargile on batentzat.

- N. ZENDOIA Ta berriketan hasten zanean
sekula holako frailerik!
Euskal Herrian etzan izango
holako uztargilerik
- OLALDE Beste batzuen izenak ere
jarri beharko dira martxan.
Oraingo hontan aipatzen ditut
Iruitta eta Anatsan.
- N. ZENDOIA Gaurko gazteok zuei guztioi
bihotza jarriaz bigun,
gu ere zahartzen baldin bagera
ea nork kantatzen digun.
- OLALDE Gure kantuak motzak ditugu
ta bukatzen dira laste.
Urtea oso luzea bai da,
baina zainduko zaituzte.
- N. ZENDOIA Anatsan jauna etorri zaigu
oso gizon dotoria,
esango nuke bera ote dan
hemengo diretoria.
- OLALDE Anatsan hau da, ta hura berriz
izango da Anabaso.
Ikusten danez itxura ona
ekarri du gaur'e oso.
- N. ZENDOIA Izenarekin huts egin badet,
arren, barka zaidazute,
nere bihotzak hemengo danak
berdin maite bai zaituzte.

OLALDE Kuriosidade txiki bat ere
badet, aipa dan kasuan:
Jakin nahi nuke jarraitzen al dun,
lehen maitemin bat bazuan.

N. ZENDOIA Esango nuke Olalde honen
ateraldia dalako,
lehen maitemin bat bakarrik zuan
eta orain berriz asko.

OLALDE Barkatu baina buka beharra
hasi ta berehalaxe.
Urte askuan jarraitu hola
orain arte bezelaxe.

SAN JUAN egoitza 2003

OLALDE Irriparrezko txio batekin
somatutzen det Illurdan;
nahiago nuke bertso kantuan
hasiko balitz burrundan.

ILLURDAN Hori esanda ixildutzia
neri ematen dit pena;
oraintxe bota behar det neuk'e
bat ahal dedan onena.

O. ALBERDI Kopla koskorra hortxe bota du
rima ta guzti konpleto.
Aizu, Olalde, bertsoan daki
guk baino askoz hobeto.

- OLALDE Illurdan honek berezkoa du
bertsoetarako sena;
arrazoia mingainan puntan da
hori're beti zuzena.
- ILLURDAN Ezagun gabe hementxe neri
hasi zait adarra jotzen,
zer, holakorik entzuterikan
asko ez nuen pentsatzen.
- O. ALBERDI Illurdanentzat nire oraingo
gogo eta gorespenak.
Lehengo zaharrak botatze'ituzte
arrazoirikan onenak.
- OLALDE Beste txiki bat kanta nahi diot
Ariztaiñeko Martini.
Bera ez ezik andreari're
bertso goxo bat eskeini
- ILLURDAN Martin oraindik nola daukagun
hemen umore goxuan,
estrapuzurik ez du egiten
debilenian pausuan.

SAN JUAN egoitza 2006

- O. ALBERDI Sila batean eseririkan
gaur ikusten det laguna;
hemen kantuan hasiagatik
badegu nork erantzuna.

- OLALDE Bertsolaria han ikusten det,
jarrita dago Illurdan.
Hemen jendeak galdetutzen du
ia zure bertsua nun dan.
- ILLURDAN Ni behea jota nola naguean
orain ezin irten gora.
Nere bertsua ihesi joan da
ate-atzetikan gora.
- OLALDE Konpromisuan jarri zaitut nik
ta erabat naiz kezkatu.
Azkar asko ere bai zuk kantatu,
gehio ezin da eskatu.
- ILLURDAN Urteak aurrera joan dira ta
burua daukat gordina;
baina bihotza ikusitzen det
gazte askoren berdina.
- O. ALBERDI Bertsotarako oraindik ere
mingaina dezu abila.
Zatoz gurekin, hemen badago
txapela eta makila.
- OLALDE Hemen guztiak ezin aipatu,
ta gelditzen naiz penakin.
Goltzibar ere hor ikusten det
ederki sasoi onakin.
- ILLURDAN Bakoitzak hemen ateratzen du
gaur garai onaren sona;
baina gauza hori bai daukagu
guk pikutara joana

- O. ALBERDI Hona kantura etorri gera
gaur zuek alaitu nahian;
baina ederrak zuek etzinaten
gazte zinaten garaian.
- OLALDE Mundu honetan oso errez gu
sartu ohi gera kejakin,
baina etzerate kejatuko
holako neska majakin.
- ILLURDAN Neska haueri egin nahi diet
bihotz barrendik erregu.
Hauetxen onduan egunero
lagun ibiltzen gera gu.
- O. ALBERDI Beste gauza bat ikusten det nik
Sastrei begira ezkerro:
lehengo urtetik hazi zaigula
hogezi zentimetro-edo.
- OLALDE Joan beharra, nahiz jarraitzeko
guk'e izan hainbat gogo,
datorren urtez jaunak nahi badu
izango bai da gehiago.

LEGOIAGA baserria 1992

UZTAPIDE II Bazkalondoan irten degu ta
iritsi halako baten.
Jakin nahi nuke Legoia aldean
zer moduz bizi zeraten?

OLALDE Eskean gabiltz eta kantuan
banaturikan hainbat poz.
Umore ona geurekin degu
eta zabaltzera gatoz.

UZTAPIDE II Inoiz kaltera joan ez dadin
beserriaren sena ta,
berriro ere landare onak
badaude hemen erneta.

OLALDE Neska-mutikoaren parreak
datozkigu gurerraino;
gauza ederragorik al da
umeen parrea baino?

UZTAPIDE II Begiratuta ezagun bai du
doaitasunen jabea;
umearen parrea da beti
behin'e burlarik gabea.

OLALDE Salegitarren kasta horretan
bertsolariak badira;
gauzak horrela jarraitzen badu
hemen badute segira.

- UZTAPIDE II Zuk esan dezun hori halare
bai da alboko hegoa.
Beste Salegi bat bazan lehen
hori baino zaharragoa.
- OLALDE Beraz, bertsolarien graduak
apelido hontan karga?
Asko entenditzen dute hauek,
ondo kantatu behar da.
- UZTAPIDE II Gaztea nintzan, sarri izaten nun
berari nik entzun nahia.
Sebastian zan bertsolai ona,
Marianoren anaia.
- OLALDE Beraz, bertsolariak hemen'e
sortuak kantari kanta?
Eta bera ez ezagutzea
badaukat pena galanta.

LEGOIAGA baserria 1997

- N. ZENDOIA Lehengo urtean ere jo genun
guk Legoiako atea;
asko askorik ohartu gabe
pasatu zaigu urtea.
- OLALDE Esan bezela urtea joan da
eta jo degu atea;
omendu nahirik gabiltza aurtene
gure Ageda maitea.

- N. ZENDOIA Hasi beharra daukagu hemen
gure agurra prestatzen;
borondatea hemen bada ta
ez da gehiago eskatzen.
- OLALDE Mariano're agertu zaigu
ta begirune onakin;
bate itxura txarrik ez dauka
berak dun edadeakin.
- N. ZENDOIA Gure Marianok guri begituz
zerbait badigu alaitu.
Gaizki kantatzen baldin badegu
bastoiakin joko gaitu.
- OLALDE Dudarik gabe eingo du honek
nolako geran aproba.
Bai al dakizu bertsolaria
daukagula honen iloba?
- N. ZENDOIA Lizarreta hark bertsotarako
badauzka bere graziak;
baina askotxo izango ditu
osabari ikasiak.
- OLALDE Zuk badakizu ikasten dala
hemen ari eta ari;
Lastur aldian bertsolariak
lehen ere ziran ugari.
- N. ZENDOIA Bertsolariak ziran Lasturren
ni hori jakinik nago.
Ta gu joango baldin bagina
beste bi baldar gehiago.

OLALDE Batzuk bizkortxo kantatzen dute,
ta beste batzuk makaltxo.
Zuk badakizu hango zirala
Uztapide ta Kortatxo.

N. ZENDOIA Danak aitatu ditugu hemen
ziranak eta ziranen.
Alde egin beharko diagu
danak nazkatu baino lehen.

LEGOIAGA baserria 2000

N. ZENDOIA Norbait barruan egongo al da,
gu hemen gaude kanpuan.
Zuen baimenik baldin badegu
hastera goaz kantuan.

OLALDE Mundu honetan gizona ez da
ogiz bakarrik bizi ta
horregatikan hemen dezute
santa eskalien bisita.

N. ZENDOIA Gu behar bada ez gera izango
kantuan oso abilak.
Lehengo ohiturak gogoz maitatzen
ditu gure kuadrilak.

OLALDE Gustatzen zaigu leku guztiak
bilatutzea txit alai;
agurtu eta pozik uztea
besterikan ez degu nahi.

- N. ZENDOIA Bizitzak badu bere alderdia
aurea eta atzea;
baina entzuten duten tokian
merezi du kantatzea.
- OLALDE Etxeko zaharrak koplaturikan
sartu nahi nuke barrena.
Mariano ta Joxepa ditut
nere ahotan aurena.
- N. ZENDOIA Ez dakit gero ba ote dakigun
behar bezela asmatzen,
limosna eman eta gerora
hasi bai gera koplatzen.
- OLALDE Eskatutzero etortzen gera
eta hartzea nahiago;
aurretikan emate hori da
kantatutzeko gehiago.
- N. ZENDOIA Begiratua firme jarri det
emana duten horretan,
eta gelditu gerade hemen
urte beteko zorretan.
- OLALDE Auzo bertako semea naiz ni
ta izana zenbait tratu.
Lehendabiziko Marianori
nahi diot orain kantatu.
- N. ZENDOIA Gaur edonola egin gentzake
hizketan edo kantari.
Zuk Marianori kanta zaiozu
ta nik andre Joxepari.

- O. ALBERDI Kopla kantatzen egun osuan
gabiltza ari ta ari;
zuek zaharrei kantatu ta nik
nire Josu lagunari
- OLALDE Josu laguna duala ere
Oskar ari da esaten;
koplai berria degula aurtan
konturatuko zinaten.
- N. ZENDOIA Kunplitu nahia badegu hemen
etxe hontako danekin;
baina lehentxio bat izana da
eskuan limosnarekin.
- O. ALBERDI Beraz kantari etorri gera
gaur zahar eta gazteak;
Marianok poza ematen du
gaur horrela ikusteak
- OLALDE Urtetan aurrera doa baina
ondo egiten da mantendu;
ta garairik txarrenean ere
aurpegia ematen du.

- N. ZENDOIA Mahaian jarrita pasa ditugu
pare bat ordu, ta berez
ikusiko da bazkariak on
egina digun ala ez.
- O. ALBERDI Behin'e ez nintzan hola ibilli,
lehenengo aldia aurten.
jakin nahi nuke Legoia hontan
zer moduz bizi zeraten.
- OLALDE Aipatutzen'e hemengo danak
izango degu lanikan;
baina guztiak ondo ote dira?
Ez da notizi txarrikan.
- N. ZENDOIA Oskar gaztiak ikasi azkar
alde hontako bidiak;
hemen danetik egon litezke,
Legoiak eta Tigriak.
- O. ALBERDI Bertsoa bota aurretik hona
dirua ekarri dezu.
Lehenengo onak ala txarrak diran
zuk behintzat entzun ezazu.
- N. ZENDOIA Ate ondora etorri zaigu
kolore gorri senduan;
bazkalonduan kopatxoren bat
edo hartuko zenduan?

² Manuel Uztapidek bere bizitzako zenbait pasarte kontatzean bere *Leengo egunak gogoan* liburuan (Zestuako Legoian, Uztapide, 115 or.) Legoia baserriaz dio: “–Zestuako Legoian morroia palta omen dek. Nai baldin badek joan, artuko

O. ALBERDI

Zu ikusita ez naiz geratzen
gaurko honetan penetan;
irriparrerik ez dezu galtzen
behin'e zure ezpainetan.

OLALDE

Kopak nolanahi ezin dira hartu,
ai, horrenbeste urtekin!
Gehienez ere kafe bero bat
txarrasta txiki batekin.

N. ZENDOIA

Joxepatxori eska zaiozu
kopatxo baten baimena,
ta bihar goizetikan hasita
egin zazu rejimena.



Etxabe "Legoia"

aute an-, esan zidaten. Olazabalko Pakundo zan, ba, an lenago, eta ura Legazpin lana eskatuta egon. Da andik abisoa etorri ta ara joan, Patrizio Etxeberriarengana... Nik an morroia palta zala jakin nuanean, bertara joan nintzan, ia zerbait egiten nuan... Illeko ogeita bat duro zeukala esan zidan leengoak, da neri ere ainbeste emateko konforme zegoala. Alaxe, biok tratua egin genduan.

BALTZOLABERRI baserria 1995

- N. ZENDOIA Iruditzen zait egongo dela
barnean jende apalik,
bestela etzuten ez edukiko
atea zabal-zabalik.
- OLALDE Ikusi gabe zein dauden hortxe
inola ere jakin ez;
apustu egingo nuke bertan
ama-alabak gutxinez.
- N. ZENDOIA Piska-piska bat lasaitu nahi det
nere kopla hau botata.
Amonarekin hasi beharko
aitona lanean da-ta.
- OLALDE Ama edota amona degu,
ta Margarita izena;
beti bezelakua badago
ez da egongo gizona.
- N. ZENDOIA Nere lagunak esan duanez
Margarita da izenez;
baina pertsona ez da neurtutzen
metruakin da gizenez
- OLALDE Emakumea langile fina
eta kasta berezkua;
bizi guzian ari ta ari,
degu oso fin askua.

N. ZENDOIA Hara, amona, aitonen poltsan
bila azkar abituta,
ahariarekin irabaziak
han edukiko ditu-ta.

OLALDE Garai batean hamaika ahari
edukitzen zitun jiran;
diru haiek aspaldiko gauzak,
honezkero gastauko ziran.

BALTZOLABERRI baserria 1997

OLALDE Lehengoa genun Legoa eta
hau degu Baltzolaberri;
han bezelaxe jakin nahi degu
etxe honetako berri.

N. ZENDOIA Barkazioa eskatu behar
galdera hori eginik;
hemen zer berri daukaten, lagun,
ez daukazu zer jakinik.

OLALDE Martxa horretan jarraitu ezkerro
igual ez da komeniko.
Emaztea da Margarita ta
gizona degu Benito.

N. ZENDOIA Hontara ezkerro Benitogatik
esan beharko da dena;
hori izan zan ahari kontuan
maixurikan haundiena.

- OLALDE Ahari kontuan egingo zuan
makinatxo bat bisita;
ehizera lasai joaten zan hori
andrea lanen utzita.
- N. ZENDOIA Ikasi gabe etzuan laga
horrek ahari traturik,
jokoa galtzen bazuan ere
etzun galduko dirurik.
- OLALDE Dudarik gabe diru pixka bat
bere joku afanian;
diru gehiena irabazi zun
andrea hartu zunian.
- N. ZENDOIA Zuk esan dezu andreak eman
ote zion horri sona;
ezkondu baino lehenago ere
beti izan zan gizona.
- OLALDE Lan asko egin behar omen da
zerua irabazteko;
ai, Margaritak eginkizun hau
txit ondo zuen beteko.
- N. ZENDOIA Hontara ezkeru hau ere esan
beharko da berehala,
ta Margaritak esango digu
enbasteruak gerala.
- OLALDE Bere bizkarrak ezagutzen du
karga haundien pixua;
zuzen askua izanagatik
okertu zaigu gaixua.

N. ZENDOIA Emakume batetik bestera,
jaunak, dadukagu koxka.
Lehendabiziko dirua eman du,
ta gero berriz tragoxka.

BALTZOLABERRI baserria 2004

OLALDE Soinu-jotzaile ta panderista,
ta aurrean bi koplari,
baina atzetik lagundurikan
hainbeste jende ugari.

O. ALBERDI Barruan norbait ba ote dagon
orain nahiko nuke jakin.
Lotan badago esnatuko da
gu bion burrundarekin.

OLALDE Barruan daude, seguru nago;
hau da nere diosala.
Atea ireki eta atzean
ohiturak dion bezela.

O. ALBERDI Hor sukaldean egongo dira,
gainera bertan goguan;
kanpuan danak ez du jakiten
nor egoten dan barruan.

OLALDE Gure bertsuak barruratzeko
bada hainbat zirrikito;
lehendabiziko agurtu nahirik
Margarita ta Benito.

- O. ALBERDI Bat genun oso sasoikoa ta
besteak abila mingaina.
Margarita ta biek egiten
zuten bikote bikaina.
- OLALDE Jaio ezkerro zahartu beharra,
holakoa da mundua;
ezina etortzen danean'e
badute nork lagundua.
- O. ALBERDI Lehengo zaharrak ibiltzen ziran
nahiko jenio bizi-az,
ta orain enborreko bi daude
baserriari eutsiaz.

BALTZOLABERRI baserria 2005

- OLALDE Arratsaldeon, Baltzolaberri,
hementxe gatoz kantari.
Lehendabiziko besarkada bat
entzuten dauden denari.
- O. ALBERDI Arratsaldeon, hementxe gatoz
santa eskeko kuadrila,
kopla ixila kantatu asmoz
umore alaitsu bila
- OLALDE Benito lagun hil zitzaigun da
hura aipatzea hobe;
horregatikan kantauko degu
gaur batere soinu gabe.

- O. ALBERDI Benito zana oroitu asmoz
arituko gera klaro,
bera koplatu nahi degulako
entzuten baldin badago.
- OLALDE Etxe honetan bera bai zuten
familiaren burua;
baina danori iristen zaigu
azken uneko ordua.
- O. ALBERDI Bera hemendik joan zitzaigun
pixkanaka-pixkanaka,
ta sukaldeak majo botatzen
du oraintxe bere falta.
- OLALDE Seme-alabak gaixo egonik
jartzen zioten arreta.
Bera sortzaile, eta hargatik
asko maitatzen zuten-ta.
- O. ALBERDI Hala uste ta baina ez bera
mundu honetan betiko;
zauden lekuan zu ondo izan,
ta goian bego Benito.

***BALTZOLABERRI baserria* 2006**

- O. ALBERDI Santa eskean daramakigu
nik ez dakit zenbat urte;
Baltzolaberri, arratsaldeon
esanez hasi nahi nuke.

- OLALDE Berandu xamar etorri gera
aurtengo hontan, badakit.
Oiloak ere kakarazkaka
hasi zaizkigu kotatik.
- O. ALBERDI Hemen guztiak aipatzea da
ekarri degun asmoa.
Jakín nahi nuke zer moduz diran
Julen, Ibon eta Ainhoa.
- OLALDE Bere semeak, gainera hiru
orain dituzu zuk aipa,
beraren ama Maria Lourdes
ondo ikusten degu-ta.
- O. ALBERDI Zuen ama're langile fina,
ez da atera makala;
eta gauza bat opa diot nik:
Gripea senda dezala.
- OLALDE Lagundutzia zaharrak izanik
komeni zaie ahal dala;
eta graziak Maria Lourdes
ere etortzen zaiela.

BALTZOLABERRI baserria 2011

- G. LOPETEGI Santa eskaleak etxe hontara
bagatoz halako baten;
jakín nahi degu alderdi hontan
zer moduz bizi zeraten.

- M.TELLERIA Eta ikusi besterik ez da
etxeakoandre hau lekuko,
arrantxoakin etorri baita
gu inguratu orduko.
- G. LOPETEGI Lehen agurra egin diogu
jatorra ta xuabea,
eta itxuraz aipa dezagun
atean degun andrea.
- M. TELLERIA Lehen arrantxoa, orain limosna,
hori da borondatea.
Ta Lurdes hemen egona berriz,
guk dadukagu suertea.
- G. LOPETEGI Igual Lurdesi jarriko diou
amets txar edo trantzea,
baina eskertzen da atera irten
eta gu estimatzea.
- M. TELLERIA Eskertu eta kantuan segi,
ari gerade kantari,
ta Lurdes, ze mouz dago etxean
zuen amama Margari?
- G. LOPETEGI Makinat kontu eta komeri
eman dizkio bizitzak!
Dagon lekutik jaso ditzala
eskeintzen dizkio'un hitzak.
- M. TELLERIA Sendatzeko ta dauzkan urteak
kentzeko nahiz ez geran gai,
animo eta goraintzi batzuk
emateko haina behintzat bai.

G. LOPETEGI

Arrazoi dezu, bizi nahi hori
ez da izaten maxkala,
ta errezuak balio badu
gutzaz erreza dezala.

M. TELLERIA

Errezo eta gure bixitak,
noski, badula balio;
harreragatik milaka esker,
etxeko denai ario.



X. Etxabe

OLAZARRAGA baserria 1994

- OLALDE Ohitura zaharrak leku honetan
nahi genituzke ezarri,
hainbat errespeto eta gehio
baitiogu Olazarri
- UZTAPIDE II Bertsozaleak izan dirade
beti zahar eta gazte;
iduritzen zait merezi dula
famili honek hainbeste.
- OLALDE Zuk kanta dezun bertso horretzek
mereziko ditu bi hitz;
zer eginikan ez genuke guk
entzule onik ez balitz.
- UZTAPIDE II Iduritzen zait hortan dagola
hemen arrazoi nahikua;
entzule onak badaduzkagu
ta bete geure lekua.
- OLALDE Etxeko zenbait aipatzea ere
komeniko zaigu hemen.
Jakín nahi nuke nola dabilzan
Iñazio eta Karmen.
- UZTAPIDE II Esan nahi nuke neroni ere
holakoxea naizela;
iduritzen zait biak batean
ondo, zuk esan bezela.

- OLALDE Guraso hauen meritua ere
goraipatzekoa bada;
bien artean hazi dituzte
hamar bat seme-alaba.
- UZTAPIDE II Nahiz eta izan bizimodu hau
sarri askotan gogorra,
oraindik ondo arkitutzen da
familiaren enborra.
- OLALDE Seguru asko ez dira egongo
famili haziaren damuz,
beren ondoan orain bai dira
Miel ta Maria Jesus.
- UZTAPIDE II Bide onetik eramateko
baserri edo bazterra,
egia esan badadukate,
ai, etorkizun ederra.
- OLALDE Bat nola ezin dan hemen bizi
oso denbora luzian;
lana're askoz hobe egiten da
ume txikien pozian.
- UZTAPIDE II Seguru asko garai batean
gu ere izango ginan,
ta umetxoak oraintxe daude
jolastutzeko tamainan.
- OLALDE Ume danian ume gera ta
gero berriz begira zer.
Akordau baino lehen zahartuta,
beti badago zeozer.

UZTAPIDE II Egia esan gure saioa
hoinbestean izan da,
eta baguaz limosnagatik
denoi eskerrak emanda.

OLAZARRAGA baserria 1997

N. ZENDOIA Beheraxeago agurtu degu
etxe hontako aitona,
ta esan digu: Joan zaitezte,
etxean zegok amona.

OLALDE Nun kantatu ere hau ikusita
danok dudatan gaur jarri.
Esan diogu etortzeko ta
gizonak ez nahi etorri.

N. ZENDOIA Alde batera ikusgarria
ta bestera harridura;
limosnarik ez ematearren
hortxe behian gelditu da.

OLALDE Bertso kontuan gustatzen zaigu
elkar arteko armoni;
berak ez baldin badu nahi entzun
kanta deiogun Karmeni.

N. ZENDOIA Hala esan du: Amonai kanta
eta eskatu dirua.
Berriro ere edukiko du
aitonak poltsa berua.

- OLALDE Dirua aurrez eman du Iñaziok,
horretan ez du okerrik;
baina gu ez gerade etortzen
diruan bila bakarrik.
- N. ZENDOIA Guk bakarrikan egin nahi genun
urteoroko bisita.
Hargatikantxe utzi digute
atea erdi irekita.
- OLALDE Ez baldin badu're etorri nahi
ez diogu erreguko,
eta etorri balitz bezela
denok degu agurtuko.
- N. ZENDOIA Agur esan da zuen artetik
badijoa gaztedia,
ta goxo-goxo jarri zaiozu
aitonari afaria.

OLAZARRAGA baserria 2000

- OLALDE Gaurko egunez santa eskean
ibiltzea da ohitura;
horregatikan Olazarrera
etorri gera kantura.
- N. ZENDOIA Egia esan, umoretsuak
ikusten gerade denak;
ate ondora heldu gerade
herriko alper gehienak.

- OLALDE Maria Jesus etorri da ta
ateia digu ireki;
nahiago nuke hor barrukoak
nola koplatu baneki.
- N. ZENDOIA Aiton-amonak aitzurrean da
baita ere aitzakitan,
seguru asko porru-patatak
baditugu afaritan.
- OLALDE Garai batean izanagatik
behar hainbeste harmoni,
nagon lekutik esker beroak
emate'izkiot Karmeni
- N. ZENDOIA Andratxo irripartsu honixe
bota behar diot hurrena.
Maria Jesus bihotzekoa,
egin, ba, hamaseigarrena.
- OLALDE Hogeigarrena egiteko ere
badu hainbeste grazi ta
emakumea apaina dago
seme-alabak hazita.
- N. ZENDOIA Hemen senarrak hartua zuen
andre polit ta fuertea.
Gizon guztiak ez du izaten
horrelako suertea

- OLALDE Arratsaldeon, begien bistan
nere auzoko laguna;
itxura onez ikusten zaitut,
Olazarko Iñazio jauna.
- O. ALBERDI Urte askoan lana eginez
hementxe da hau jarduna;
eskua emanez azaldu digu
bere eskuzabaltasuna.
- OLALDE Berrogeita hamar urte pasiak,
hoiek dira, hoiek garaiak!
Pasa berriak dituzte hauek
bere urrezko eztaiak.
- O. ALBERDI Beraz, urrezko eztaiak ere
iritsi holako baten;
hori ospatzeko aukerarikan
ez du edonork izaten.
- OLALDE Jaio ziraden eta gerora
nunbait nobio-nobiak.
Famili latza hazia zuten
Karmen andrea ta biak.
- O. ALBERDI Hauek daukaten meritua ere
etzaigu nolanahi ahazten.
Nahikoa lana izango zuten
holako familia hazten.
- OLALDE Eta horrela behar du gauzak,
bestela zuzen nazala;
goitikan behera jeneralean
ura joan ohi den bezela.

- O. ALBERDI Lehen baserria behian bazegon,
kalera joan da behero;
urari ere eutsi ohi zaio
presa bat egin ezkerro.
- OLALDE Aizu, Iñazio, ezta kontuan
ondo pasa al zenuten?
Jakiteko amorratzen gaude,
ta hasi zerbait esaten.
- O. ALBERDI Hauek kalean bazkaldu zuten
baserritikan irtenda.
Dotore asko ibili ziran,
neuk ikusi nituen-da.
- OLALDE Beti bezela jarriko zuten
gogua eta arreta.
Esaiozu Karmeni etortzeko,
saludatzeko nago-ta.
- O. ALBERDI Karmen andrea lan kontuetan
ez degu izan biguna,
karga astuna izanagatik
ederki arintzen zuna.
- OLALDE Horrenbeste lan egingo zenun
ta orain hartu atsegin;
hamar ume mundura ekarri,
ta gero berriz lana egin.
- O. ALBERDI Dudarik gabe meritu danak
Karmenengana ingura;
ea gaur egun nork ekartze'itun
hamar bat seme mundura?

ERROTAZAR baserria 1994

- UZTAPIDE II Hasera on bat eman dezagun
 lehengo ohitura zaharrear,
 famili honi agur eginaz
 jardintxoaren aurrean.
- OLALDE Baserriz baserri hemen gabiltza
 inguru dana alaituz,
 ta hauxe bera egin nahi degu
 etxe hontantxe kantatuz.
- UZTAPIDE II Honi're zerbait esan nahi diot
 oso laguna det-eta;
 su epelean egon zerade
 ederki asko gordeta.
- OLALDE Edozein lekutan egoten da
 beti gordeta gauz ona.
 Begira nola atera zaigun
 itxurantzeko gizona.
- UZTAPIDE II Hizketan gozo egin digu ta
 irriparrea azkarra.
 Hamar txarrak baino hobea dek
 holako gizon bakarra.
- OLALDE Honek azaldu dun nortasuna
 nola jarriko det dudan?
 Hau bezain famosorik ez degu
 gure Liliko bailaran.

- UZTAPIDE II Beti bromatan ibilitzen zan
ta sekula ez haserrez.
Olalde, aitortu honen onduan
etzeratela ezer ez.
- OLALDE Hortikan inoiz ez da egiten,
behar du berezko hazia;
ta Errotazarkuak horretan
dute berezko grazia.
- UZTAPIDE II Nik garbi ikusita daukat
hemen gazteen jokoa;
zuk'e zerbait ikasia baina
honi ikasitakoa.
- OLALDE Arrantzuan da ehizean ere
gure Rikardo da abil;
Olaldeko erreka horretan
amorrairik bai al dabil?
- UZTAPIDE II Olaldeko errekaeren berri
hortxe doa segituan;
libratu eta berehalaxe
danak harrapau zituan.
- OLALDE Atzamarrean ta mingainean
gizonak baditu mainak,
garai batean egin bai zitun
Jesukristoren azainak.
- UZTAPIDE II Esan behar da ez geradela
honuntz etorri betiko.
Limosnagatik eskerrik asko,
nahi dezun arte, Aliko.

- N. ZENDOIA Jakingo dezu talde jator bat
gatozti santa eskera.
Aguro asko pasatu gera
ate batetik bestera.
- OLALDE Ezker-eskubi guk badakigu
gaurkoz bi ate dauzkala;
baina Isabelek azkar esan du:
Hau da ate printzipala.
- N. ZENDOIA Gure bertsuen kontu berdinak
orain aditu ditzala;
lan egin baino lehen ordaindu,
hau da andre zerbitzala.
- OLALDE Izan litake edukazioa,
edo litake kultura;
aurten bakarrik ez du egiten,
hau du betiko ohitura.
- N. ZENDOIA Heldu orduko hartuak gaitu
bere irripar bitxitan.
Era hontako kultura dago
gaur egun leku gutxitan.
- OLALDE Nahikua dala esaten digu,
beraz, joan zaitezte, motel!
Guk presarikan bate ez degu
ta lasai egon, Isabel.
- N. ZENDOIA Isabel, hobe izango dezu
gu lehenbaitlehen bialtzia,
eta gainera asma ezazu
ondo-ondo bizitzia.

OLALDE Jertsea ere jantzia dezu
nola ez bai dagon epel.
Eskerrik asko ta ondo-ondo
izan zaitezte, Isabel.

ERROTAZAR baserria 2002

OLALDE Beste urtetan bezela gaur'e
egin nahi degu bixita;
Ta bide batez jakin nahi degu
zer moduz zeaten bizi-ta.

M. AIERZA Kopla batzutan degu eskasa,
ta beste batzutan ona;
itxura txarrik ez dadukazu,
etxe hontako amona.

O. ALBERDI Gure amona koplatu behar,
borborka dauka odola.
Iduritzen zait lehengo urtean
baino ederrago dagola.

OLALDE Ileak piskat zuriak baina
alaia dauka kopeta,
kontserbau ere errez ohi da hau
berez polita da-eta.

M. AIERZA Ileak zuriak ditula ta
honek jo dio adarra,
baina hala ere politena da
berak duen irriparra.

- O. ALBERDI Ile txuria daukala eta
 hemen hainbeste endredo.
 Ederki disimulatutzen du
 tinta pixkat eman ezkeru.
- OLALDE Semeak hazi, gero ezin bizi,
 ama batentzat hau lana!
 Isabelek badu seme on bat
 etxetik kanpo daukana.
- M. AIERZA Juan Mari hori kartzelan dago
 ez genuen nahi sekula,
 baina seguru gure bertsoak
 handik entzungo ditula.
- O. ALBERDI Beraz, kartzelan sartua dute
 nik ez dakit zenbat urte.
 Festa galanta egingo degu
 laster soltatzen badute.
- OLALDE Gizarajua, preso hartuta
 eman zuten egun baten.
 Bertan denbora pasatzen baino
 errezagor da esaten.
- M. AIERZA Hura askatzeko egin behar da
 inundik ere ahalegin.
 Santa eskean hurrengo urtean
 izan dezagun gurekin.
- O. ALBERDI Bera hantxe nola egongo den
 barrote zahar atzetikan;
 zuk eskumuinak emaitzioru
 gu guzion partetikan.

- OLALDE Ez dakit dagon gizona ala
ez dakit dagon argala,
baina esaiizu noizean behinka
akordatutzen gerala.
- M. AIERZA Zuen Juan Marik izango du bai
laguntza onan beharrik,
baina zu ziur egon zaite hura
ez dagoela bakarrik.
- O. ALBERDI Amets egitea ere ona da,
Isabel, noiz ta batian.
Ia alkarrekin egoten geran
bada datorren urtian.

ERROTAZAR baserria 2005

- O. ALBERDI Harrera ona egin digula
hasi nahi esatetikan,
batzuek eskuzabalik eta
hemen atea irekirikan.
- OLALDE Eskuzabala bereztik danak
inon bildurrikan eztu,
beti bezela Isabel hemen
azaldu bai zaigu prestu.
- O. ALBERDI Isabel ere hor prestu asko
azaldu zaigun amona.
Aldaketarik ez digu egin
lehengo urtetikan hona.

- OLALDE Antzeman diot zer esan nahi zun
Oskar honek berehala:
Nahiz ta urteak aurrera joan
ondo kontserbatzen dala.
- O. ALBERDI Falta bat badu bihotzean da
bera ez da egon trankil;
baina, aizazu, jakin nahi nuke,
semea ondo al dabil?
- OLALDE Mutil gogorra da hura izatez,
gazterik nion antzeman.
Nere ustetan ondo izango da,
eta eskumuinak eman.
- O. ALBERDI Nahiz ta urruti egon da berak
barrun egiten dun sasta;
ze arraza oso gogorra degun
Errotazaharko kasta.
- OLALDE Dudarik gabe Juan Mari aipatu,
eta falta da Itziar.
Esan duenez etor liteke
bera gaur edo ta bihar.
- O. ALBERDI Laster batean etorriko da
ta izan nahi det goguan.
Eskuzabalik hartuko degu
iristen dan momentuan.
- OLALDE Seguru nago beren etxetan
pozez dirala lehertuko,
eta Juan Marik ere seguru
pozikan dula hartuko.

O. ALBERDI

Eguna ere aurrera doa
ta gu bertsoen peskizan;
nahikoa kopla kantatu degu;
agur eta ondo izan.



Santa eskaleak

UZTAPIDE II Hainbeste leku ezberdin bada
gaur saiotikan saiora;
oraingo hontan kanta dezagun
guk Liliberen leihora.

OLALDE Leihoak eta atea ere
daude sendo irekiak.
Estimatuak izango dira
onak badira guztiak.

UZTAPIDE II Esan nahi nuke hori nola dan
edo egia ez jakin;
hor ikusten da gaur konfiantza
badaukatela gurekin.

OLALDE Aipatzen ere zaharrenetik
noski, hasi beharko da.
Ez da ageri ta ondo al dabil
etxeko ama Bernarda?

UZTAPIDE II Ahal dan bezela eramateko
egina baita bizitza,
dagon lekutik entzun dezala
eskeintzen diogun hitza.

OLALDE Bertsolai bati kantatutzen
ez gera jardun askotan,
eta nik orain galdetzen diot
noiz ein behar dun bertsotan?

UZTAPIDE II Blusa mordo bat bada inguruan
nahi baldin badezu jakin;
bertsotan gaur bertan egingo degu,
etorri zaitez gurekin.

OLALDE Noski, barruan edukiko du
zamorrua edo arra,
abildadea dadukan harek
dauka azaldu beharra.

UZTAPIDE II Euskera asko maitatutzen du
eta bertsoa berezi;
zeu baino txarraguari entzuten
egoteik ez du merezi.

OLALDE Dudarik gabe Pellon bertsuak
beti izan dira gozuak;
dudik ez izan Lilibetarrak
ditugula jakintsuak.

UZTAPIDE II Batzuek asko jakiten dute
ta beste batzuek batez;
entzuten ere ondo dakite
hauek beste batzun partez.

LILIBEA baserria 1995

OLALDE Bernarda zana hil zitzaigun da
gabiltza triste antxian,
baina bertsorik ez leike falta
bertsolai baten etxian.

- N. ZENDOIA Etzaituztet nik ezagututzen
nolatan naizen berria;
nik bakarrikan gogoratzen det
Lilibe bertsolaria.
- OLALDE Dudarik gabe bertsolaria,
hau esatea aski da:
Lehen'e bazekin, oin'e badaki
ta oraindikan bizi da.
- N. ZENDOIA Garai batean gu alkarrekin
ibili izan ginan maiz.
Nik galdera hau luzatzen diat:
Zeharo alpertu al haiz?
- OLALDE Bertsotarako edaderikan
oraindik etzaio pasa.
Seguru nago jardungo dula
orain ere bere kasa.
- N. ZENDOIA Garai batean bioi begira
egoten zen jende dena,
eta gehienak esaten zuten
berau zala han onena.
- OLALDE Geran bezela azaldutzeko
inor ez gaitezen lotsa.
Garai batean hau ere genun
zuzena eta zorrotza.
- N. ZENDOIA Bertsoa genun geure aitzakia
haruntz ta honuntz pasion;
arraio honi lotsa pixkatek
galerazi izan zion.

- OLALDE Lilibetarrak beti izan dute
horretan hainbeste gradu;
honek badaki lotsa hori're
nun gorde eta azaldu.
- N. ZENDOIA Gauza guziak bolara bai du,
ta egin genuen alde;
hargatikantxe gure lekura
heldu zan Jesus Olalde.
- OLALDE Behin hazia botatzen badegu
landare dator ondoren,
eta ni ere hor hasi nintzan
denbora joan baino lehen.
- N. ZENDOIA Saio koxkor bat egina degu
hemen oker edo zuzen;
bera barrutik hasi baino lehen,
arren, ixildu gaitezen.

LILIBEA baserria 1997

- OLALDE Pello Lilibe bertsolarian
etxebizitza degu hau,
bere etxean kantatutzeak
pixka bat larritutzen nau.
- N. ZENDOIA Guk kantatzeko aukeratua
zan sukaldeko leihua;
ta ate zahar bat ireki digu,
hau dek Pello arraiua!

- OLALDE Animaliak zaindutzen ere
Pellok badu hainbeste lan da,
txakurra ixiltzera joan da
ixilik ezin egonda.
- N. ZENDOIA Bertsua errez moldatzen zuen
zeduzkan rima pilokin;
berezko bertsolaria da ta
kontuz ibili Pellokin
- P. LILIBE Garai batean horrelaxe zan,
nik hala nuen ustea;
ematea da librea eta
bestea berriz eskea.
- OLALDE Duda txiki bat daukat nerekin,
ta galdetu nahian nago:
Bakarka ala ofiziotan
nun zinaden gehiago?
- N. ZENDOIA Pello benetan azkarragua
nor banakako lanian,
ofiziotan zeharo txarra
ni alboan nintzanian.
- P. LILIBE Zer alderdia ote deguan
ofiziozko afanak;
alde haundirik ez du sumatzen
berez hartarako danak.
- OLALDE Eskuak ere izaten dira
ezkerra eta eskubi;
nahiz berdin izan gauz batzutako
batek baliotzen du bi.

- N. ZENDOIA Badaezpada ere hobe degu
guk utzitzea pakian.
Txakurra libre bialduko du,
lotuko gaiztik katian.
- P. LILIBE Olalde hola esan dit eta,
ez ahaztu esan duna,
ezker-eskubi berezik ez du
berez ezertxo ez dunak.
- OLALDE Neuk ere pixkat probatu nuen
ta bestengandik entzuna;
oraindik ere etzaio joan
lehen zuen zorroztasuna.
- N. ZENDOIA Lagun zahar honek ezkerria eta
eskubi ere baditu;
arraio honek egin zuena,
erdi-erdian gelditu.
- P. LILIBE Nere hutsegin edo ustia
kolpez ahal da azaldu;
beste batzuek bien bitarte
munduan zinatzen galdu.
- OLALDE Gaur izan degun txolarte hauze
etzaigu ahaztuko sekula;
nik pentsatzen det altxor txiki bat
berreskuratu degula.
- P. LILIBE Badakizute txertatu gabe
ez dala sortzen mizpira.
Ahalegin danak eginda ere
gure erdiak ez dira.

N. ZENDOIA Ez dakit hemen gaur egin degun
 asmatzea ala faillo.
 Barka agiguk gaizki esanak
 eta ondo bizi, Pello.

LILIBEA baserria 2000

OLALDE Bertso batzuek kanta ditzagun
 geure buru ta eztaariz,
 etxe honetan ez bedi geld
 inor bertsuen egarritz.

N. ZENDOIA Neska txiki bat leiho erdian
 begira daukagu guri;
 neronek hala pentsatutzen det,
 aingerutxo bat dirudi.

OLALDE Arrazoi dezu, hara Nikolas,
 polita degu benetan.
 Bere ama're ez da egongo
 hori izanan penetan.

N. ZENDOIA Nere buruan pentsamentuak
 nik baditut ibiliak.
 Lili etxeak merezi ditu
 hau bezelako liliak.

OLALDE Loreak eta liliak nunahi
 ez du ematen itsusi.
 Liliben ere holakorikan
 aspaldin ez nun ikusi.

- N. ZENDOIA Lehen esan degu, haur horrek ez du
edertasun paltikan;
ta zer gutxio itxaron leike
holako amagandikan?
- OLALDE Lore politak ez dira sortzen
mundu honetan nolanahi,
beraren ama polita degu
eta alaba ere bai.
- N. ZENDOIA Hemen loreak bota ta bota
ezingo gerade egon.
Hontaz aurrera jakin nahi nuke
Pello etxean al dagon?
- OLALDE Zuk ezaguna dezu Pello ta
zan bertsolari abila.
Aukeran hala nahiago degu,
eta azaldu dedilla.
- N. ZENDOIA Andre koxkor bat hartzeko ere
badaduzkak edadiak;
ezkon haizenik behipehin ez dik
ekarri egunkariak.
- OLALDE Ezkondu edo ta ez ezkondu
ikusi behar du bakoitzak.
Orain beretzat egin behar du
ta gero berriz birentzat.

- G. LOPETEGI Edukazioz arratsaldeon
ta has gaitezen lanean;
bertsorik ezin faltatuko da
bertsolarian etxean.
- M. TELLERIA Entzuna nago guri entzutea
asko gustatzen zaiola;
presarik gabe etorri gera
ta guri etzaigu ajola.
- G. LOPETEGI Kuadrilatxo bat Pellorengana
etorri gera seguru,
berak gustoko duen ohitura
mantenitzea helburu.
- M. TELLERIA Gustoko badu guri entzutea
zelatatuta atzeak,
bada ez bada zaindu itzatzu
etxeazpiko atea.
- G. LOPETEGI Gizakiaren presentzirikan
ez det, ez, somatzen hortik;
gu ateari kantuan eta
bera begira leihotik.
- M. TELLERIA Lasai segitu, aterako da
berandu edo lehenago;
hemen jarrai dezagun kantari
bera entzuten badago.
- G. LOPETEGI Hara, gizonak pentsa badula
hainbeste borondatea,
eta gutxina uste denean
irekiko du atea.

- M. TELLERIA Ateratzea ondo egin dezu,
Pello degu iragarri;
ta kopla gehio nahi badituzu
gauean Arrate jarri.
- G. LOPETEGI Pello Lilibe, Pako Illurdan
Ziolar edo Laxaro,
gaur egunean zuek hainako
bertsolaririk ez dago.
- M. TELLERIA Arrazoi dezu, Mutriku aldean
gu ibiliak gerade;
limosnarikan ez dute ematen
ordu erdi kantatu gabe.
- G. LOPETEGI Mutrikun hala izanagatik
Pello ez degu holaxe,
limosna ere bota ez du, ba,
atera irten da belaxe.
- M. TELLERIA Jakin badakit eman digula
atera ta berehala;
failo bakarra ateratzea
ordu erdi pasa dala
- G. LOPETEGI Eskerrik asko, Pello, guztia
utzi beharko da hemen;
aldein dezagun hau hemendikan
bertsotan hasi baino lehen.

PALAZIO LILI baserria 1979

- N. ZENDOIA Ai, Rosario, arratsaldeon;
pasatu zaigu urtea.
Berriro ere aguro asko
zabal diguzu atea.
- OLALDE Guri agurra egin digu ta
joan zaigu epelera,
sasoia ere izaten bai da
zainduaren arabera.
- N. ZENDOIA Hara laguna, Rosariori
eziok egin imurtzi;
atea zabaltzearekin ere
ez bai digu egin gutxi.
- OLALDE Ez zazu hartu haserretuak
elkarrekin gauden antza;
gu auzoak ginaden lehen ere,
bada hainbat konfiantza.
- N. ZENDOIA Gaur Rosariok borondatetsu
luzatu digu eskua;
denak horrela eman balute
beteko genun zakua.
- OLALDE Guri horrelaxe hitz egiten
nola ziguten erakutsi,
esatekoa baldin bada hori
esan gabe zertan utzi?

N. ZENDOIA Ez det pentsatzen gezurra danik
 zuk lehenago esanikan;
 gaurko gazteak ez du beteko
 lehengo amonen markikan.

OLALDE Lehen familia izaten genun
 oso neurri haundikua;
 gaur pare bat, edo gehien hiru,
 ta beraiekin nahikua.

N. ZENDOIA Lehenago lana egiten zuten
 ta jolasteko denbora;
 gutxienekeo sortzen zituzten
 zortzi-hamarretik gora.

OLALDE Meritu haundiak dituzte eta
 ezer ez daukate txarrik,
 baina denbora etzuten pasatzen
 hauek lanean bakarrik.

N. ZENDOIA Nik aitortzen det hauek langile
 borrokatsuak zirela;
 uste al dezu hauek gu baino
 tontuaguak zirela?

PALAZIO LILI baserria 2000

N. ZENDOIA Ez dakit asmatuko degun guk
 geure obligaziotan.
 Guk bakarrikan kantatzen degu
 holako Palaziotan.

- OLALDE Hala uste det, itxura txarrik
nola ez diotan ematen,
jakin nahi nuke etxe honetan
danok ondo al zeraten?
- N. ZENDOIA Etxe hauek ere eginak dira
aiton garai hartakuak;
leiho-arteko ateak eta
hormak metro batekuak.
- OLALDE Pentsatutzen det oraingo hontan
ondo izango naizela;
historirako geldituko da
monumentu bat bezela.
- N. ZENDOIA Beraz, aztertu beharko dira
kantuz gure momentuak.
Euskal Herrian ez daude asko
holako monumentuak.
- OLALDE Paretak eta onduak ere
izango ditu lerdanak.
Atentziua jartzen bai die
aurrez ikusten dutenak.
- N. ZENDOIA Zuk esan dezun lur-zoru horrek
okerrik izan ezkerro,
ni arotz txarra ez naiz oso ta
deitu behartu ezkerro.
- OLALDE Etxekoak'e aipatutzea
komeni zaigu ahal dala.
Rosario're ondo ikusten det
eta poztutzen gerala.

- N. ZENDOIA Amona Rosario ikusten
gu ez gerade aspertzen.
Gu zahartzen ari gerade ta
bera ari da gaztetzen.
- OLALDE Hemen hotz dago ta hor egongo da
su epelaren onduan;
ta mejoratzen ari da hori
ardo zaharraren moduan.
- N. ZENDOIA Ez da zalantzik hor Rosariok
edukiko dula bero,
disimuluan bere semea
utzi bai digu portero.

PALAZIO LILI baserria 2002

- OLALDE Orduak ere aurrera doaz
eta iluna zintzilik,
hala ta guziz ate ondoan
nolatan egon ixilik?
- O. ALBERDI Denen gustua egiten ere
ez da izaten erreza;
kanpora irten, berriro sartu
Palazioko markesa.
- M. AIERZA Palazioko markesa ere
hementxe dago umila;
hor barrurantz joana zaigu
lehen diruaren bila.

- OLALDE Markesa edo dukesa ez dakit,
Rosaio du izena,
itxura orain'e txukuna eta
oso ondo dabilena.
- O. ALBERDI Nahiz da berriak ez dun izaten
zaharraren goxotasunik,
etxe berria eitten dabilta
eta ez dute kuidorik.
- M. AIERZA Etxe berria ere egiten
ari omen dira hortik,
baina zahar hau izanda ez da
berrian inbiriarik
- OLALDE Etxe haundia da Palazio,
dauka balore haundia;
hau historiantzako izango da
eta hauentzat berria.
- O. ALBERDI Etxe haundia eta bikaina,
hori ezin degu uka;
zuen etxea geldituko da
museo bilakatuta.
- M. AIERZA Palazio hau dudarik ez da
ez dagola itsusia,
baina museo izandakoan
izango da zer ikusia
- OLALDE Palaziuan bizi dan batek
bizitzea du normala;
zaharra ona da eta berria
ere seguru hala dala.

- O. ALBERDI Museorako bihurtu baietz
etxe honen irudiak,
Palazio zer dan ikas dezaten
Donostin kaleumiak.
- M. AIERZA Laster museo bihurtuko da
ta ziur oso polita.
Inguraturik izango du, bai,
ez dakit zenbat bisita.
- OLALDE Palaziua beti izan da
ta izena du Lili;
garai batean Kondesa ere
hemen omen zan ibili.
- O. ALBERDI Buka dezagun gure saioa
amaiera bat emanda,
nola Olalden zai eukiko deun
ohizkoa den merienda.

PALAZIO LILI baserria 2007

- UZTAPIDE II Bistan gelditu ohi da sarritan
egiten dan aziua;
ikusitzen bait da hauxe dala
benetan Palaziua.
- G. LOPETEGI Palaziua harriz egin da
nola egoten dan, jakina,
eta hau ere nik ikusten det
dagola harriz egina.

- UZTAPIDE II Esan beharra daukagu hemen
sarri pentsatzen egona.
Lehendabiziko jakin nahi nuke:
Zer moduz dabil amona?
- G. LOPETEGI Amona beti su epelean
egongo da goxo-goxo;
eta seguru etxe aldian
egongo dala eroso.
- UZTAPIDE II Onduan dagon bati ere nik
pasa nahi nioke hitza;
gazte kontserbatutzen zera ta,
aizu, zer moduz zabilta?
- G. LOPETEGI Honek lana fin egingo bai du
goiz, gauerdia eta aste;
ta elegante ikusitzen det
ta oraindik oso gazte
- UZTAPIDE II Nik esango det hori zergatik
izaten dan berehala.
Hor ikusten da zeure denboran
oso ondo izan zerala.
- G. LOPETEGI Kuadrila pozikan dagonean
dana izaten da laburra.
Eskerrik asko harreragatik,
egin behar da agurra.

- M. TELLERIA Entrenamendu danak eginda
gabiltza sasoi betean;
oso gustora kantatu ohi degu
horrelako estalpean.
- G. LOPETEGI Ilunpetikan argira eta
argitikan ilunpera,
ate ondora etorri eta
kantuan hasiko gera.
- M. TELLERIA Kezkati zegon poltsero jauna
inor etzala etxean,
haruntz-honuntza hortxe zebilen
hori're larri antxean.
- G. LOPETEGI Bistatu zaigu nagusi jauna
irriparrez eta alai;
ate atzean gordeta zegon
gure bertso kantuen zai.
- M. TELLERIA Dotore xamar jantzita dago,
dotore ate ondoko buelta,
lan gabe eta nekatu gabe
ez da egiten txaleta.
- G. LOPETEGI Baina holako etxe ederrik
ez da ikusten egunero,
hau're hobeto bizi liteke
andrea bilau ezkeror.
- M. TELLERIA Gazte kuadrila hemen gurekin
nola dabilen kantuan,
hemen bizi nahi omen luteke
helduak izandakuan.

G. LOPETEGI Arrazoi dezu, teilape hontan
badago nahiko lekua,
norbaitentzako ein beharko du
honek'e testamentua.

M. TELLERIA Aizu, nagusi, koplari honek
jada eman du abisu,
testigutza nik emango nuke
berak ematen badizu.

G. LOPETEGI Zeinentzako den seguruenik
izango'u kalkulatuta,
beste mundura ez bai da jungo
hau bizkarrean hartuta.

M. TELLERIA Arrazoi dezu, nahiz gauza asko
dauzkan aldatzen hasita,
ta bizkarrean emango dute
txaleta hemen utzita.

- OLALDE Lehengoa genun Palazio ta
hau berriz degu Olalde.
Izenarekin konparatuta
badago hainbeste alde.
- UZTAPIDE II Hileta jotzen etzaitetz hasi
lehendabizi etxean;
mereziko dute hauek eta
porta dexente antzean.
- OLALDE Goitikan behera bagatozela
aipa beharko det ama;
hori ere amona egin zan,
beraz, ez da gaurko dama.
- UZTAPIDE II Baten bila joan zera eta
bestea zertako galdu?
Horren senarra aittatta izanik
meritu gutxio al du?
- OLALDE Aita Migel'e hortxe daukagu,
eta aitona bapua,
arraio hori ere nola dan
apetitu onekua.
- UZTAPIDE II Zuk alde egiten zenuen eta
zuri ezin ba agindu.
Egia esan behar bada zuk
baino lan gehio egin du

OLALDE
.....
.....
.....

UZTAPIDE II Ezin liteke deskuidatuta
gizonaren kontra irten.
Jakin dedanez hamaika arkume
bixki izan dira aurten.

OLALDE Arkume bixki kontuen berri
galde beharko Felixi,
hori bai degu etxe hontako
etorkizunan nagusi.

UZTAPIDE II Lehenago esan zein txukun dagon
gaur Olaldeko kaiola;
iduritzen zait aitaren martxai
ondo segitu diola.

OLALDE Aurpegi serio xamarra kin
ikusi ohi det batzutan,
baina puska bat aldatzen zaio
larunbat eta jaietan.

OLALDE baserria 1995

OLALDE Santa eskeak kanta lekuak
nola ez diran gutxi ta,
neu jaio nintzan lekura ere
egina degu bisita.

- N. ZENDOIA Zuk esan gabe hemengo zera
hori banekien lehendik;
ez dakit nola arraio alde
egin zenuen hemendik.
- OLALDE Esan bezela garai batean
hemendikan nintzan juan,
danentzako lekurik etzegon
etxean edo kanpuan.
- N. ZENDOIA Bertso horretan arrazoirikan,
Jesus, nik ez det ikusten.
Zuk alde egin zenula baina
bialdu egingo zinduten...
- OLALDE Hori entzunda jarria nauzu
oraintxe kezka beteta;
baina ez da horrela izango
ondo hartutzen naute-ta.
- N. ZENDOIA Baina sendiak lasai gelditu,
zu bialdurikan bapo,
baina etxean hartzen zaituzte
etxekoa zeralako.
- OLALDE Hara, Nikolas, ez zaidazu jo
gaurko hontan adarrikan,
edo hartutzen ote naute ba
konpromisoz bakarrikan?
- N. ZENDOIA Begira, Jesus, etzaidazula
aurrean jarri aitzakik.
Amari galde egingo diot
eta harek esango dit.

- N. ZENDOIA Santa eskean arratsalde
hortxe daramagu kanpon;
etxe honetan bizi diranai
lehenengo arratsaldeon.
- OLALDE Hemen guziak jakinagatik
hauxe degula Olalde,
hemengoa naiz ta nahi dezuna
galde ezazu bestalde.
- N. ZENDOIA Etxekoari entzuteak'e
inoiz sortutzen dit lotsa;
baina urtean behin entzunakin
poztu izan det bihotza.
- OLALDE Ez dirade berak atrebitzen
eskatutzea mesedez;
lehen zertxobait banintzan ere
orain berriz ezer ere ez.
- N. ZENDOIA Oraintxe ere botea digu
holako bertso mardula;
bertsolaria ez haizenikan
ez higuk esan sekula.
- OLALDE Astean kolpe nagia eta
errespuesta txit motela,
han bazterrean zintzilik dagon
sega erdoitua bezela.
- N. ZENDOIA Zestua aldean santa eskean
horrendeste urte bapo,
eta ez didate dei egingo
herrikoa aizelako.

OLALDE Ni Olalden da hau Urdanetan,
alde pixka bat badago;
lizar makila bezela naiz ni
hau baino askoz motelago.

N. ZENDOIA Era honetan jarraitutzean
igual gera galduko ta
neroni noa ixildutzero
hau ez da ixilduko-ta.

OLALDE baserria 2006

O. ALBERDI Urtero bezela Olalden ere
oso harrera aparta;
ohitura ere hala dute ta
ez da jatekorik falta.

OLALDE Dudarik gabe bromarik ez da
daramakigun neguan;
kanpuan hotz egiten du eta
kanta dezagun barruan.

O. ALBERDI Barka zazute, agian, gure
maila ematen deguna;
goizetik hasi gera kantuan
ta luze doa eguna.

OLALDE Leku guzitan nahi genun eman
santa eskalearen berri;
azkenerako gaurko honetan
berandu gera etorri.

- O. ALBERDI Orain gogotsu jardun gaitezen
ta gogotik bertso kanta,
aurten Olalden izango baita
gure azkeneko txanpa.
- OLALDE Esan bezela azkenerako
iluna zaigu gailendu;
modu horretan kantatutzeak
tristura ere ematen du.
- O. ALBERDI Aukera ona iruditzen zait
orain zera esatea:
Josu, zuk aurten izango dezu
zure azkenengo urtea.
- OLALDE Berandu baino lehen uztea hobe
ez al da izaten askotan?
Lehen ere gehitxo nuen kantatu
ondo ez egitekotan.
- O. ALBERDI Basarri-atari edo kalean
beti bertsoen borrokan,
urte ugari daramazkizu
santa eskean bertsotan.
- OLALDE Hasi nintzala, egia esan,
urte batzuek badira;
ta orain berriz lehengo gisara
besteok eman segira.
- O. ALBERDI Urte askoan eraman dezu
santa eskeko pixua,
baina ederki moldatzen gera
ikaslea ta maixua.

OLALDE Batzutan ondo, bestetan gaizki,
hankasartzeak egin maiz;
hala ere aterikan ate
beti pozik ibili naiz.

O. ALBERDI Umorez alai, burutik alai,
kantakera egokia.
Ea orain nork hartzen duan ba
zuk utzitako tokia.

OLALDE Azkenerako beratu egin naiz,
ez al da egia, Jainkua?
Denontzat hobe ixildutzea,
gaurkoz badegu nahikua.

OLALDE baserria 2011

M. TELLERIA Lehen mendiz-mendi ibili gera,
orain erreka-erreak,
baina gugatik berdintsu zaio
horretarako gaude-ta.

G. LOPETEGI Hor goitik ondo ikusten al da
gure kuadrilaren planta,
etxe honetan ez al dezute
morroi alperrikan falta?

M. TELLERIA Aizu gaztea, esan dezuna
ez gendun arrazoi fina,
nagusi jauna daukagu hemen
lana ugari egina.

- G. LOPETEGI Hauek dakite nola kantatu
ta dakite nola entzun;
ai, Telleria, Olalde hontan
ea zer esaten dezun.
- M. TELLERIA Jesus Iribar Olaldekoa
garai batean entzuna,
gazte ginela gurekin bertso
ederrik kantatzen zuna.
- G. LOPETEGI Urte askoan Jesusek zuen
kopla kantuan pisua,
ta hura izan da gaur eguneko
gazte askoren maisua.
- M TELLERIA Gazte ginela herri askotan
elkarren aldamenean;
bertso lanari utzi zion hark
gerente egin zanean.
- G. LOPETEGI Hainbeste urtez aritutzeak
meritua du izanik,
sasoian uzten jakin behar du
berandu izan aurretik.
- M. TELLERIA Guk oraindikan segitzen degu
nahiz ta gazterikan ekin,
jubilatzeke ondo nagola
esan nahi zendun horrekin.
- G. LOPETEGI Orain erretiro asuntua
zuk aipatua dezu fin,
hiruroita zazpi urte ein arte
horrelakorik ez egin.

M. TELLERIA Jantzi txapela, bruxa haundia
eta gazte batzuekin,
firmatu leike hola ibiltzea
hiruroita zazpirekin.

G. LOPETEGI Hiruroita zazpi urterekin zuk
izan nahi al dezu prenda?
Sasoia bera etorri ohi da
eta bera joaten da.

M. TELLERIA Hiruroita zazpi urtekin nola
eongo naizen propaganda,
zuk nola esplika zenzake hori
horren gaztea izanda?

G. LOPETEGI Beraz, hementxe utzi dezagun,
ez deu bukako bestela;
biok goseak, taldea berdin,
denoi on egin daigula.



B. Zuzuarregi taldekidea

- OLALDE Zubimusura iritsi gera,
baserri ta kale mugan;
ditugun danak eman ditzagun
ez gaitezen egon dudan.
- UZTAPIDE II Abildadea badakizute
ez dela saltzen pixura,
baina ahalegin egite hori
bai degu lanan itxura.
- OLALDE Garaia etortzen zaigunean
egin behar zirt edo zart!
Ta leku bereziak ohi dira,
hau degu horietako bat.
- UZTAPIDE II Neu ere hortaz ohartua naiz
zuk hori esan da laste.
Ahalegin dena egin daiogun
nahiz ez egin nahi hainbeste.
- OLALDE Leku batean bakarrikan gaur
ezin gindezke exeri.
bakar bat edo beste kantatu
behar diogu Joxeri.
- UZTAPIDE II Beti izan da lagun artean
umore onen jabea,
eta hau ere ez da gaurkoa
bertsoik merezi gabea.

OLALDE Gure Joxe hau zaletua da
ehiz-kontu horren munduan.
Galdetzen diot aurtengo hontan
oilagorrik bota al duan?

UZTAPIDE II Tiroak zuzen botatzen ditu
erbian eta txorian.
Jaki goxoa ugari aurten
jasota dute Sorian.

ZUBIMUSU baserria 2001

OLALDE Etxe honetan kantatutzeko
motibuak dira hainbat.
Lehendabiziko eskeintzen diet
arratsaldeon bero bat

O. ALBERDI Nahiz eguna nola dijoan
gaurkoa nahiko astuna,
zuei bioi galdetuko'izuet:
Zer moduz doa eguna?

N. ZENDOIA Egun ederra daramakigu,
trankila eta goxua.
Hontaz aurrera zuen anai dan
Jabier degu maixua.

OLALDE Santa eskaletan gure kuadrilan
Jabier degu zaharrena;
barka, besteak gaur guk berari
kanta beharko aurrena.

O. ALBERDI Jabier gaur zaharrena degula
ezin beharko da uka;
gurekin gustora asko dabil hau
koloriak gorrituta.

N. ZENDOIA Hau bezelako maixu jatorrak
ez dira izaten nunahi.
Baina lehenengo kanta deiogun
gutxien merezi dunai.

OLALDE Gu koplariak hola gabiltza,
ezagutzen gaitu ederki.
Entzun ez ezik honek batzutan
botatzen ere badaki.

O. ALBERDI Egun osoan gurekin dabil
eta zer erremedio?
nahiz nekatuta egon makilai
oraindik trinko heltzen dio.

N ZENDOIA Alde batera utzi dezagun
Jabier honen epela,
hor dagon anai pareja hori
hasarretuko da bestela.

OLALDE Bitoriano aipatu nahi det,
ni beregana nijua,
nahiz esan didan katarruakin
dagola sasoi bajuau.

O. ALBERDI Gustora asko jaiki ohi dira
hauek eunero goizean.
Pare abila aurreko hauxe
arrantzuan da ehizean.

- N. ZENDOIA Erremedio emango dizut
eta ez da garestia:
Lotarakuan hartu ezazu
aspirina ta ezta.
- OLALDE Zorionak ere eman behar,
biloba izan berria;
eta horretxek sendatuko du
izanik maitagarria.
- O. ALBERDI Biloba izan dutela ere
gaur geratu da garbia.
Haretxek ekarriko digu, bai,
Zubimusura argia.
- N. ZENDOIA Biloba hori ez da negarti
ta diotenez ixila,
osasuntsua eta sorteduna
bizitza izan dedila.

ZUBIMUSU baserria 2002

- O. ALBERDI Nahiz eguerdian eman diogun
guk lanari hasera,
Zubimusura iritsi gera
ilunarekin batera.
- M. AIERZA Ume polit bat ageria da
bere amaren besotan;
joan aurretik jarriko degu
bera oraindik bertsotan.

- OLALDE Etorri eta bost lagun bertan
etxeko ate aurrian.
Saio polit bat egin dezagun
tokatutzen dan neurrian.
- O. ALBERDI Bere amatzok ume bikaina
bere eskutan hartuta.
Bere aitaren antza're badu,
baina amana badauka.
- M. AIERZA Umeari gaur ikusten zaio
oso gustora dagola,
eta bertsotan egin nahi badu
badago bertso-eskola.
- OLALDE Aitaren antza dauka umeak,
halare pozik Mirentxu.
Amarengandik etorriko zan
ta azkenean igualtsu.
- O. ALBERDI Bitorianok oraindik badu
sasoia eta indarra;
Mirentxurendik aterea da
Bitorianon adarra.
- AIERZA Mirentxuren ume honek badauka
oraintxe poz ugaria.
Hainbeste salto egin ezkerro
izango da dantzaria.
- OLALDE Besteak beste Bitoriano
degu etxeko zuhaitza;
horrek badaki zein gogorra dan
mundu hontako bizitza.

- OLALDE Bi ezagun zahar, bi-hiru gazte
Zubimusuko atean;
bertsozaleak dira ta, Oskar,
ondo portatu gaitean.
- O. ALBERDI Jende askorik ez gera bildu,
lehen kuadrila galanta.
Jabier ere jubilatu zan
baina bada bere falta.
- OLALDE Jabier jauna ibili ohi zan
beti postura jakinan,
ta afaritarako garaian
primeran konpontzen ginan
- O. ALBERDI Hau aspaldiko ohitura degu
ta urte askotan jardun.
Berak bakarrik jakingo ditu
zenbat urte pasa ditun.
- OLALDE Joxepa ere agertu zaigu
ta hauxe esan dezaket:
Beraren berri ez dakit baina
nik oso ondo ikusten det.
- O. ALBERDI Beste urtetan zeukan itxura
oraindik daukat gogotan.
Zein elegante kontserbatzen dan,
segi hola urte askotan.
- OLALDE Beti izan ditu, ai, lanerako
hanka ta esku bizkorrak;
ta orain berriz lagundutzeko
dauzka alaba jatorrak.

- O. ALBERDI Oraindik behintzat nahikoa ondo
omen dauka osasuna;
noski, bilobak ematen dio
bizitzako alaitasuna.
- OLALDE Ez dakit baina ez det sumatzen
Bitorianon berririk;
gauza arrarua, gure laguna
ez da egongo ba gaixorik?
- O.ALBERDI Nahiago nuke ate ondoan
ikusi ezkeru aukeran;
baina halare gure partetik
behintzat eskumuinak eman.
- OLALDE Esango zuan: Bertsolaietaz
nik egin diat nahikua.
Kontuz ibili, etxe honetan
oindik bera da jainkua.
- O. ALBERDI Ibai onduan iaiua da ta
ez da esan besterikan;
hamaika amorrai harrapatu du
honek ixil-ixilikan.
- OLALDE Garai bateko emakumeak
egin zuten hainbat gauza on;
zer lekuetan bila litezke
horrelako hiru gizon?
- O. ALBERDI Hiru bat gizon atera dira
bere txapel eta guzti;
umoreari eusten diote,
ta hori ez dago gaizki.

ONDARBASO baserria 2006

- O. ALBERDI Egun on denoi, hementxe gatoz
santa eskeko taldea,
aurten ez al da gu gatozela
lehendabiziko aldia?
- OLALDE Dion bezela nik ere aurrez,
egun on bana danari
haize fina alboan degula
hasi gaitezen kantari.
- O. ALBERDI Ikusten da, bai, Ondarbaso hau
mendi aldean degula.
Baina uste det Antoniok ere
kalea gustoko dula.
- OLALDE Ondarbaso hau Izarraizpeko
oin berean aurkitzen da;
ta aspertzen danean Antonio
kale aldera joaten da.
- O. ALBERDI Joxe Ramon'e hortxe daukagu
irripartsu bai tarteko.
Gazte-indarra behar delako
baserriari eusteko.
- OLALDE Antonio da nagusi jauna
ta Joxe Ramon semea,
eta guzien landarea da
aurrean duten umea.

- O. ALBERDI Horrek astindu baietz Ernio,
Izarraitz eta Agiro!
Perretxikutan hasten danean
ez degu izango giro.
- OLALDE Ohitura zaharrai jarraitu behar
ikasi duan klasean.
Seguru asko ibiliko da
perretxikutan ta ehizean
- O. ALBERDI Antonioren andreak ere,
hamaikatxo lan eginak.
Isabel ez det ikusten eta
nere partez eskumuinak.
- OLALDE Aspaldin ez det ikusi eta
eskumuinak, ba, Isabel.
Hemen haizea hotza dago ta
barrun egongo da epel.

ONDARBASO baserria 2009

- O. ALBERDI Ondarbasora etorri gera
kopla eta soinu batez;
baina saioa hasi nahi nuke
zuri egun on emanez.
- G. LOPETEGI Itxura oneko bistatu zaigu
nahiz ta makilari bultza;
euzkiak ere epeltzen gaitu
ta eskertzen da laguntza.

- O. ALBERDI Galderatxo bat ere badaukat,
Antonio, aizu, aizu:
Ederki zaude zu hemen baina
andrea nun utzi dezu?
- G. LOPETEGI Isabel ere ate ondora
irtetzea degu nahio,
baina sukaldean gosaria
preparatzen ari zaio.
- O. ALBERDI Tarte txiki bat hartu, Maixabel,
gure koplak entzuteko;
gero're nahiko asti badezu
bazkaria prestatzeko.
- G. LOPETEGI Maixabel ere itxura oneko,
kolore oneko azala;
nahiz ta urteak pasa zaizkion
pentsa gaztetu ein dala.
- O. ALBERDI Elurra eta txingor zaparrak,
edo hainbat haize eraso;
hauengatikan oraindik zutik
aurkitzen da Ondarbaso.
- G. LOPETEGI Arrazoi dezu, hemen izango da
behin da berriz'e elurra;
izan beharko'ute nahiko jateko
eta nahikua egurra.
- O. ALBERDI Ardiak ere hor goi aldean
ibiltzen dira serio;
hemendik txistu jotzen die ta
etxera etortzen zaizkio.

G. LOPETEGI

Agur, bagoaz beste batera,
behar zaituztegu utzi.
Eskerrik asko guztiagatik,
agur ta sasoiai eutsi.



Koplak entzuten

IDOIETA (Iruitta) baserria 2009

- G.LOPETEGI Oles ta oles, hasi gaitezen,
 etxe hau ere koplatuz,
 baina lehenbizi Iruittatarrei
 egun on bana opatuz.
- O. ALBERDI Egun on ere esan beharko
 orain esate aldera;
 lehen lanera etorri naiz ni,
 ta orain adarra jotzera.
- G. LOPATEGI Nahikua genun harreratxo bat,
 lasaia eta xumea;
 nabari zaio enpresaioa
 daukala honek semea.
- O. ALBERDI Lanean ere.....
 Iñigo eta ni lasai,
 baina gaurkoan egingo degu
 berak lana eta nik jai.
- G. LOPETEGI Iñigo ere hortxe daukagu,
 aldamenean Gillermo;
 eta atera irtena zaigu
 elegante ta moderno.
- O. ALBERDI Zapatak eta galtza bakero,
 ta txamarrarekin ginda.
 Ze elegante ipini zaigun
 gu gatozela jakin da.

- G.LOPETEGI Egun on zuri, hasi nahi degu,
dotore eta moderno.
Ate atzean babestu zaigu
badaezpadare Gillermo.
- O. ALBERDI Honek badauka itxura ona
eta hizketan grazia;
orain badaki ze ederra den
jubilatuen bizia.
- G. LOPETEGI Hemen poliki esaten da ta
Bizkai aldean astiro.
Ez det ikusten, lanean al da
zure sozio Iñigo?
- O. ALBERDI Ezkondu eta ume haztea
gazteak daukagun moda.
Aita izan berri degu Iñigo,
lanpetuta ibiliko da.
- G. LOPETEGI Beraz ezkondu ta lana bada
bateko eta besteko;
ejenplo ona, Oskar, zuretzat
zuk zerorrek egiteko.
- O. ALBERDI Martxa horretan gazteok ezin
urte askotan jarraitu.
Behin eraztuna sartu ezker
kate motzak lotzen gaitu.
- G LOPETEGI Enkargatzeko karta idatzi,
Parisa bialdu, aizu,
Uste ez danean zikoinak hegan
igual ekarriko dizu.

- O. ALBERDI Beraz zikonai karta idatzi
beharko diot kolpetik,
baina osabak tiroz botako'u
honera heldu aurretik.
- G. LOPETEGI Baina ez dauka zikonak, noski,
nahiko etorri beharra;
orain Markinan eman behar du
daukan enkargu bakarra.
- O. ALBERDI Amaitu ere egin beharko,
bagoaz beste batera.
Eskerrik asko guztiagatik;
bihar ikusiko gera



G. Lopetegi koplaria

- OLALDE Lehenengo aldiz nolatan danez
etortzen gera, hain zuzen;
Limosna eske hasi baino lehen
kantuan hasi gaitezen.
- O. ALBERDI Zuei umore piskat jartzea
bakarrikan det desio.
Nun demontretan sartu zerate,
Xabier eta Iñaxio?
- OLALDE Baserri baten eginkizuna
sarri ugari da sortzen.
Baldin lanean ez baditugu
egongo dira gosaltzen.
- O. ALBERDI Orantxe bertan ireki digu
gure lagunak atia.
Lau minututan hartu ezazu,
lanai uzteko tartia.
- OLALDE Agurtu behar det gizon hauxe
nere oniritziz kantuz.
Aspaldin etzaitut ikusi ta
Iñaxio, ba, zer moduz?
- O. ALBERDI Bizi guztian eduki dezu
zuk lan egiteko beta,
diru mordo bat izango dezu
ez dezu gastatzen-eta.

OLALDE Esaten digu orain gehiago
ez aritzeko kantari,
eta bagoaz, ta eskumuinak
zure ama Julianari.

SAN BIZENTE baserria 2009

- O. ALBERDI San Bizentera aurtengo hontan
nola ez gu etorriko?
Baina kantuan hasi aurretik,
egun on lehendabiziko.
- G. LOPETEGI Etxekoandre zaletasuna
ikusi eta burura.
Beitu hutsakin somatzen zaio
langile finan itxura.
- O ALBERDI Ta Itziarrek prestatu ohi du
hortan zenbat ilusio,
bestela zeinek gobernau hemen
Jabier eta Iñaxio?
- G. LOPETEGI Jabier eta Iñaxio're
hor dabilta nunbaitian;
paraje onean bizi zerate
gainera pake-pakian.
- O. ALBERDI Bi anai hoiek lana egiten
ibiltzen dira jo ta ke.
Gaur eguneko baserritarrak
oporrikan ez daukate.

- G. LOPETEGI Somatutzen det, andrea dago,
argazki kamararen zai;
itxura danez ez bai du honek
gero gukin azaldu nahi.
- O. ALBERDI Gaur argazkian gaizki azaltzerik
ez dezu bada usteko?
Foto show bare egingo dute
guapa-guapa azaltzeko.
- G. LOPETEGI Arrazoitxo bat, aizu laguna,
nago aitatu beharrik;
Foto show-parik ez du beharrik,
guapa atera bakarrik.



Koplariak serio

ERLATEGI (Martija) baserria 2006

- O. ALBERDI Egun on esan eta kantari,
hasi gaitezen lanean.
Aze baserri polita dagon
Izarraitzen magalean!
- OLALDE Aurtengo hontan hasi gerade
leku berriaren bila,
lehenengo aldia honuntzako hau,
azkena izan ez dedila.
- O. ALBERDI Lehentxeago argitu'idate
lehen duda bat nuen da:
Oni *Martija* deitzen genion,
baina Erlategi omen da.
- OLALDE Horrela da, bai, aurretik ere
gauz hori nengon jakinda.
Leku polita, begi bistan da
politagoa ezinda.
- O. ALBERDI Baserri ederra eta haundia,
lekua ere nahikoa;
baserri hontan hazia bai da
fameli haundi askoa.
- OLALDE Lana eginak ekartzen ditu
ondorenean etekinak;
horrelaxe egingo bai zuten,
Joxe eta Saturninak.

- O. ALBERDI Ikasle garai hartan emanak
Begoñarekin pausoak;
bere ahotik ikasi nitun
lehendabiziko bertsoak
- OLALDE Bertsozalea gendun lehen ere,
hau esan beharrean nago;
oso polita zen lehen ere ta
orain ere hala dago.
- O. ALBERDI Bertso ikasten aritzen ginan,
bera eta ni lekuko;
urte ugari pasa da baina,
inoiz etzaizkit ahaztuko.
- OLALDE Une gozo bat pasatu degu
Martijatarren gerizan;
eskerrik asko harreragatik,
agur eta ondo izan.

ERLATEGI (Martija) baserria 2009

- O. ALBERDI Ondarbasotik abitu eta
orain Martija aldera,
hemen daukagun Nikolas honi
bixita bat egitera.
- G. LOPETEGI Adar piska bat joko diogu
nahiz ta hurrengua broma;
leku gutxitan bilatutzen da
gisa hontako gizona.

- O. ALBERDI Bizimodua ona damaki,
ez da hasiko kejatzen;
nahiz ta kalera sarritan joan
neskarik ez du ekartzen.
- G. LOPETEGI Baina kontu hori ez da garaia
esplikatutzen hasteko.
Mutilzahar ere Nikolas dago
nahiko itxura oneko.
- O. ALBERDI Oraindik ere ikusten zaio
sasoia eta indarra;
Nikolas honek arditegia
du afizio bakarra.
- G. LOPETEGI Beraz Erlategi du izena,
neretzako da gehiegi;
zuk arditegi esan dezu ta
hor jartzen du Erlategi.
- O. Alberdi Beraz Erlategi du izena,
nik Martija uste nun-da;
barkatu, Gari, baina egunero
hemen zerbait ikasten da.

ETORRAZAR baserria 2006

- OLALDE Behar bezela kantatutzeko
Jaunak argitu nazala.
Ongi etorri bat guztientzako
beste lekutan bezela.
- O. ALBERDI Kanpoan fresko egiten du ta
sartu piska bat barroa;
amama, jakin nahi det oraintxe
zer mouz doan katarroa.
- OLALDE Martzelinakin topo egin degu
etorri eta Etorran;
nere ustetan somatutzen det
oso itxura jatorran.
- O. ALBERDI Artoa aletzen ateratzen du
Jesukriston zalaparta;
oraindik ere gogorra dago
Napar kastakua da-ta.
- OLALDE Aletu aurrez artoa ere
saiatu behar jorratzen,
eta aletzen eskuko azala
sarritan ohi da urratzen.
- O. ALBERDI Amamak lan asko egiten du
hoiek bai dira egiak;
gaur ere dauzkat jantzita berak
egindako galtzerdiak.

- OLALDE Amonan eran besteai ere
 behar hainbeste gorantzi,
 besteak beste bertako diren
 Jose Luis eta Olatzi.
- O. ALBERDI Tia Olatz ta tio Jose Luis,
 hartu nere zoriona,
 asteartean egin bai ziren
 aitona eta amona.
- OLALDE Aitona-amonek eginagatik,
 badute hainbeste sasoi.
 Hala ta guztiz, bihotz-bihotzez
 zorion agurra denoi.
- O. ALBERDI Gorantziak gaur zueri eman
 Rober eta Nereari;
 eta nola ez, hamaika muxu
 haurtxo jaio berriari.

ETORRAZAR baserria 2009

- G. LOPETEGI Gizonezkua aipatutzea
 orain pentsatu det neurriz;
 planta oneko ta elegante
 somatzen zaitut, Joxe Luis.
- O. ALBERDI Lan egiteai ere utzi zion
 bere urteak tarteko;
 lehen ere etzen hain geizki bizi
 ta orain askoz hobeto.

- G. LOPETEGI Lehen itxuraz bizi zan baina
gerora lanai hor konpon!
Honek krisia zetorrela ere
igerri egin bai zion.
- O. ALBERDI Hemendik nola juango gera
gu bera koplatsu gabe.
Ze elegante ikusten dedan
amama Martzelina're.
- G. LOPETEGI Kopla beharko ate onduan
goizetikan zai zegona,
etxe gutxitan bilatutzen da
hau bezelako amona.
- O. ALBERDI ez da izana
Lesaka aldeko prenda;
Urte batzuek eduki arren
ederki kontserbatzen da.
- G. LOPETEGI Tia Olatzeri ere eman beharko
gure ongi etorria.
Horixe degu Jose Luis honek
Mutrikutik ekarria.
- O. ALBERDI Jose Luis hau're listua zala
lehenagotik nuan entzun.
Hortain emakume guapa ekarri,
berak guapoa behar zun.
- G. LOPETEGI Nahikoa lana aurkitu ohi du
tia Olatzek, ba, hemen;
lehen baserriko lana egiten
eta orain ume zaintzen.

O. ALBERDI Mutrikun jaio, Mutrikun bizi,
ta Errotara ezkondu.
Bistakoa da bizimodua
ederto zaiola ondu.

ETORRAZAR baserria 2011

G. LOPETEGI Ate ondora etorri gera
ez gaixotasun ta ez herdoi,
hasi aurretik edukazioz,
egun on bana guzioi.

Esplika nahi det alderdi hontan
pasatutzen den egia;
Errotazarren bizitzen da gaur
Etorra Berri sendia.

Santa eskeko ohitura honek
galdetutzero narama:
Lehendabiziko jakin nahi degu
ondo al dabilen ama.

Begirazuna alaia dauka,
azal kolorea ona;
urte batzuek nahiz eta pasa
sasoiko dago amona.

Semea ere oraingo hontan
koplatu nahi nuke neurritz,
lagun artetik aparte xamar
jarria zaigu Jose Luis.

Zapatu edota igandetan
hor joaten da ehizera,
eta ia noiz joaten geran
basaurdea jatera.

Gaur gure artean Oskar³ ez dago,
bera genduen oinarri;
lan kontuekin gora ta behera
ezin izan du etorri.

Oso gustora ai gera baina
egin beharko da utzi;
eskerrik asko harreragatik
eta sasoiari eutsi.



... eta limosna zakura

³ OSKAR hau bertako iloba da eta azken urte hauetan koplari taldean ibilia

ETXABURU baserria 2006

- OLALDE Etxaburura etorri gera,
ta denok gaude pozikan.
Beitu batean honek ez dauka
lehengo zaharraren antzikan.
- O. ALBERDI Lehen Etxaburuk betitik zeukan
baserrian ikutua.
Gaur harrituta utzita nauka
hartu duan berritua.
- OLALDE Nere ustetan egina dute
oso ekintza zuzena.
berritu dena baina mantendu
lehengo zaharraren izena.
- O. ALBERDI Etxaburu du honek izena
lehen zeukana tarteko.
Benitok toki polita dauka
famelia bat hazteko
- OLALDE Beraz buruak zein diran esan
erasoz geure lanari;
zorionak eman behar dizkiou
Benitori ta Evari.
- O. ALBERDI Sarri euria edo elurra,
eguraldi txarran traza;
famelia bat hola haztea
ez da izaten erreza.

OLALDE

Xenpelar zaharrak esan omen zun:

Jaioko dira berriak...

Bi mutil eta neska koskorra
badituzte hauen umiak.

O. ALBERDI

Koadrila oso polita dago,

hortan badet nahiko fede.

Laster hasiko dirade hauek
kalera begira ere.



Badoaz

O. ALBERDI Kaixo, zer moduz? Orain egun on
hemen bizi diren danai.
Aurten lehenengo aldia da-ta
ez degu geizki jardun nahi.

OLALDE Etxe ondora etorri eta
jarrera hauxe da, hauxe.
Propio azalduak zaizkigu
Mari Isabel eta Joxe.

O. ALBERDI Gaur ere gizon haundi askoa
lehen gendun bezelaxe.
Hemen hamaika lan egindako
gizona ez al da Joxe?

OLALDE Joxe gizon hau beti ezagutu
det karga gutxiren jabe;
oraintxe ere somatutzen det
okela kargarik gabe.

O. ALBERDI Probatua da gure Joxe hau
hemen hamaika lanetan;
baina sekula're ez du galtzen
irriparra ezpainetan.

OLALDE Gizon batena hau izan leike
doarik printzipalena,
nahiz ta barruan une batzutan
haundia sentitu pena.

O. ALBERDI Tristurak eta penak emanak
dizkie hainbat igurtzi;
beti aurrera egin dute ta
hori ere ez da gutxi.

OLALDE Isabel ere hementxe dago
oso dotore jantzita.
Joxerengana urreratu zen
Ondarbasotik jaitsita.

ETORRAZPI baserria 2009

O. ALBERDI Ondarbasotik abitu eta
orain Etorra aldera,
aurtengoz ere etorri gera
haize zakarrarekin batera.

G. LOPETEGI Etxe honetan kantatutzeko
jarri diguten aukera;
txapela haizeak kentzen ez badu
ondo moldatuko gera.

O. ALBERDI Bikote ederra hemen aurrean
eta ez dabilta motel;
guk zoriondu egin beharko
bai Joxe ta bai Isabel.

G. LOPETEGI Santa eskaleak etorri eta
soma ditugu pozikan;
beitu batean ez daukazute
behintzat itxura txarrikan.

- O. ALBERDI Itxura danez hemen ez dago
oraindikan krisirikan,
limosna ere eman bai dute
guk eskatu aurretikan
- G. LOPETEGI Paraje honek naturarekin
nolatan ez daukan zorra,
hemendik zurituta sarritan
aurreko mendi tontorra.
- O. ALBERDI Mendi tartean dago etxe hau
ta bizi dira gustura,
beti lotuta egon bai dira
baserria ta natura.
- G. LOPETEGI Baserritarrek nahiz eta sarri
izan duan fama txarrik,
hauek ondo bizi dira behintzat,
ez dago beitu besterik.
- O. ALBERDI Umeak hazten eduki zuten
bikote honek garaia;
ederki asko hezi zituzten
bai Unai ta bai Amaia.
- G. LOPETEGI Atai honetan kantatutzea
plazer haundi bat izan da;
eskerrik asko limosnagatik,
baguaz agur esanda.

O. ALBERDI Lehengo urtean etorri ginen
ta aurtengoan ere bai.
Lehendabiziko eman beharko
egun on hemengo denai.

Tratore eta gauza hoiekin
gogor helduaz lanari,
geratu ere ez dira egiten
Manuel ta Rosa Mari.

Behiak batetik eta belarra
edukiko du besteko,
lana gogotik egin behar da
baserriari eusteko.

Zelai ederrak hor inguruan
begira bagera jartzen.
Baserritarra jatorra bada
sasiak ez ditu hartzen.

Baserri honek ere hartu du
kanpo aldetik mejora;
andre-gizonak hementxe, baina
June alaba lo egongo da.

June're oso gogorra dator,
hori ze nolako prenda!
Baserri aldetik ez det ikusten,
kalera sarri juaten da.

- G LOPETEGI Haize babesean jarri gera,
hasi gaitezen koplari.
Itxura oneko jarri zaizkigu
Manuel ta Rosa Mari.
- O. ALBERDI Rosa Mari're nola ez daukagun
etxe aldean geratzeko;
haize gehiegi ez al dago gaur
pasiara juateko?
- G.LOPETEGI Manuelek'e gustokoa du
etxe barruko epela,
pasiara jua ezkeru kendu
egingo dizu txapela.
- O. ALBERDI Manuel honek ere lanean
badu nahikua meritu;
etxe aldeko txoko guztiak
apain-apain jarri ditu.
- G. LOPETEGI Alaba bat ere badaukate,
June izena, hain zuzen;
ta itxura danez estudiantzen
orain omen da Gasteizen.
- O. ALBERDI Estudioak aurrera ematen
beraz badauka nahikua.
Neska guapa da eta jatorra,
zuretzako modukua.
- G. LOPETEGI Etxe honetan belarretara
eiten degu buelta franko;
ta pare-parekua det eta,
ezetzik ez det esango.

- O. ALBERDI Garikoitz laster baietz zuri're
Etorra aldean gertatu,
zu belar bila etorri eta
andregaiakin bueltatu.
- G. LOPETEGI Lan hori hola izan ezkeru
badago nahiko meritu.
Nahiago det bueltan joan baino
maiorazko hemen gelditu.
- O. ALBERDI Laster barrura sartuko da ta
hau hola utzi beharko.
Bueno, baguaz beste bat arte,
agur ta eskerrik asko.



Badatoz

GAZTAÑAGAENEA (Errezabal) baserria

2006

- O. ALBERDI Egun on danoi, etxeak ez ditu
nik uste adina urte;
lehenaldia gatozela ta
ondo portatu nahi nuke.
- OLALDE Lehengo zaharra han goian zegon,
hasia zegon zahartzen.
Berri-berria egina dute
ta gustora degu hartzen.
- O. ALBERDI Baserri zaharrek izaten zuten
lehen kristoren trantzea;
ta oso ondo iruditzen zait
lehengo zaharrak berritzea.
- OLALDE Enteratu naiz Agustin ere
ingresaturik dagola,
aldi berean ere jakin det
mejora etorri zaiola.
- O. ALBERDI Bakardadeak ere tristura
dauka berekin medio.
Agustin laster etorriko da
eta animo, Rosario.
- OLALDE Han piskat senda eta etxera
etortzen bada konpleto,
han gustora igual egon liteke
baina etxean hobeto

O. ALBERDI Nik orain ere ikusten zaitut
sukaldarien planean,
eta Agustini esan hemen gu
izan gerala lanean.

OLALDE Etorkizunak etxe honetan
badu hainbat segurantzi,
alaba ere ezkondu eta
daukate seme ta guzi.

GAZTAÑAGAENEA (*Errezabal*) baserria 2010

O. ALBERDI Santa Ageda bezpera da-ta
etorri gera koadrila,
kopla batzuek abestu eta
borondatearen bila.

G. LOPETEGI Gaztaiñotarrak gaurko egunez
hau dutenez merezia,
hau ataialde elegantea
ta hau da dotorezia!

O. ALBERDI Elegantea degu etxea,
esan diguzu egia.
Baina ez dakit zer dan, etxia
ala eta jauregia...

G. LOPETEGI Sukaldaria paregabea
hor ezin liteke auzi,
Agustin, danba! bistatu zaigu
euskal txapel eta guzi.

- O. ALBERDI Rosario're ez det ikusten,
barruan degu izango,
familia bat ez da osatzen
ama on bat ez baldin badago.
- G. LOPETEGI Orain irten da ate-ertzera,
bada nahiko nobedade.
Rosario beti ikusitzen det
pozikan eta alegre.
- O. ALBERDI Etxea ere egina dute
toki elegante askuan;
ederki asko bizi zaizkigu
haizean babes lekuan.
- G. LOPETEGI Ate ondoan dagon alabak
badauka aitaren antza;
alde honetan esan didate,
omen zerade Arantza.
- O. ALBERDI Aldamenetik jarri naiz eta
Arantxai begira nago.
Jardina elegantea da baina
holako loraik ez dago.
- G. LOPETEGI Ai, Oskar lagun, oraingo horrek
bazeukan borondatea.
Leku gutxitan entzungo dezu
ortain gauza dotorea.

UZTAPIDE plaza 1993

- OLALDE Petralka hasi gera oraingoz,
zerbaitek gaitu erasan.
Manuel, ondo kanta dezagun
zure osabaren plazan.
- UZTAPIDE II Datorren tokitik atera ta
al den ondoenik bota;
ea failorik ez den egiten
bera entzuten dago-ta.
- OLALDE Bera entzuten baldin badago
hemen degu agurtuko;
eta akatsik eginda ere
igual ez da harrituko.
- UZTAPIDE II Lehengo ohitura zaharra hau dala
hemen ez al da ezagun?
Gu baino lehen ibili zan da
al dan ondoen ein dezagun.
- OLALDE Oraintxe ere entzungo nuke
Manuelen irrintzia.
Entzule onak eman dezala
bere lanen iritzia.
- UZTAPIDE II Gu bezelaxe alde honetan
sarri izana genduan.
Haren bertsuak oindik norbaitek
izango ditu goguan.

OLALDE Hura bezelako izatea
pentsatu ez dala errez;
merezi badegu bota eta
merezi ez badegu ez.

UZTAPIDE II Irriparretan pasa zituzten
berai begira egunak,
oraindik ere bizi dirade
berak zituen lagunak.

OLALDE Umore onez gabilta hemen,
zertako jarri serio?
Limosnagatik milaka esker,
ikusi arte adio!

UZTAPIDE plaza 1995

OLALDE Esan bezela aurkitzen gera
Uztapide enparantzan.
Garai batean izen hortako
bertsolari on bat bazan.

N. ZENDOIA Uztapideren izan haundiaz
hemen gogoratutzean,
ixiltasun bat egin beharra
badaukagu bihotzean.

OLALDE Herritar asko egon liteke
deitura horretxen eske.
Zuek suerte hauxe dezute ta
pozik egon zindezkete.

- N. ZENDOIA Ludian bertsolaririk bazan
hauxe genuen petoa,
hartaz gogoratu bakoitzean
dezagun errespetoa.
- OLALDE Nun bizi zera?, galdetu eta
esan: Uztapide plazan.
Seguru asko jende askori
horrek lioke erasan.
- N. ZENDOIA Plaza txiki hau zein bildua dan,
inundik ez da haundia,
baina nik inun ez det ikusten
Uztapiden irudia.
- OLALDE Egia esan entenditzea
hori ere ez da errez;
plaka eder bat jarri zioten
baina argazkirikan ez.
- N. ZENDOIA Irudi hori ez izatea
arkitutzen det gaizkia;
herritar danak nahi lutekena
aitonaren argazkia.
- OLALDE Aitzaki bila, hara Nikolas,
orain ezingo gera juan;
kanpoak ez du hainbat inporta,
danok daukagu barruan.

- OLALDE Izen haundia da Uztapide,
inork bai al du dudarik?
Saiatuko gerade gaurkoan,
ez da ahalegin faltarik.
- O. ALBERDI Bertsotan fina genuen bera,
zabala zeukan itzala;
gainera gendun gizon formala,
jator eta zerbitzala.
- OLALDE Esan dituzun danak egiak,
jendea dago testigu.
Zoritxarrean juan zan eta
guk jarrai beharko degu.
- O. ALBERDI Bertsotan oso ona genuen
garbi esan eta hara,
Egaña soilik iristen da gaur
hark utzitako markara.
- OLALDE Konparaketak gaiztoak dira,
nago hauxe agertu nahian;
bat ona zan da bestea ere bai,
bakoitza bere garaian.

- UZTAPIDE II Nahiz ari geran nekaturikan
edo denbora luzean,
lana pozikan egingo degu
entzuleen babesean.
- OLALDE Lizarritzeko atari hontan
ari zaizkigu obretan,
dudarik gabe jarri asmotan
lehen baino modu hobetan.
- UZTAPIDE II Atari-aurreak merezi zuen,
noski, beraren itzala.
Oraingo hontan jarriko dute
tokatzen zaion bezela.
- OLALDE Lehendabiziko etxea eta
orain berriz ataria.
Plaza hauxe geldituko zaigu
oso leku egokia.
- UZTAPIDE II Herrian beti're gauza ona
izaten da gauz apaina.
Inork ikusi nahi baldin badu
ederki asko egina.
- OLALDE Zer moduetan zeraten ere
orain nahi genuke galda.
Lizarraiztikan aparte hemen
nobedaderik bai al da?

UZTAPIDE II

Asmo horretan gaurko honetan
ekin diogu lanari,
esker berdina eman nahiean
hemengo auzo denari.

OLALDE

Oraindik ere lana dexente
nahiz eta aspaldi hasi.
Limosnagatik eskerrik asko,
agur eta ondo bizi.



Uztapide plaza

- OLALDE Kale hontara iritsitzeko
bagenduan hainbat gogo.
Aurten gainera etorri gera
ordubete bat lehenago.
- N. ZENDOIA Kale honetan ibili leike
mendigoizaleen gisan;
behintzat galtzada ederra dauka
nahiz aldapa pixkat izan.
- OLALDE Kale honexek berekin dauzka
gutxinez lau bat taberna,
horregatikan denek diote
hau dela kaleik onena.
- N. ZENDOIA Ikusten ditut hainbat galtzada
ta hainbat horma harrizko;
behin ikusita ondo gogoan
hartuko ditut berrizko.
- OLALDE Kale hauxe da bene-benetan
bitxi edo dotorea;
gainera hemendik ikusten da
elizan kanpandorrea.
- N. ZENDOIA Jexuxengandik gauza askotxo
dauzkagu hemen jakiteko.
Hutsa fededun beroa balitz
horrela hitz egiteko.

GURUTZE plaza 1995

- OLALDE Une honetan kokatu gera
gurutzearen aurrean;
errespetua izan dezagun
kantatutzeko unean.
- N. ZENDOIA Plaza honetan badezute, bai,
gurutzean zenbait historik.
Begira zerbait egon naiz baina
ez dauka Santo Kristorik.
- OLALDE Gure herrian gurutze haxe
da leku seinalatuan,
horregatikan ahalik ondoen
egin dezagun kantuan.
- N. ZENDOIA Ludi zabala aurrera doa
galeran edo mejoan;
bertsolaririk izango ote zan
Jesukristoren denboran?
- OLALDE Oraingo hontan galdera latza
egina didazu, hara!
Bertsolariak garai haretan
apostoluak, beharbada.
- N. ZENDOIA Jesukristo're ez dakit gero
zenbatxo zan ahalegindu;
berak sekula ezer egin ez,
dena besteri agindu.

OLALDE Gaurko honetan gure eskean
 Caritas degu helburu,
 eta portatuko zeratela
 hau badakigu seguru.

N. ZENDOIA Eska ta eska bakarrikan da
 gure etorri-joana;
 bakar-bakarrik egiten degu
 Kristok egiten zuana.



Koplatzen

ALKORTA taberna 1994

- UZTAPIDE II Barrura etorri ta eman digute
erasotzeko baimena,
itxurantzean zerbi dezagun
lehendabiziko taberna.
- OLALDE Nik pentsatzen det kanta ezker
estimatuko dutela.
Gauz bat ederra bilatu degu:
giroa epel-epela.
- UZTAPIDE II Kanpoan hotza zegoen eta
hemen epel edo gehio.
Bertso batzuek kantatzeko ere
ez baitu gutxi balio.
- OLALDE Badakizute jendearentzat
gogor saia behar dana;
eta hau epel edukitzea
kamareruaren lana.
- UZTAPIDE II Kanean larri hortxe genbiltzen
ondo kantatu ezinda.
Hemen puska bat piztuko gera
trago txiki bat eginda.
- OLALDE Aitortutzen det, zaleak gera,
eta ohi zaigu gustatu,
baina oraindik lan asko dago
ta ez gaitezen pasatu.

- UZTAPIDE II Bildur bazera Alkorta honek
igoko ote dun burura,
nik behintzat edan egingo bai det,
ta zuk edan zazu ura.
- OLALDE Ikusten danez ardo ttantta bat
guretzako ez da basta.
Ahaztu egin zait zu zeradela
Uztapidetarren kasta.
- UZTAPIDE II Batetik bestera alde gutxi
daukagu hemen guztira.
Uztapidetarrak'e edanda
erdi mozkortutzen dira.
- OLALDE Geure herrian ikusi gendun
ta ez dakigu auzuan,
litro bat ardo edanda gero
hobeto kantatzen zuan.
- UZTAPIDE II Aizu, Olalde, nik esatea
nahiz ez balio izan pena,
ura bakarrik edanda ere
bera ez al zan onena?
- OLALDE Ezingo gera nolanahi sartu
maixu haundien bizitzan.
Millaka esker harreragatik,
agur eta ondo izan.

- N. ZENDOIA Esan bezela, hementxe gatoz
gu ere gaur kantatzera,
Zestoa aldeko jende jatorra
bihotzez agurtutzera.
- OLALDE Aurten lehenengo taberna degu
hain zuzen gaur Alkorta,
eta hemengo berri batzuek
nahi genituzke konta.
- N. ZENDOIA Etxekoandre Maite maitea,
porta zindezke jator da,
nolatan bizi zeraden ni're
Zarautz aldetik nator-da.
- OLALDE Dudarik gabe hau Zarauztarra
ta barruan du erida;
baina aspaldi etorri zan da
hemen gustora bizi da.
- N. ZENDOIA Ez det esango Zestua aldean
hain gaizki bizi danikan;
nola arraio alde egin zendun
itsasoan ondotikan?
- OLALDE Hara Nikolas, horren arrazoi
ona berak dizu hartu.
Zarautz aldean hemen hainako
gizonik etzun bilatu.
- N. ZENDOIA. Zure tokian ni ez nintzaden
askorikan piatuko;
iruditzen zait han etzinala
askorikan saiatuko.

- OLALDE Gizon jatorra bilatu zuan,
tabernerua gainera;
eta Maitek salto egin zuen
etxe onetik hobera.
- N. ZENDOIA Neska polit bat agertu zaigu
lepoan painoluakin,
nobio bila etorriko zan
bera disimuluakin.
- OLALDE Emakumea azaldu zaigu
ta neretzako berria.
Kozinan lana eiten omen du,
badago bere premia.
- N. ZENDOIA Oraintxe ere hankasartze bat
egina det nik iaiua.
Nahiz ezkondata izan, zergatik
ez bilatu nobiua?
- OLALDE Hara, Nikolas, gauzak ez dira
izaten nunahi ta hala.
Ez al dakizu herri honetan
oso formalak gerala?

ALKORTA taberna 1996

- OLALDE Nunahi badago pintxua eta
nunahitan bokadilua;
jende ugari erakartzeko
bada arrazoi pilua.

- N. ZENDOIA Egia da, bai, hemen arrazoi
pila haundiak badia,
baina balio duen bakarra
Zarauztar etxekoandria.
- OLALDE Alkortanea egokitzea
horri zitzaion tokatu,
baina itxura balio dula,
guztioak degu probatu.
- N. ZENDOIA Lore batzuek botatzen edo
darabilkigu ahua;
igaz polita zeguen eta
aurten da politagua.
- OLALDE Hara, laguna, gauza txiki bat
berekala erabaki;
jende aurrera nola azaldu
emakumeak badaki.
- N. ZENDOIA Harriturikan laga nauk, Jexux,
bertso hori aditzean;
emakumeak dena zekitek
aurrean eta atzean.
- OLALDE Jakin beharko da nola tratatu
mostradorean jentea,
eta itxurazko presentzia
beti da inportantea.
- N. ZENDOIA Apur-apurka hasi beharra
dadukat nagusiakin.
Bera ere gizon majoa degu
buru zuri-zuriakin.

- OLALDE Buru zuria, hara Nikolas,
urtearen poderioz;
tabernarekin aurrera doaz ta
horrekin horrenbeste poz.
- N. ZENDOIA Ile zuria duen gizonak
beti buru dotoria;
neu ere horren inbiriz nago,
hori da kategoria.
- OLALDE Ileak bai al du garrantzirik
gehiegi edo gutxio?
Itxurarako bakarrik bai da,
azpiak du hor balio.
- N. ZENDOIA Baina, Olalde, hori ote da
hitz egiteko modua?
Hemen itxura dadukan harek
engainatzen du mundua.
- OLALDE Hara, Nikolas, etzaite jarri
horren arrazoi itxian;
engaina igual egingo gaitu
baina denbora gutxian.
- N. ZENDOIA Nere agurra orain dijoa,
aritu bait naiz koplari.
Gaizki esanak barkatu eta
eutsi goian Alkortari.

- N. ZENDOIA Santa eskean hemen gabiltza
gaur hemengo zahar ta gazte.
Alkortaneko ostalariak,
zer moduz bizi zerate?
- OLALDE Urtean behingoz gutxienez guk
eiten diogu bixita;
denak agurtu behar ditugu
Maiterengandik hasita.
- N. ZENDOIA Neroni ere zuzen-zuzenen
banijoa bai Maitena;
urtez gehiena bera da baina
bera dago politena.
- OLALDE Tabernarako da aproposa,
berez hangoa izaki,
eta etortzen dan jendea ere
ondo tratatzen badaki.
- N. ZENDOIA Ile kolore hori bera ere
rubia dauka buruan;
nahiz ta piska bat zail dan luzitzen
morena baten onduan.
- OLALDE Maite daukagu txit eskubian
ta ezkerrian Lierni,
bereiztasuna garbi izateko
horrela dira ipini.
- N. ZENDOIA Entzun dedanez, hara neskatxa,
izena Lierni dezu;
kaikuren baten faltan bazaude
hemen aukera badezu.

OLALDE

Nolakoa dan ezin igarri,
ez det ondo ikusten da.
Etorri zaitez honuntz aurrera,
ez degu inor jaten da.

N. ZENDOIA

Edozer gauza esaten degu
guk edozeinen aurrean;
urruti xamar jarrita ere
bazaude nahiko urrian.



Koplariak herriko plazan

MOLLERGI taberna 2000

- OLALDE Egia esan taberna hontan
egiten dik, moteil, argi;
horregatikan honi izena
jarri zioten Mollergi.
- N. ZENDOIA Gure kontuak eskeintzen dira
beste tokitan bezela;
beraz, bihotzez opa dizugu
sorte on izan dezala.
- OLALDE Kristal haundiko ateak eta
kanpotik ere argia;
egia esan, oso dotore
eta tipiko jarria.
- N. ZENDOIA Neroni ere akordatu naiz
dagola ongi jarria,
eta gainera biboteduna
dezute tabernaria.
- OLALDE Jexus tokaio kamarerua
eta Gilermo jabea;
jendearentzat bera ez al da
tartean askoz hobea?
- N. ZENDOIA Ez dedila behintzat bildurdu
gaurko bertsoen hotsakin;
neska gazte bat behar dezu or,
eta gona motzarekin..

OLALDE Mutil jatorra degu Jexux hau,
ta Jaunak gorde dezala;
gainera oso sinpatikoa
ama Matilde bezala.

N. ZENDOIA Nik ez nituke ontzat hartu nahi
Olalde honen kantuak.
Jexux izena duten guztiak
ez dira gero santuak.

OLALDE Jexux du horrek bere izena,
ta deitzen diote *Txispi*,
ikusirikan ze letxe daukan
ez dago esanda gaizki.

MOLLERGI taberna 2001

N. ZENDOIA Taberna hontan sartu naiz eta
gauzak ez daduzkat garbi,
eta ez dakit nolatan deitu
Gillermo ala Mollergi.

O. ALBERDI Bertsolari bat ikusi det hor
ta aldatu ein zait hitza.
Barra atzean dagoen hori
ez al da, ba, Amuriza?

OLALDE Berriro ere eman didazu
hitza ateratzeko era.
Altuxiago izango balitz
hanka sartzeko aukera.

- N. ZENDOIA Oskar gazteak botatzen du, bai,
hemen arrazoi ederrik;
baina Amuriza ez da egiten
bizarrarekin bakarrik.
- O. ALBERDI Amuriza ere ikusi gendun
elizarako planean.
Apaizak triste izaten dituk,
zer egiten dek lanean?
- OLALDE Hara, Nikolas, etzazu pentsa
mutil ez dunik bista,
Amurizak'e hartuko luke
Jexuxek dadukan txispa.
- N. ZENDOIA Gauza haundirik ez dik lortuko
Amurizaren aitzakin;
Txinpartik ere sekula ez da
itzaldutako txispakin.
- O. ALBERDI Bertsolari bat etorri zat lehen
nere begien erdira.
Hanka sartuta ibili naiz lehen:
"aibala, hori Txispi da".
- OLALDE Nik gaztetako laguna det ta
gainera hain begikua;
tabernarako da aproposa,
mutila sinpatikua.
- N. ZENDOIA Sinistu det bai nere laguna
igual izango da berez.
Sinpatikotik edukiko du,
ederretikan batere ez.

O. ALBERDI Gure Txispi honek duen grina
inork ezin du igualdu.
Barran negoziua egiteko
horrelakua behar du.

OLALDE Hau dagonean tabernan ere
klientela da haunditzen.
Edertasunez Nikolasek'e
ez du ezer entenditzen.

N. ZENDOIA Alde batera egia horrek
zerbaitxo merezi du ta,
baina hemendik ere baguaz
txispa itzali zaigu-ta.

MOLLERGI taberna 2005

O. ALBERDI Santa eskeko koadrilarekin
ia-ia taberna bete;
adarra jotzen hastera goaz,
argi ibili zaitezte.

OLALDE Ezagunak'e asko dirade,
guztiak kasi famili.
Bada ez bada ere hobe ez al degu
poliki xamar ibili?

O. ALBERDI Aurtengo hontan ez da atera
barra horren atzetikan.
Txispi falta da eta Mollergik
falta du gaur txispatikan.

- OLALDE Jaun-andereai orain horrela
dio lagunak eraso;
nahiz txispa ta nahiz sutarako
hortxe daukagu Itsaso.
- O. ALBERDI Normala da ta izenetikan
hau aldrebestu da, klaro.
Itsaso ez du izena horrek,
barkatu zaiozu, Txaro.
- OLALDE Ezagun du, bai, orduak doaz
eta memoria falta.
Txaro izena ere ahaztu zait
kinto lagunak gera-ta.
- O. ALBERDI Zure kintako laguna dala
orain artean ez nekin.
Pareja ona eiten dezute
orain biok alkarrekin
- OLALDE Hori horrela izan ezker
ez gera inon kaltera;
juntatutzen geran bakoitzean
ondo konpondutzen gera.
- O. ALBERDI Josu, ezkondata zaude eta
horixe ez dezu broma;
ondo konpontzen zerate baina
ondoegi ez da ona.
- OLALDE Etxean batzuk izaten gera
eta besteak kanpuan.
Gu oso ondo konpontzen gera
baina nor bere lekuan.

O. ALBERDI Guk kantatzeko nahi haina lata
mingaina ezin gelditu.
Ondo esanak gogoan hartu,
gaizki esanak barkatu.

MOLLERGI taberna 2006

UZTAPIDE II Hola ikusi izandu det nik
jundako leku danean.
Lehenago ere pentsatu nuen,
oain'e Gillermo lanean

OLALDE Gillermok gogor jarraitzen dio
behin hartu zuen lanari;
irriparra beti ezpainetan,
karakter ona da hori.

O. ALBERDI Gillermo gogor ai da lanean,
noski, betiko antzera;
baina hortikan laster joan da
txakurrak pasiatzera.

UZTAPIDE II Arrazoia're pixkat bazeukak,
bera dek hemen nagusi;
haserretuta ez al dek inoiz
sekula ere ikusi?

OLALDE Andrea ere etorri zaio
laguntzera, maja-maja;
horixe bai da andre ederra
hartutzearen bentaja.

- O. ALBERDI Txarok ardoa ateratzen hor,
noski, jartzen du gogoa.
Orain andreak ematen dio
senarrari erreleboa.
- UZTAPIDE II Mundu honeri atera behar
ahal dala zenbait etekin.
Gaztetan ere guapa zan eta
gero kontserbatzen jakin.
- OLALDE Jende artean ibilitzeko
Txarok badu hainbat gradu;
batzuk ezkutu egiten dira
baina hau azkar azaldu.
- O. ALBERDI Gaurkoan ere Txaro ikusten
hortxe guapa antzean;
presentzia ere estimatzen da
sarri barraren atzean.
- UZTAPIDE II Giro batean pasatzen ditu
berak hastera ta jaia.
Lanean ari danean ere
beti aurpegi alaia.
- OLALDE Edozer gauza esaten degu
lotsik gabeak geranak.
Bihotz-bihotzez eskerrik asko,
barkatu gaizki esanak.

UZTAPIDE taberna 1992

- UZTAPIDE II Iruditzen zait jendea ere
zai zegoela jarria.
Lehendabiziko eman dezagun
etxean ongi etorria.
- OLALDE Ni pentsatutzen netorren, lagun,
honuntza urreratzean,
dexente saia beharko dala
bertsolarien etxean.
- UZTAPIDE II Oraindik ez dute inor ere jo,
inor ez dute apurtu;
hemengo lanak eingo ditugu
eta ez zaitez bildurtu.
- OLALDE Etxe honetan zein bizi diran
erreparatzen naiz jarri.
Bat edo beste kanta beharko
zerorren ama Pilarri.
- UZTAPIDE II Hontara geran ezkerro entzun
behar dezu, Olalde, hau:
gaur ere mutil txukun askua
nere amatxok jantzi nau.
- OLALDE Hara Manuel, behar zenduke
behin honezkero arreta;
amak jantzi behar zuk andrerikan
ez dezu ekartzen-eta.

- UZTAPIDE II Beraz andrerik ez daukat eta
hortik egiten det herren.
Bi're ekarriko nituzke bai nik
holako izatearren
- OLALDE Beraz, desiatzen zabiltzala
orain harturikan mezu.
Beharbada zeure gustoarentzat
gehiegi eskatzen dezu.
- UZTAPIDE II Oraindik ere badabil gero
atzetikan zenbait izar.
Ez gero pentsa ezinagatik
nagonikan ni mutilzahar.
- OLALDE Ikusten danez saiatu gabe
zaude oraindik eginahala.
Ohartu zaite ura jundakon
presa alperrikan dala.
- UZTAPIDE II Oraindik ere, aizu laguna,
dena galduta ez dago;
eta nik presa egingo diot
ura joan baino lehenago.

UZTAPIDE taberna 1997

- OLALDE Begiratzen det ezker-eskubi,
begiratzen det aurrera,
pentsatutzen det sartu gerala
oso leku ederrera.

- N. ZENDOIA Gure Zestuak leku ederrak
askotxo ditu aukeran.
Sartu pozikan egin gerade,
ez dakit irtengo geran.
- OLALDE Taberna honek ere, noski, du
jatorriz bere izena.
Ez baldin badakizu, laguna,
da Uztapide taberna.
- N. ZENDOIA Lehengo oroitzak maite dirade
hemen gauza nabarmenak.
Askoz gehiago beharko luke
izen hontako tabernak.
- OLALDE Egia esan, izen hortako
gizonak ez dira txarrak.
Hamaika saio egin omen zun
hemen Uztapide zaharrak.
- N. ZENDOIA Uztapideren izen haundiai
ahal bada pakean utzi;
guk saio asko egiten degu
baina onak oso gutxi
- OLALDE Herri honetan guk Uztapide
gizon oso maite degu;
hura gure herritar izateak
asko harrotutzen gaitu.
- N. ZENDOIA Zerbaiten falta leku honetan
ea bilatzen dezuten:
Neskatxarikan ez al da hemen,
nik behintzat ez det ikusten.

- OLALDE Behin tabernatan sartu ezker
beti holako joera.
Lehengo urtean bazan polit bat,
nun sartu ote da bera?
- N. ZENDOIA Neronek ere azterketa hori
egina det maiz eta maiz;
titiluze bat bazan, bai, hemen,
oraintxe akordatzen naiz.
- OLALDE Nahiko zahartutzen ai zera baina
bista joana ez daukazu.
Holako puntak ikusitzeko
asko fijatzen zera zu.
- N. ZENDOIA Adiskidea, nik erantzuna
emango det segituan.
Askotatu beharrik etzan,
bistan ibili zituan.

UZTAPIDE taberna 2004

- O. ALBERDI Ea ba txukun jardutzen degun
gu biok nahi degun eran.
Bertso txarrikan ezin da bota
Uztapideren tabernan.
- OLALDE Holako kargak hartu ezker
igual gera larrituko.
Txarrak botatzen baditugu're
ez dirade harrituko.

- O. ALBERDI Bertsotan ondo jardun dezagun,
berdin hasi ta amaitu,
ta Uztapidek gero zerutik
ederki juzgako gaitu.
- OLALDE Jendea barra-barra dago hemen,
giroa somatzen det epel.
Hala jakin nahi eta galdetu
egiten dizut, Ismael.
- O. ALBERDI Bakarra dagon garaian bera
bere tokitikan altxa;
berak ederki ematen daki
Uztapideneko martxa.
- OLALDE Gurason berri jakinik gabe,
Ismael, ezin naiz egon.
Ondo al dabiltz zure ama Koro
eta zure aita Ramon?
- O. ALBERDI Nahiz ta ez diran hoiek azaldu
ateko ate artetik,
zuk eskumuinak emaizkiezu
santa eskaleon partetik.
- OLALDE Etxeko danak aipatzen ere
izango nituzke lanak.
Baina ondo jarraitutzen al du
Manuel zure osabak?
- O. ALBERDI Bertsotarako izaten zuen
Manuel harek gogoa;
hasi ezkeru bertsotan degu
gu baino abilagoa.

OLALDE Manuel hura, Manuel, gaurko
bertsolaria ona zan;
aspaldin ez det ikusi eta
gorantzi beroak eman.

O. ALBERDI Bertsoak fin-fin botatzen zitun
ta osatu ere nola!
Antzematen da berekin dula
Uztapideren odola.

OLALDE Oso gutxitan botatzen zuan
Manuelek bertso kaxkarra;
hitz-jokoan zan aberatsa ta
ideiaz, berriz, azkarra.

UZTAPIDE taberna 2005

OLALDE Hemen hasteko ordua da-ta
Jaunak anpara nazala.
Saia gaitezen kantu lanetan
beste lekutan bezala.

O. ALBERDI Ea koplatan egiten degun
bixi-bixi, zuzen-zuzen,
Uztapideren teberna da ta
gogor saiatu gaitezen.

OLALDE Mostradorean hor ikusten det
dagola gure Dabidtxo.
Hainbat haundiko mutilantzako
ez ote da mimo gehitxo.

- O. ALBERDI Urte askotan jardun izan da
 lanean, ez egon lotan.
 Etxe berrian dago bizitzen,
 ez dago keizatekotan.
- OLALDE Ta orain berriz egin behar diot
 bere osaban galdera:
 Hain maite degun gure Manuel
 etortzen al da honera?
- O. ALBERDI Bertsolari zan eta oraindik
 hark eutsiko dio tinko;
 gure artean beste halako bat
 etzan gaizki etorriko.
- OLALDE Hura Manuel degu deituraz
 ta bertsotan Uztapide.
 Denei bezela besarkada bat
 emaiozu, ba, hari're.
- O. ALBERDI Mnuelek'e bertsolaritzan
 noizbait egingo zun lana;
 pena bat badet, inoiz harekin
 bertsorik kanta ez izana.
- OLALDE Bere osaban ezaugarriak
 zitun kantuzko antzetik,
 eta bertsoa hitzetik bota
 kantatzen daki motzetik
- O. ALBERDI

OLALDE Nire ustetan Manuel honek
gauz baten zuen itzala:
Bertsolai ona baina falta bat,
osaba hobe zala.

O. ALBERDI Failoa ez da hori neretzat,
pasa nahi det abisua.
Uztapide zan garai bateko
bertsolarien maisua.

UZTAPIDE taberna 2011

G. LOPETEGI Lehen Uztapiden plazan ein degu
ta orain bere taberna,
Uztapideren izenarekin
bete degu herri dena.

M. TELLERIA Zestu aldean nahiz Uztapidek
izan egundoko sonak,
bere antzikan ez dauka bate
mostradorean dagonak.

G. LOPETEGI Kanta dezagun orain dotore,
alai-alai edo majo,
famatzeari utzi deiogun,
bildurrikpe adarra jo.

M. TELLERIA Tabernetara sartzen gerade
makinatxo bat xeibre,
adar jotzea ez dago gaizki,
gehiago ez daukazu libre.

- G. LOPETEGI Libre ez bada neure buruai
in nahi diot propaganda,
indik soltero kontserbatzen naiz
hain elegante izan da.
- M. TELLERIA
-
-
-
- G. LOPETEGI Neska gazteak sortzen didate
neri hainbat tentazio,
parekorikan ez det bilatzen
edo ta ez det balio.
- M. TELLERIA Terreno hortan esperientzia
nola daukadan jadanik,
failua nun daukazu esanda
erakutsiko dizut nik.
- G. LOPETEGI “Hombres, mujeres” programatxo
dago modan gau partian,
han ikasia praktikatzen det
Azpeitiraino juatian.
- M. TELLERIA Emakumeak horixe baino
esijentegoak dira,
ta zuk denbora pasatzen dezu
telebistari begira.
- G. LOPETEGI Arrazoi dezu, ai Telleria,
gauzak ez daude hain klaro,
oain neretzako egiten badet
gero ein behar birentzako.

- M. TELLERIA Eta horrela baldin badegu
 koplari honen ustea,
 soinu-jolea eraman zuk ta
 nik hartuko det bestea
- G. LOPETEGI Baina egia, ai Telleria,
 zuk ez dakizu ondoen,
 oso gustora hartuko nuke
 lengusina ez banuen.
- M. TELLERIA Batzuk ardoa, besteak ura,
 ta gu kantuz ari gera;
 emanagatik mila esker ta
 muxu on bat, kamarera.



Olalde eta Zendoia

TXOKO taberna 1994

- UZTAPIDE II Baserrian'e ibili gera,
ondorenean kalera.
Kale behetik hasi ta orain
bagatoz Txoko aldera.
- OLALDE Txoko tabernak herri honetan
aspalditikan du sona.
Nahiz edan edo nahiz jateko
lehen ere zan leku ona.
- UZTAPIDE II Holakoxea izaten bai da
munduko kontua sarri.
Bizimoduak erakusten du
egin behar danaren barri.
- OLALDE Zahar eta gazte jarri gaitezen
etorkizunai begira.
Zaharrak'e pozik joan ohi dira
gazteak dauden tokira.
- UZTAPIDE II Zahar eta gazte alkartu behar
izaten bai degu sarri.
Maitetasuna izan da hemen
talde denaren uztarri.
- OLALDE Dudarik gabe saiatuko da
horixe bere lanean.
Igual goxoa ez da izango
egoskortutzen danean.

- UZTAPIDE II Izugarria degu, Jabier,
hemen jarri duten festa;
zu bezelaxe hasarretzean
goxua danikan ezta.
- OLALDE Asko pozten naiz ikusirikan
taberna hontako jira;
dударik gabe gure herrian
mutil jatorrak badira.
- UZTAPIDE II Esan duanak ez dit eragin
neri horrenbeste grazi.
Lehen egoskor xamarra dela ta
orain zeu famatzen hasi.
- OLALDE Hemen ixilik egotea ere
nolatan ez dan komeni,
beste pare bat bertso bota nahi
dizkiot Mari Karmeni.
- UZTAPIDE II Beraz arreba famatzen orain
egin dezagun ahalegin;
barkatu baina hor bere atzean
ikusi ere ez det egin.
- OLALDE Hori aitatu gabe ni behintzat
ezin nintzan joan ihesi,
Jabierrek baino gutxiago
ez duelako merezi.

- N. ZENDOIA Gauon esanda denen partetik
hasi beharrean nago.
Txoko honekin kontatzen degu
beste txoko bat gehiago.
- OLALDE Notizi batzuk jakinak ditut;
zuzendu nahirikan Luisi:
Haur bat izan omen dezute-ta
zorion minak lehenbizi.
- N. ZENDOIA Gure Olaldekin hutsegite bat
izan du lehengo bertsuan.
Luisekin etzuan haurrik izango,
andreak izango zuan.
- OLALDE Hara, Nikolas, hasi al zera
hirugarren hanka bilatzen?
Horrek'e parte hartuko zuan,
bakarrik ez dute asmatzen.
- N. ZENDOIA Gure bertsuak entzunda hori
ez da jarri gorri-gorri;
ondo zekin bai andreak bila
zein tokitara etorri.
- OLALDE Gure Luis hau Zumaiakua
ez degu gizon tontua;
honek bi gauza bilatu zitun:
Andrea eta txokua.
- N. ZENDOIA Beraz, hainbeste maitatutzen du
Zestu aldeko txokua?
Haurra're ia ekarri dute
bibote ta guzikua.

OLALDE Hara, Nikolas, zuk gauzak hemen
nahi dizkidazu gogora.
Utzi pakean, ertetzeko ere
oraindik badu denbora.

N. ZENDOIA O, Luis jauna, barka zaidazu
egin badet pekatu-rik.
Broman bakarrik ari natzaizu,
haurrak ez dauka errurik.

TXOKO taberna 1996

N. ZENDOIA Badakizute egualdi hotza
egiten dula kanpoan;
aitzaki txiki hori hartuta
sartu gerade Txokoan.

OLALDE Uztapide zan gaztez beteta
eta Txokonean berdin;
hainbeste gazte leku txikian
ez det ikusi aspaldin.

N. ZENDOIA Txokoan xirrik izango dira,
nik halaxe det espero;
hainbeste oker egin behar du
Txokoan sartu ezkeror.

OLALDE Horretarako oraindik goiz da,
noski, badago denbora;
xirri kontuak izaten dira
goizaldetik gerora.

N. ZENDOIA Lehengo zaharrek esaten zuten
ta nik eztaukat ahazturik,
jolas eiteko gogoia bada
ez da izaten ordurik.

OLALDE Lehendikan ere ezaguna da,
badegu honen konduta.
Luiseri zerbait kanta deiogun
hainbat mereziko du-ta.

N. ZENDOIA Olalde honen bertso polita
nik ondo det ulertu ta
mutil majua liteke hori
bibote hoiek kenduta.

OLALDE Baina gizona trata dezagun
bere alderdi onetik.
Txoko're asko mehoratu zen
hau etorria zenetik.

TXOKO taberna 2006

UZTAPIDE II Pasatu izan degu hemen guk
hamaika ordu goxoko;
leku polita horretarako
beti izandu da Txoko.

OLALDE Txikitatikan nola badegun
leku honetxe berri ta,
hau txokua beti izan degu
ta orain berriz polita.

- O. ALBERDI Mari Karmenek tabernan berri
ere ederki asko daki;
nagusiari bizkar ematen
hemen ez gaude ederki.
- UZTAPIDE II Nik hemen sarri hartutzen ditut
ardo bat eta pintxua.
Jana bereizten badakit eta
beti mokadu goxua.
- OLALDE Emakumea ona dirudi,
hola esango nuke nik;
edozeini kontra egiteko're
horrek ez dauka kuidorik
- O. ALBERDI Pello Lilibe ere hor degu
eta aipatu beharko.
Gaurkoagatik libratu zera
ta prestatu gerorako.
- UZTAPIDE II Horretan beti izandua da
laguntzaile bat trebia;
ez pentsa gero lehenago ere
danikan egin gabia.
- OLALDE Hiru herritar hemen ai gera
eta falta laugarrena;
hara ba, Pello, hasi zaitea
ahalik eta azkarrena.
- P. LILIBE Beraz kantari hasi beharko
hemen ahal dedan moduan...
Hauek titular dabilta eta
ni, berriz, kontrabanduan.

- O. ALBERDI Pello bertsotan oraindik ere
ez da sumatzen elbarri;
bera suplente sentitzen da ta
titular nahi luke jarri.
- UZTAPIDE II Aspaldi xamar hasi ginan da
nahiz eta egon zahartuta,
gaztean bildurrik ez daukat nik
Pello laguntzat hartuta
- OLALDE Pello azkarra beti izan da,
ta garbi esan du dena.
Lehenago ere kontrabandua
izaten baitzan onena
- P. LILIBE Manuel ta ni nola geraden
laukote hontan zaharrenak,
noizean behinka kantatzen dute
txoririkan ederrenak.
- O. ALBERDI Arrazoi latza kantatu digu
Pello lagunak behinipehin;
txori kantari bat behar degu
eta etorri gurekin.
- UZTAPIDE II Nahiz eta izan hau esateko
danen artean gogorra,
leku gutxitan bilatuko dek
holako urretxindorra.
- OLALDE Onak ixilik, txarrak kantuan,
penaz kargatu sorbalda.
Ona izanik ez kantatzea
penagarria ez al da?

LILIBE

Kontseju ematen ez gero hemen
alperrik galdu indarririk;
bestela ez dute arratsaldean
gurera joan beharrik.



Taldea

PORTU jatetxe-taberna 1992

- OLALDE Portu hau ere gaur ikusten det
 erabatez berrituta,
 nola kantatu leku honetan
 izan'e ez gaude ohituta.
- UZTAPIDE II Sarri bazkaldu izan det hemen,
 eta noiznahi afaria;
 jan goxo asko jarri izan du,
 nun ote dabil Maria?
- OLALDE
 nun ote dago Maria?
 Taberna berria jarri arren
 lehengoa dago jabia.
- UZTAPIDE II Ondo pentsatzen jarri ezker
 beti geu gera bentajan.
 Hainbeste lan preparatutzen da
 eta guk dena azkar jan.
- OLALDE Denbora gutxian egin dira
 Portu honetan gauz onak;
 poltsa dextentea ekarria du
 Tolosa aldeko gizonak.
- UZTAPIDE II Itzal haundia ekarria zun
 Tolosako poltsa haundiak,
 eta geroztik juntatu ziran
 hemen zituzten guztiak.

OLALDE Gauza ederrak egin dituzte,
ez diot ikusten txarrik.
Holako obrik ez da egiten
kredituakin bakarrik.

UZTAPIDE II Nunahi bazegok kristala eta
nunahi bazegok marmola;
uste al dek hik obra hau dena
debalde egin da dagola?

OLALDE Diru puxka bat ba ote zuan
esango zendun, agian?
Mari Karmenek zerbaitegatik
botako zion begia.

UZTAPIDE II Mari Karmenek badakit nik hor
etzan bistaritan gabe.
Seguru bera igual bazela
poltsa dextentian jabe.

OLALDE Ez nuen esan nahi etzuela
ere zuenikan sobre;
baina bat ta bat suma ezkerro
gero gelditzen da doble.

PORTU jatetxe-taberna 1994

OLALDE Ez da oraingotzeko taberna ta,
ai, gure Zestuko Portu
Lehen ere marka ona zen eta
oraindik ez da ahitu.

- Uztapide II Iruditzen zait lehengotikan
hasia dela bidia.
Horretarako eskertu nahi det
lehendabiziko Maria.
- Olalde Maria ez ezik alaba ere
hemen dago Mari Karmen.
Aspaldi hontan oso ondo dabil,
ez al da nahiko nabarmen?
- Uztapide II Sarri bidea nora dijoan
erakusten du hariak.
Ederki asko bizi dirade
Joxe Mari eta biak.
- Olalde Egun batean ezkonduzea
nola zuten erabaki,
Joxe Marik'e taxista ezik
tabernan ere badaki.
- Uztapide II Oso da tipo argia edo
gauz batzuetan tipua,
etxe aldera tiratzen duna,
langilea ta zintzua.
- Olalde Dudarik gabe txikitatikan
hau larre motzean hazi,
ta etxe galeran jardute horrek,
Manuel, ez dik merezi.
- Uztapide II Esan liteke bolaraz pixkat
mejoratu da girua;
obra ederra ein dute baina
lehendik bazegon dirua.

- OLALDE Kamarerua aipatzea ere
hemen ez al zaigu falta?
Aitatu gabe ezingo naiz jun
neure lehengusua da-ta.
- UZTAPIDE II Gauza horretan izango gera,
Olalde, biok aiskide:
Kamarerua aipatu zuk ta
nik aipatuko det Leire.
- OLALDE Familikua izanik bera
gaia hartzen det neregán.
Mari Karmeni galdetzen diot
ondo portatutzen al dan?
- UZTAPIDE Gaizki portatzen dan itxurarik
nahiz ez izan oraindaino,
nik Leireri galdetu nahiago
gaur Mari Karmeni baino.
- OLALDE Leire hori zein degun ere gaur
entera beharko ni're,
hurrengo baten ezagutzeko
jakitea komeni're.
- UZTAPIDE II Estimatzeko marka benetan
hemen dadukaten haxe;
zahar eta gazte, urte askotan
jarrai zazute holaxe.

- N. ZENDOIA Toki batzutan ez da xamurra
lortu izatea azaina,
jendea ixilik egon ezkero
zerbait izango da baina.
- OLALDE Jende pixka bat nabari degu
ta garbi daukagu saltsa.
Jakin nahi nuke ondo al doan
larunbat hontako martxa?
- N. ZENDOIA Iruditzen zait hemen ez dago
negoziuan faltikan;
ederki asko zaindutzen ditu
amonak sukaldetikan.
- OLALDE Nahi baldin bada txuleta eta
nahi bada arrautz paria.
Beti bezela hor guapa-guapa
hortxen daukagu Maria.
- N. ZENDOIA Horrenbeste lan egin da gero
ta halare guapa egon,
nik galdetzen det hau bezelako
amonarikan nun dagon?
- OLALDE Oso dotore daukagula gaur
ni're nago antzemanda.
Seguru asko preparatu da
pelukerian izanda.
- N. ZENDOIA Neska gazte bat han ikusten det
hauzko aldeko talaian,
amona ere holakoa zan
gaztetxoa zan garaian.

- OLALDE Hori Marian iloba da ta
izena omen du Leire.
Urruti xamar zaude han eta
etorri honuntz zu ere.
- N. ZENDOIA Berez neskatxa polita eta
gainera izena Leire.
Zeu gustora baldin bazerade
gustatzen zait neri ere.
- OLALDE Hara, Nikolas, hemengo berri
gaurkoz jakin nahi dezu ta
hurrena afaltzera etorri
zeure andrea hartuta.
- N. ZENDOIA Xerra, txuleta, txitxarro eta
bisigu edo gibela,
hortikan jaten duten guziei
denei on egin deiela.

PORTU jatetxe-taberna 1996

- N. ZENDOIA Joxe Marik gu gonbidatzea
guziz gauza nabarmena.
Baina lehenengo eska'iozu
etxeko andreak baimena.
- OLALDE Zestu aldera etorri aurretik
gizona graduz beteta,
baimena eskatu beharrik ez du
berak agintzen du-eta.

- N. ZENDOIA Bene-benetan bihotz barrendik
eskeintze'iot zoriona,
toki gutxitan izaten bai da
baimena duen gizona.
- OLALDE Joxe Mari taberna munduan
dago asko ibilita,
jende ugari erakartzeko
dauka reklamo polita.
- N. ZENDOIA Toki denetan ez da ikusten
holako lore gaztea.
Barka ezineko pekatua da
aitatu gabe uztea.
- OLALDE Oso polita dudarik gabe,
badu hainbat kategori;
bihotzan barrenera sartzen da
horrek dun irripar hori.
- N. ZENDOIA Senti dedana adierazteko,
gazte, ez daukat lotsikan;
disimuluko begirada bat
hartuko nuke pozikan.
- OLALDE Hara, Nikolas, zertako hasi
hortako etzera gauza ta,
ez al dakizu egun gaztენტzat
gaudela modaz pasata.
- N. ZENDOIA Gaztetxo bati begira gabe
agertutzen naiz hutsikan;
amonak nola ez didan eiten
errita beste gauzikan.

- OLALDE Berriro ere jarri behar det
alde hontara serio,
bertso entzutera nola Maria
etorri zaigun propio.
- N. ZENDOIA Ama Maria, aurpegi hori
oraindik dago alaia;
gure aurrera etortzeko ere
oraintxe zendun garaia.
- OLALDE Laguntxo batek neri horrela
emana dit albistia:
Donostiarrentzat ona izango da
Bilbotarrentzat tristia?
- N. ZENDOIA Kirol kontuan dago jendea
futbolarekin fijua.
Santa eskaleak hasi dira ta
ni kalera banijua.

KOIOTE taberna 1993

- OLALDE Etorri gera, etorri gera,
 berriz horrela diote.
 Gustoko taberna gaurkoz ere
 bilatu degu Koiote.
- UZTAPIDE II Lehenagotikan banekien nik
 gaur'e gure zai zeundena;
 arrazoiakin azkenerako
 geuk utzi degun onena.
- OLALDE Enteratu naiz etxetik kanpo
 dezutela hemen aita.
 Gorantzi batzuk emanaz berai
 zerbait beharko da aipa.
- UZTAPIDE II Lehenago ere eramana naiz
 zenbait abixu berezi;
 Sebastiana aitatu nahia
 badadukat nik lehenbizi.
- OLALDE Dudarik gabe aitatu behar
 Sebastiana andrea;
 leku askotan bezela hemen'e
 haxe bai da zutabea.
- UZTAPIDE II Lehen'e hitz egin izan ohi degu
 sarritan guk errespetoz.
 Sebastiana, gaur'e propio
 zu agurtutzero gatoz.

OLALDE Pertsona beti agurtutzea
esker onez bada, on da.
Semea dauka etxetik kanpo,
kezkatuta egongo da.

UZTAPIDE II Holako gauzak nahi gabe ere
tokatzen zaizkigu txandan;
denok horixe nahi degu eta
ia laster pixkortzen dan.

OLALDE Ahal dan azkarren sendatu bedi
bere osasun bidetik;
ta gorantziak mesedez eman
santa eskalien aldetik.

KOIOTE taberna 1994

OLALDE Taberna hauxe alaitu nahirik
etorri gerade kantuz;
pare bat bertso bota ditzagun
falta diranak oroitzu.

UZTAPIDE II Oroipenaren pixua hortxe
egon liteke akaso.
Bakoitzak bere sentimentuak
bere bihotzean jaso.

OLALDE Agur bero bat eman nahirikan
lehen agurtzeko tartetz;
Sebastiana ta Jexux biak
zeruan gertatu bitez.

- UZTAPIDE II Era hortantxe izaten bai da
mundu hontako bizitza;
nahiz eta hemendik joan ziraden
gaur'e gurekin dabilta.
- OLALDE Dudarik gabe haiek joan ziran
ta denok gaude penetan,
ta orain hemen saia gaitzen
aurkitzen geranak bertan.
- UZTAPIDE II Dena hartu behar izaten bai da,
bakoitzak bere saria;
lehendabiziko koplatu nahi det
nik bihotzetik Maria.
- OLALDE Mundu honetxek ekartzen ditu
zenbaitxo une gogorrak,
halaz ta guztiz sortu zituzten
seme-alaba jatorrak.
- UZTAPIDE II Beti pozikan ikusten ditut
beren buruak jirata;
saia gaitzen gazteak oso
bertsozaleak dira-ta.
- OLALDE Hala izango da, eta neu ere
horrela entzunda nago.
Ez dakit baina hau izango da
urrea baino finago.
- UZTAPIDE II Leku askotan izan dirade
holako gauzen testigu,
eta akatsik egiten bada
azkar antzemango digu.

OLALDE Dudarik gabe entenditua
 omen dego oso bera,
 nere gonbitea hor dijoa:
 Etorri bedi taldera.

UZTAPIDE II Kontu ta kantu, soinu-pandero,
 denok oles eta oles;
 joan baino lehen aipa dezagun
 orain Maria Anjeles.

OLALDE Beste gauza bat etorria zait
 orain ahizpa ikusita:
 Kontxita degu oso guapa ta
 Maria Anjeles polita.

UZTAPIDE II Hauek dirade nik dakidanez
 fabrika baten eginak,
 aitortu behar baldin banuke
 biak dirade berdinak.

OLALDE Dudarik gabe jardin eder hau
 ote degu gaur alaitu?
 Ez dakit nola izan dan baina
 zuek horrela jarraitu.

KOIOTE taberna 1995

OLALDE Gaur jende asko dabil tabernan,
 larunbata degu ta jai.
 Nik hemen gabon bero-bero bat
 kliente ta nagusiai.

- N. ZENDOIA Hori nagusi beti bezela
ta gaur gu gaituk kliente;
limosna ederra botako balu
deituko diot baliente.
- OLALDE Hara, Nikolas, azkar askorik
jo diozu zuk ordago!
Limosna eske hasi zerade
merezi baino lehenago.
- N. ZENDOIA Errespetua zeurekin hartu,
etzazu eman tabarrik;
eta nik hemen esango dizut,
ni Josunekin bakarrik.
- OLALDE Ilusiorik etzazu egin,
igual zenduke hor traba.
Zerbait egiteko gauza horretan
bien baimena behar da.
- N. ZENDOIA Berak nahi duna maitatutzea
bizitz osorako on du;
nik mesede bat eskatzen dizut,
etzaitezela ezkondu.
- OLALDE Honen hitz hoiek izango dira
goxuak eta epelak;
Zarautz aldean ez dauzkazute
hori bezelako perlak.
- N. ZENDOIA Gu bezelako kaiku batekin
eroriko bazinake,
zu bezelako uso batentzat
pena izango litzake.

- OLALDE Bere garaian fortunarekin
bere laguna topatu,
usua danez jakingo bai du
zer aldetara hegaldtu.
- N. ZENDOIA Bertsolariak hitz egiten du
makinatxo bat erata.
Arren, barkatu zaiguzu dena
brometan ari gera-ta.
- OLALDE Milaka esker, ixiltzeko're
ordua orain badator.
Agur, Josune; agur, Maritxu;
portatu holaxe jator.

KOIOTE taberna 1996

- N. ZENDOIA Mostradorean andre gazteak
hor ikusten ditut nahasi;
hirurai begira nago eta
ez dakit norekin hasi.
- OLALDE Emakumeai kantatutzeko
gaurkoan hainbeste saio;
nere iritziz lehenbizikoa
amari tokatzen zaio.
- N. ZENDOIA Bi aingerutxo politak hazi,
bera oraindik loria;
mundu honetan bizi izateko
hori da kategoria!

- OLALDE Hau Sastarraingo alaba degu
eta izena Maritxu;
etxe honetan egingo zuan
makinatxo bat zerbitzu.
- N. ZENDOIA Bere alaba bat oraindikan
nobio gabe izan'e;
gaurko honetan hemen aukera
badadukazu, Josune.
- OLALDE Imakulada eta Josune,
hau berriz da gaztetxua;
ez dakit baina zaharran aldian
hau izango da bitxua!
- N. ZENDOIA Bere ahizpa du ezkondukan,
bera oraindik ezkongai;
ez dakit bitxua izango dan,
seguru asko bitxa bai.
- OLALDE Horrek juzgatzen bai omen daki
hainbeste bertsolari on;
galde nahi diot atzo saioa
zer iruditut zitzaien.
- N. ZENDOIA Hara, Josune, ez gero pentsa
atzokoa juzgatzerik;
nere ustetan ez dute haiek
izen haundi bat besterik.
- OLALDE Bertsolariak maiteko ditu,
ez bakarrikan bertsua;
atzo Egañak honera egin zun
lehendabiziko pausua.

N. ZENDOIA

Hara, Josune, Egaña horri
begira etzaite jarri,
baldin ba kaso ez behintzat egin
kalboso lepomeari.

OLALDE

Jendea martxan abiatu dek,
ariko dituk aspertzen;
eta, Nikolas, hasi ai orain
etxeko denak agurtzen.



Santa eskaleak

HERRERO taberna 1992

- UZTAPIDE II Poz haundiakin egin izan det
beti honuntza bixita;
kliente jator asko da gaur'e
nagusitikan hasita.
- OLALDE Zestuan ere taberna asko
eta guztiak jokuan,
jendea ere agertutzen da
portatzen diran lekuan.
- UZTAPIDE II Berehalaxe izaten dira
erantzuna ta galdia;
larre goxua dagon lekura
beti ibiltzen da jendia..
- OLALDE Hara, Manuel, eskubitara
urrutira joan zera.
Badago hemen nori kantatu
ta buelta zaitez atzera.
- UZTAPIDE II Beti gauza bat izaten dezu
zeure buruan amesten.
Barkatu zazu, Olalde; ez det
atzetik bate ikusten.
- OLALDE Nik buelta emateko esan dizut,
ez atzetikan beitzeko.
Begira nolako bikotea
ta ez dauzkagu ahazteko.

- UZTAPIDE II Danen aurrean egia esan
ez da izango pekatua;
inork baino lehen lanak eginda
hortxe daukagu Txatua.
- OLALDE Ez det esango txarra danikan,
ez det esango danik fina,
baina leku gehientsuenetan
ondo azaltzen dakina.
- UZTAPIDE II Bejondaikela, aizak Olalde,
ez dek arrazoi faltikan.
Ondo azaltzen erreza zeukak
nekatzen danagatikan.
- OLALDE Hara, Manuel, hori esateakin
erabat nazu harritzen.
Une honetan konturatu naiz
ez dezula entenditzen.
- UZTAPIDE II Gure kontuak alperrik dituk,
utzi ditzagun erdira.
Egia esan, hori etzegok
gure atzekuei begira.

HERRERO taberna 1995

- N. ZENDOIA Taberna hontan bertsolariak
izango gera berritsu.
Nori begira jarriko dira
Marije eta Arritxu?

- OLALDE Alkarri parrezka hasi dira
hoien izenak jakinda;
badakizute gure artean
sekretorikan ezin da.
- N. ZENDOIA Marijeri ta Arritxuri nik
ez diet eman nahi minik;
bitan politen zein ote dagon
nago antzeman ezinik
- OLALDE Zenbait lanetan neska-mutilak
badute diferentzia;
mostradorean neskatxa batek
beti badauka grazia.
- N. ZENDOIA Mostradorean barruan hortxe
daude bi andrazko polit;
bat ezkondua, bestea ezkongai,
hortan ez dio ajolik.
- OLALDE Zuk ezkon hitza aipatu dezu,
ta hoiek diote ja-jai.
Gazteak dira ta oraindikan
ez dute kateatu nahi.
- N. ZENDOIA Ezkondu hori nik ez dadukat
bazter batera uzteko;
baina, Arritxu, polita zera
Zumaiarra izateko!
- OLALDE Nik pentsatzen det Nikolas honek
puntada bota didala.
Ez al dakizu zelai guztitan
lore politak dirala?

- N. ZENDOIA Baldin, Arritxu, maitean faltan
gaurkoz aurkitzen bazera,
hemen badago mutilzahar eta
kaikutik nahiko aukera.
- OLALDE Hara, Nikolas, egin nahi dezu
hor norbaitekin tratua.
Begi eder hoiek izango dute
norantza begiratua.
- N. ZENDOIA Begira, Jexux, sinistu zazu
traturikan ez gehiago.
Lehen egin nuen harekin ere
bapo damaturik nago.
- OLALDE Edozer gauza esaten degu
ari gerala bizitzan.
Merezi baino hobea dezu,
ez dakit zer ari zeran
- N. ZENDOIA Ez det esango neska txarrikan
munduan danikan inun.
Itziartar bat hartu nuan da
hartxek engainatu nindun.
- OLALDE Ikusten danez andregaiakin
egin zenduan laprasta.
Ez al dakizu alde horretan
degula larre-behi kasta?

- N. ZENDOIA Bata rubia antzekoa da,
bestea berriz morena.
Nik galdetzen det bietatikan
zein ote dagon onena.
- OLALDE Hara, Nikolas, etzazu galde
aukeratzeko aukera.
Jai daukazu zuk aukeratzeko
kapaz ez baldin bazera.
- N. ZENDOIA Ni abitu naiz neskatxa hoieri
lehenago zerbait esaten.
Bien erdian bizartsu harek
etzun ederki ematen.
- OLALDE Garbi esango det, hara Nikolas,
nik daukadan iritzia:
Honen karizia izango da
umila eta dultzia.
- N. ZENDOIA Gauza polita izan liteke
zuk esan dezun dultzea,
ea horrela kendutzen digun
dadukagun gurutzea.
- OLALDE Jakin nahirikan herri hontako
giro ondradu epelak,
bate dirurik uzten al dute
gaur hemengo klienteak?
- N. ZENDOIA Bi neskatz hoiek lehentxeago
hor egon dira begira;
esango zuten: Pailaso denak
honuntz etorri al dira?

- OLALDE Nolako pertsonaiak geraden
hasi dira antzematzen;
aitona ere egin zera ta
ez dezu ondo ematen.
- N. ZENDOIA Hara, Olalde, era horretan
etzak dantzatu mingaina.
Neuri begira hor zeudek biak
aiton izango nauk baina.
- OLALDE Behin honezkero, hara Nikolas,
behar zenion igarri,
tabernariak aurpegi ona
beti behar dula jarri.
- N. ZENDOIA Gu biok ere bazedukagu
itsusitik aitzakia.
Guri begira dagona, moteil,
ez dala tuntun txikia.

HERRERO taberna 2000

- N. ZENDOIA Aldaketa bat ikusia det
eta begira nengoan;
hiru laguntxo jarri dirade,
lehenoa bakarra zegoan.
- OLALDE Hitz egin dezu orain, Nikolas,
oso lenguaje klaruan,
emakumeak konpontzen dira
bai alkarren anparuan.

N. ZENDOIA Ez det esango anparo hori
sekula ere txarra danik;
etzendun esan nahiko horrekin
gu alperrikan gaudenik

OLALDE Emakumeai gizionezkoak
begirapena fijoak.
Negozian sartzera noa,
martxa ondo al dioa?

N. ZENDOIA Esan didate etxekoandrea
haur txikian zai dagola;
iduritzen zait anparoakin
bakarrikan jai dagola.

OLALDE Anparua horrek bilatzeko
laguna dauka Joxean.
Ikusten danek tabernan soilik
ez dira jardun lanean.

N. ZENDOIA Begira, Jexux, bertso horretan
ez al zera neurritz pasa?
Etzaio horri lana deitutzen
baizikan eta jolasa

OLALDE Ez dira hoiek bromak kontuak,
joan gaitezen gai bila.
Oraindik goiz xamar izango da,
ondo etorri dedila.

N. ZENDOIA Jakin zazute zoriontzeko
neroni're gai naizela;
bi batera ez ekarri behintzat
lagun Olalde bezela.

OLALDE Behin honezkero hau jakin arte
ni ere ez naiz trankila:
radiografian zer esaten du,
neskatxa ala mutila?

N. ZENDOIA Aita ta ama izateko zai,
hor zer litake espero?
Mutilla edo neska ajola
ondo etorri ezkeru.



Olalde

AGUSTIN taberna 1993

UZTAPIDE II Nik zor haundi bat dadukatela
nago ondo antzemana;
lehendabiziko eskertu nahi det
hemengo ama Romana.

OLALDE Nola Ramona ala Romana,
degu etxeko burua,
oraindik ere famili danak
dauka bere anparua.

UZTAPIDE II Egia esan sukaldaritzan
abila genuen oso.
Horrek emanda jandakoa naiz
makinat janari gozo.

OLALDE Sukaldaritzan emakumea
txikitatikan hasia,
ta emakumeak gero bereiztu
izan du bere grazia.

UZTAPIDE II Nahiago nuke nahi nuken dana
esaten kapaza banitz,
Agustini're esatekoak
badauzkat bi edo hiru hitz.

OLALDE Bibotea du haundia eta
ilea ondo etzana;
nunahi ez degu bilatzen gero
modu hontako barmana.

- UZTAPIDE II Gauza garbia esan degu ta
hargatikan ez gaiztua,
biboteakin sartutzen bai du
hemengo errespetua.
- OLALDE Kamareruak beti behar du
errespeto ta tokea,
leku guzitan oso zaila da
bere mailan egotea.
- UZTAPIDE II Seme-alabak ariko dira
behar dan bezela hazten.
Saia zaitezte amonak daukan
errespetua erakusten
- OLALDE Jun beharko degu nahiz eta hemen
egon oso itxura haundiz;
datorren urtez jaunak nahi badu
etorriko gera berriz.

AGUSTIN taberna 1995

- N. ZENDOIA Agustinenen sartu gerade
hamar-hogei bat artista;
eskerrik asko une batean
itzaltzea telebista.
- OLALDE Batzuk bertsoak entzun nahi eta
bestek futbola ikusten.
Konprenditzen det, oso zaila da
denei gustua egiten.

- N. ZENDOIA Bertsozalea den gizon batek
bartzertu leike futbola;
Jexux, pentsatu hemen'e bertso-
zale askotxo dagola.
- OLALDE Bertsozale horietako bat
betidanikan Romana.
Bihotzikari xamurrenarekin
orain nua beregana.
- N. ZENDOIA Libre da broman hitz egitea,
noiznahitan zenbait armoni;
zuk orgulloso Romana eta
nik deitu diot Ramoni.
- OLALDE Hauxe bai dala emakume bat
jatorra eta formala;
pentsa ezazu bertso entzutera
propio etorri dala.
- N. ZENDOIA Ni Zarautzikari nator honuntza,
hau esan nahi nizun laster:
Bertsozalea izango bada
Getariarra izan ber.
- OLALDE Getariarra izatez bera
ta egin zan gure lagun.
Ikusten danez herri honetan
oso ondo hartu gendun.
- N. ZENDOIA Getari hori betidanikan
Itsas-bazter bat apaina;
Zestu aldera ihesi zenun,
nunbait bidea labaina.

- OLALDE Romana utzi bere lekuan
ta aipa nahi det Agustin,
etxeko martxa bai daramaki
oso langile eta fin.
- N. ZENDOIA Hara, Agustin, gure Olalde
luzatu dizu lazorik;
enbustekeian hasi da eta
ez egiozu egin kasorik.
- OLALDE Etzazu pentsa ari naizenik
ni hizketan alperrikan;
gizon jatorrai igartzen zaio
begira ta bakarrikan.
- N. ZENDOIA Horren egoki zerbitzen badu
esan dan hainbat bezero,
lan askorikan beharrik ez du
dirua izan ezkeru.
- OLALDE Milaka esker harreragatik,
beharko degu aldegin.
Muxu bero bat, Romana, eta
besarkada on bat, Agustin.

AGUSTIN taberna 1997

- OLALDE Lehen ere hala zan ta orain ere
dago taberna alaia;
bere lanean mostradorean
txukun ari da Mireia.

- N. ZENDOIA Ahal baldin badet jarraitu nahi det,
honek hasi dun haria;
beraz hemen'e nabarmen dago
Mireiaren miraria.
- OLALDE Edozein lanek mundu honetan,
noski, badu hainbat pixu.
Aizu, Mireia, galdetzen dizut:
Asko gustatzen al zaizu?
- N. ZENDOIA Horrelakuak entzuna arren
hori ez det sustatuko.
Lasai egon ai, hirekin behintzat
ez dek asko gustatuko.
- OLALDE Dudarik gabe bizimodua
garesti xamar daukagu.
Deskuidatu zerade, Nikolas,
lan kontun ari ginan gu.
- N. ZENDOIA Hara, Olalde, hire bertsoak
ez dik hainbeste meritu;
xexu kontua aukeran eta
nola lanean aritu?
- OLALDE Derrigor behar mostradorean
behar horrenbeste gradu;
zure moduko pelma batekin
pazientzia behar du.
- N. ZENDOIA Neri gertatzen zaidan gauza hau
gertatzen da toki danen.
Hutsa nerea bakarrik balitz,
hainbeste pelma da hemen.

OLALDE Afaria ere zai degu eta
aurreraka erlojua.
Hara, Nikolas, azken hurrena
orain kantatzera nua.

N. ZENDOIA Hitz egiteko gure aurrean
edukirik hainbeste gai,
zedorrek amaitu beharko dezu,
nik ez nuke amaitu nahi.

AGUSTIN taberna 2001

O. ALBERDI Kopla batzukin alai dezagun
Santa Ageda bezpera;
kanpoan hotz egiten zuen da
barrura etorri gera.

OLALDE Etorri gabe ezagutzea
beti izaten da nekez;
barrukoak aldatu zaizkigu
baina tabernarikan ez.

N. ZENDOIA Mostradorean dama gazte bat
bada bere lagunakin;
oso polita iruditut zait
buru hori-horiakin.

O. ALBERDI Gu poteatzen ibiltzen gera
eta sarri tragoz-trago;
taberna aurrera aterako da
esku honetan bai dago

- OLALDE Neskatxak Intza omen izena,
 halaxe dauka jarririk.
 Goizeko ihintzak ez du izaten
 holako ile horirik.
- N. ZENDOIA Beraz, neskatxa polit-polita
 ta izena berriz Intza.
 Poz ederra nik hartuko nuke
 zure laguna banintza.
- O. ALBERDI Gure Intza honek Nikolaseri
 egin dio nahiko grazi;
 horrek mutila ba omen du ta,
 aizu, ligatzen ez hasi.
- OLALDE Esan dutenez neskatxa hori
 Patxalo zanan alaba;
 gusto askorekin ikusitzen det
 baldin horrelaxe bada.
- N. ZENDOIA Bertsolariak beti gerade
 erdi gose ta plakuak,
 baina brometan hartu itzatzu
 brometan esandakuak.
- O. ALBERDI

- OLALDE Gure Intza da Zestuan jaio
 eta Zestuan hazia.
 Zerbait ingo du baldin badauka
 aitan jenio bizia.

- N. ZENDOIA Bere laguna edo gizona,
nola da zure izena?
Barkatu baina ni ez ezikan
etzaude oso gizona.
- O. ALBERDI Oso neskatxa jatorra degu,
badu lanerako grina;
aizu, Nikolas, hauxe daukazu
etxerako neska fina.
- OLALDE Neskata horren mogimenduan
orain fijatutzen nago.
Badu aire bat, aitan aldean
dela askoz politago.

AGUSTIN taberna 2011

- M. TELLERIA Euskera degu munduan dagon
hizkuntzarik ederrena;
beste batzuek ez jakitea
ez degu gure prolema.
- G. LOPETEGI Arrazoi dezu, gure euskerak
baditu hainbeste urte,
eta ulertzen ez gaituenak
kristorena galtzen dute.
- M. TELLERIA Jendeak hola jokatu ohi du
beti edo gehienez,
euskal kartelak jartzen dituzte
negozorako atean.

- G. LOPETEGI Todo el dia cantando en vasco,
voy a probar castellano,
nuestro lenguaje solo es nuestro,
no entiendo Colombiano.
- M. TELLERIA Me han dicho que el Sr. Juan
tu eres Colombiano,
tienes que aprender nustro idioma
porque eso está en tu mano.
- G. LOPETEGI Barra atzeko giza semeai
meriturikan ez kendu,
dirua bada tartean honek
ederki entenditzen du.
- M. TELLERIA Tu dos palabras ya has aprendido:
agur y eskerrik asko,
en castellano sirves el vino
y luego cobras en vasco.
- G. LOPETEGI Bai, gizaseme honi erderak
nahizta egin dion broma,
parre txiki bat atera zaio
eta egia izango da.
- M. TELLERIA Kanpotarrari senti deguna
bihotzetikan kantatu,
ulertuko zun baina etzaio
kolorerikan aldatu.
- G. LOPETEGI Nahiz ta saioa ez degun egin
motxetxo edota "corto",
euskeraz, agur! esango dizu
ta erderaz, "hasta luego"

- OLALDE Gabon denori lehendabiziko,
gu gera santa eskaleak.
Aurten aurrena aipa nahi ditut
Anardi aita-semeak.
- O. ALBERDI Anardi semea ere hor dabil,
ta ez det ikusten lasai;
alkandora ere hor jantzi digu
neska bat noiz hurbildu zai.
- OLALDE Zuk botatako puntu horrerri
erreparatzera noa.
Ikusten danez jantzia dauka
alkandora modernoa.
- O. ALBERDI Berak eskatzen dun neska mota
aurkitzea ez da broma:
neska bezela oso jatorra
eta etxekoandre ona.
- OLALDE Gauzak hain errez diradenikan,
Oskar, etzazu espero.
Soltero igual geldituko da
hainbat eskatu ezkeru.
- O. ALBERDI Neska ligatzen nahiz ta sarritan
bera etzaigun ausartu;
eskatu goitik egin behar da,
gero datorrena hartu.

OLALDE Pentsatutzen det esan dezuna
 igual izan dala broma;
 hainbat eskatu, erraz konforma,
 hori're ez da ain ona.

O. ALBERDI Nahiz ta neskarik ez dun Anardik,
 nahiz pasa mila bat ordu,
 bera lanean ari danean
 aitak ondo zainduko du.

ARTZEI taberna 2006

O. ALBERDI Honaino ere iritsi gera
 beste urtetan antzera,
 kopla batzuek kantatu eta
 adar piska bat jotzera.

UZTAPIDE II Lehenago ere herri barruan
 eginak hamaika saio;
 jakin nahi nuke zer moduz bizi
 ote zeraden, tokaio.

OLALDE Nola bizi den jakin nahi dezu,
 hara, Manuel Anardi;
 ez dakit baina gizon honetxek
 baditu hainbat alderdi.

O. ALBERDI Nahiz tailerretik eskakeatu
 ohi zen Anardi ederki,
 lana egin behar dan momentuan
 lana egiten badaki.

- UZTAPIDE II Golpea nolatan jo sarritan
jakin behar du gizonak;
alderdi asko ditu horretxek
ta alderdi danak onak.
- OLALDE Katolikua bihurtu omen da
hala dute nabarmendu;
jaitan lanikan ez eitearren
taberna isten omen du.
- O. ALBERDI Lehen lana berak egiten zuen
jai edo ta aste berdin;
aston moduan, ene Anardi,
lan gehiegirik ez egin.
- UZTAPIDE II Lan egitea zertarako da
gero diberti ezian?
Astean lana egiten du ta
jaietan berriz pasian.
- OLALDE Langile beti izan da Manuel,
horretan ez det dudarik;
baina gustatzen zaio aitzea
ematen dunen bakarrik.
- O. ALBERDI Semea ere mutil egina
baina nik badaukat kezka,
aitak bilatu behar al dion
bere bihotzeko neska.
- UZTAPIDE II Matrailak parrez jarritzen dira
baina bihotza serio,
etxeko martxa ematen asko
andreak laguntzen dio.

OLALDE Dohatsua da ta birtutea
 hau izango du onena.
 Taberna azkena jarri zun eta
 graduan orain onena.

O. ALBERDI Barra atzean lanean daude
 seme, andre ta bestia;
 behintzat etxian utzi ohi dute
 irabazten dan guztia.

UZTAPIDE II Norbaitek gaizki esan lezake
 baina halare berdin da;
 asko irabazi zazute eta
 zuek lan gutxi egin da.

OLALDE Dirua egin eta aukeraz
 herritar denak izanik,
 denan mejora baldin bada hori
 ez daukagu zer esanik.



Anardi zaharra

- G. LOPETEGI Santa eskeko ohitura honek
badauka nahiko histori;
hasi aurretik agur eder bat
hemen zaudeten denori.
- M. TELLERIA Bestetan gisa taberna hontan
sartu gerade atetik,
azken tragoa hartu dezagun
erronda pasa aurretik
- G. LOPETEGI Eskuzabalak zerate eta
zabal noa eskatzera,
urtekorikan ez degu nahi ta
guri *Crianza* atera.
- M. TELLERIA Bazkalondoan enun pentsatzen
zinanikan hortarako gai,
kopla kantari moldatzen zera,
gauz gehiagotan ere bai.
- G. LOPETEGI Neregatikan horrelakorik
ez bazenduen espero,
ardoa ona edan behar da
edaten hasi ezkerro.
- M. TELLERIA Egia esan, exigentea
zinanik ez nun espero,
gero gehiegi nahi izaten dezu
horrela ohitu ezkerro.

- G. LOPETEGI Aita hortikan sartu da hona
bilintxi eta balantza,
eskerrak behintzat bere semeak
ez daukan aitaren antza.
- M. TELLERIA Eta aitari ari zerade
bertso atake ta zaunka;
aitanak ez du asko inporta,
semeak martxa badauka.
- G. LOPETEGI Martxa honetan hasi ezker
esplika nahi dizut dena,
gizon ona da, Zestuan degon
komunista fuertena.
- M. TELLERIA Horretarako badabil hori
nahiko atzera ta berandu,
egun gorria parroko jaunak
mezua jakiten badu.
- G. LOPETEGI Udaletxean ibili zan da
nahiko gustora ta arin,
kanpotik dana egin nahi zuen,
barrura sartuta ezin.
- M. TELLERIA Udaletxean zer papel zeukan,
alkate ala aguazil?
Biak batera egingo zitun
negoziuan badabil.
- G. LOPETEGI Gaurko eguna letra haunditan
kalendaiuan apunta,
Anardinean trago eder bat
debalde hartu degu-ta.

M. TELLERIA

Eskerrik asko, estimatzen da
etxe hontako arreta,
agurtu eta joan gaitezen
afaltzeko zai daude-ta.



Taldea

1992–2011ko koplari, trikitilari eta panderojole zerrenda

Manuel Olaizola *Uztapide II*

Endoiako Uztapide baserrian jaioa, 1939an. 1962ko Bertsolarien Txapelketan parte hartu zuen, Azpeitian, abuztuaren 2an, eta bigarren sailkatu zen, I. Lazkanoren ondoren.

1964ko abenduaren 6an, Eibarren, Gipuzkoako Txapelketa Nagusiaren aurrekoan parte hartu zuen, Lazkao Txiki, J. J. Mitxelena eta P. Aizpurua *Lilibe* bertsolariekin batera, besteak beste.

Loiolako Herri irratiko *Bertsolari gazteen sariketan* parte hartu zuen, 1964an.

Zestoan Santa Ageda eskean koplari urte askoan parte hartu izan du, bere izena Uztapide izena bakarrik ez zela garbi utziz.

Nikolas Zendoia

Aian, 1941 urtean jaioa eta gaur egun Zarautzen bizi da.

1965ean Txapelketa Nagusian parte hartu zuen. 1967koan final erdietara iritsi zen. 1989an berriro itzuli zen Txapelketa Nagusira.

Loiolako Herri irratiko *Bertsolari gazteen sariketan* parte hartu zuen, 1967an.

Zestoako Santa Ageda eskean koplari Olalderekin batera urte askotan jardun izan du. Koplari fin bezain zintzoa.

Egun Gipuzkoako egunkari batean bere idazlanak jarrai dezazkegu, suertez.

Jesus Iribar Olalde

Zestoako Olalde baserrian jaioa, 1956. urtean. Egun Zumaian bizi da. Zenbait herritako txapelketetan parte hartu ondoren, 1982an Txapelketa Nagusian parte hartu zuen. Baita 1986an ere. Txapelketa honetan final erdietara iritsi zen.

Zestoan Santa Ageda eskean hogeita bost urtetik gora koplari jarduna, Zestoako koplagingintzaren historian protagonista nagusia.

Oskar Alberdi

Zestoan 1977. urtean jaioa. Oso gazterik bertsozaletasuna izanik Zumaia eta Zestoako bertso-eskolan eman zituen bertso-gintzako lehen pausoak, Eskolarteko Txapelketan parte hartu izan du.

Zestoan haurren bertso-eskolaren sortzaile eta egun irakasle eta arduradun. 2003an eta 2007an Gipuzkoako Txapelketan parte hartu zuen.

Zestoan Santa Ageda eskean 2001. urtetik gaur arte urtez-urte koplari jarraitzen du.

Garikoitz Lopetegi

Zestoan Goikoetxe baserrian jaioa, 1987 urtean. Egun baserrian egiten du lana. Jakin izan degu bere aitona Tiburtzio Lopetegi ere koplari ibili izan zela.

Zestoako bertso-eskolan urteren bat pasea, baina ez du sekula lagun arteko, familiariko edo auzoan egindako bertso saioaren batean jarduna besterik, bere bertso-gintza lanean.

Bertsoa gustoko duenez, 2007az geroztik Santa Ageda eskean gogotsu eta leial betetzen du bere papera.

Millan Telleria

Albizturren jaioa, 1957ko urtarrilaren 29an.

Gazteen mailan txapelketa askotan parte hartu ondoren, 1982 eta 1986ko Txapelketa Nagusietan final erdietara iritsi zen.

Iñaki Murua, A. M. Peñagarikano, M. Mendizabal, J. Iribar *Olalde*, S. Lizaso eta abarren belaunaldiko bertsolari gazteen partaide zuzena.

Zestoan, 2011n lehenengo aldiz santa eskean hartu zuen parte.

Ziur gaude ez dela azkenengo aldia izango, koplazaleon suerterako.

TRIKITILARIAK

Mardu eta Anabaxo

Joseba eta Jon

Altuna ahizpak

F. Astorkia eta E. Dorronsoro

Lopetegi ahizpak

Eider eta Maite

Zestoan orain dela gutxi baserri, etxe eta kaleen toponimoen
zerrenda berria onartu da, honelaxe:

ZUBIGOENA
TXAPERI (Txapei)

LOPERENA (Lopene)
ZELAIKOA

GOIKOETXEA
AKOARRETXEA

AKOABARRENA (Motzanekua)
AKOABARRENA (Albisu)

AURREKOETXEA
BAIO

LEGOIAGA (Legoia)
BALTZOLABERRI

OLAZARRAGA (Olazar)
ERROTAZAR

LILIBEA
PALAZIO "LILI"

OLALDE
ZUBIMUSU

ONDARBASO
IDOIETA (Iruitta)

SAN BIZENTE
ERLATEGI (Martija)

ETORRAZAR
ETORRAZPI

REZABAL
GAZTAÑAGAENEA

Aurkibidea

Kopla saioak

1. Zubigoena baserria	27
2. Txaperi (Txapei) baserria.....	36
3. Loperena (Lopene) baserria	43
4. Zelaikoa baserria	53
5. Goikoetxea baserria	62
6. Akoarretxea baserria.....	69
7. Akoabarrena (Motza) baserria	78
8. Akoabarrena (Albisu) baserria.....	85
9. Aurrekoetxea baserria.....	92
10. Baio baserria	98
11. San Juan egoitza	105
12. Legoiaga (Legoia) baserria	112
13. Baltzolaberri baserria.....	120
14. Olazarraga baserria.....	129
15. Errotazar baserria.....	136
16. Lilibea.....	144
17. Palazzo Lili	154
18. Olalde baserria	163
19. Zubimusu baserria	172
20. Ondarbaso baserria	179
21. Idoieta (Iruitta) baserria	183
22. San Bizente baserria.....	186
23. Erlategi (Martija) baserria.....	189
24. Etorrazar baserria.....	192
25. Etxaburu baserria.....	197
26. Etorrazpi baserria	199
27. Gaztañagaenea (Errezabal) baserria	205
28. Uztapide plaza	208
29. Lizarritz kalea	212
30. Erdi kalea	214

31. Gurutze plaza	215
32. Alkorta taberna.....	217
33. Mollergi taberna.....	225
34. Uztapide taberna	232
35. Txoko taberna.....	242
36. Portu jatetxea	250
37. Koiote taberna	258
38. Herrero taberna	266
39. Agustin taberna	274
40. Artzei taberna	283
41. Anardi taberna.....	287

